


Maskulinitateak abian



**Gizonekin lan egiteko proposamen bat,
sentsibilizazioan eta aktibismoan oinarritua**

Maskulinitateak abian

**Gizonekin lan egiteko proposamen bat,
sentsibilizazioan eta aktibismoan oinarritua**



RED IBEROAMERICANA Y AFRICANA
DE MASCULINIDADES
RIAM

Lehendabiziko Argitalpenean:

Red Iberoamericana y Africana de Masculinidades, RIAMeko autore kolektiboa: Julio César González Pagés, Neida Peñalver, Yonnier Angulo, Enmanuel George, Maikel Colón, Andrey Hernández, Dalia Acostaren aholkularitzaren laguntzarekin batera.

Edizioa: Nadia Sánchez Hernández

Azalaren diseinua eta maketazio digitala: Rainel Cabarroi Hernández.

Munduko Osasun Erakundea (MOE), Osasunaren Erakunde Panamerikarra (OEP), Kuban Nazio Batuen Sistemaren (NBS) eta Garapenerako eta Lankidetzarako Agentzia Suitzarraren, (COSUDE)ren laguntzarekin batera sortu da lehenengo argitalpena. BATU ZAITEZ, Emakume eta neskatoen aurkako erasoak bukatuarazteko helburua duen kanpainiaren baitan.

Argitalpen honetan adierazitako iritziak ez datoz bat nahita ez MOE/OEP, Kubako Nazio Batuen Sistema (NBS) edo Garapenerako eta Lankidetzarako Agentzia Suitzarraren (COSUDE)ren iritziekin.

Argitalpen honetan:

Red Iberoamericana y Africana de Masculinidades, RIAMeko autore kolektiboa: Julio César González Pagés, Neida Peñalver, Yonnier Angulo, Enmanuel George, Maikel Colón, Andrey Hernández, Dalia Acostaren aholkularitzaren laguntzarekin.

Jose txu Riviere Aranda, Emakunde / Gizonduz eta Juan Carlos Vázquez Velasco, KCD ONGD.

Edizioa: Greta Frankenfeld

Azalaren diseinua eta maketazio digitala: Binari Comunicación

Eskerrak: Cristina Alba Pereda, Maitane Carretero Sánchez, Ibai Cosgaya Prieto, Gorka López Arantzamendi, Jon Txomin Mendia Aramendi, Leire Pascual Basauri, Ainhoa Pérez-Arróspide Navallas, Joseba Villa González.


KCD ONGD

Beurko Viejo 3 – 38. Pabiloia – 12. Bulegoa

PK 48902 – Barakaldo – Bizkaia

www.kcd-ongd.org

IFK: G95550943



Edizio honen aitzinsolasa

“Emakumea ez da emakume jaiotzen, bihurtu egiten da”,
Simone de Beauvoir.

Simone de Beauvoir filosofo, irakasle eta idazle frantziarrak, emakumeen eskubide-berdintasuna lortzeko etengabeko ahaleginean, oso gai garrantzitsua ekarri zuen eztabaidaren muinera: historian zehar eta gizarte gehienetan emakumeak gizonen menpekoak izan dira, orotariko gizarte- eta kultura-eraikuntzak tarteko. Emakumeentzako gogoetagai garrantzitsua irekitzeaz harago, gizonentzako gogoetagaia ere ireki zuen Simone de Beauvoirrek.

Gizarte askotako kultura-eraikuntzek eta alderdi arauemaileek nola jokatu behar dugun eta gure feminitate edo maskulinitateek nolakoak izan behar duten adierazten digute emakume eta gizoni. Gaur egun zehaztutako botere-rolak eta emakumeen gaineko gizonen menderatzea direla eta, sarritan Estatuek eurek, legeek eta justiziak, sinesmenek, ohiturek eta abarrek eutsitako gizarte patriarkala izaten da emaitza. Genero-desberdintasunak gizateriarentzako erronka handia izaten jarraitzen du. Emakumeak munduko biztanleen erdiak diren arren, askotan ez dute eskubiderik oinarritzkoenak ere erabiltzeko aukerarik, diskriminazioaren eta indarkeriaren ondorioz.

Hedabideek eta beraien eragiteko ahalmenak oso eginkizun garrantzitsua dute genero-estereotipoak finkatzeko edo deuseztatzeko prozesuan, nahiz eta gaur egun milioika eta milioika gizabanakok ere baduten genero-berdintasunean eragin positiboa edo negatiboa izan dezaketen mezuak eta irudiak zabalatzeko ahalmena.

Borroka feminista etengabeak aurrerakuntzak eragin ditu genero-berdintasunaren eta emakumeen ahalduentzaren alorrean. Halere, oraindik bide luzea dago egiteko. Ibilbide horretan laguntza handikoak izango dira emakumeen eta gizonen arteko aliantzak, talde, erakunde, instituzio eta pertsonen arteko lankidetzak eta gizarte-eraldaketaren zerbitzuan dagoen komunikazioa. Oso

garrantzitsua da emakume eta gizonek batera hausnartzen jarraitzea pertsona izatearen esanahiaren inguruan, eta gure desberdintasunak berdintasunean bizi izaten ikastea. Alabaina, gizarte-bizitzako esparru guztietan errealitateak eraldatzen lagunduko dituzten eguneroko jarduketak ere egin behar ditugu. Lan batean nahiz bestean, komunikazioa ezinbestekoa da.

Espero dezagun Historia Zientzietako doktorea, La Habanako Unibertsitateko irakaslea eta Maskulinitateen Iberoamerikako eta Afrikako Sarearen kidea den Julio Cesar Gonzalezek idatzitako liburua lagungarria izatea, maskulinitatea nola eraikitzen den ulertzeko, baina, batez ere, feminismoak aspalditik egiten duen lanaren ildotik, eta, bereziki, gizonei begira, gizarteetan dauden genero-desberdintasunak azaleratzeko gai izango diren maskulinitateak eraikitzen laguntzeko; izan ere, horrela lortuko dugu genero-desberdintasunak gainditu eta garapen- eta askatasun-helburu berriak sortzea.

Beharbada, liburua irakurri ondoren, gizonak ohartuko gara gizona ez dela gizon jaiotzen, bihurtu egiten dela, eta dena aldatu egin daitekeela.

J. Carlos Vázquez Velasco
Zuzendaria / Director
Kultura Communication Desarrollo KCD GGKE
Bilboko «Film Sozialak» Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdia

Aldaketaren sarea

2005eko 16 Eguneko Aktibismoa Genero Indarkeriaren Aurka ekimenaren kariaz, Kubako Nazio Batuen Sistemak **BATU ZAITEZ Genero Berdintasunaren eta Indarkeriarik Ezaren aldeko Konpromisoaren Saria** eman zion Maskulinitateen Sare Iberoamerikar eta Afrikarrari (RIAM), Kuban maskulinitate ez-hegemonikoak sustatzen eta indarkeria matxista borrokatzen egindako ahalegin jarraituarengatik eta ekarpen esanguratsurengatik.

Gehienbat gizonez osatua, baina baita kultura patriarkal menderatzailean aldaketa eragitearen alde dauden emakumez ere, RIAMek maskulinitateei buruzko ezagutza eta eztabaida gizarteratzeko espazioak bultzatu ditu Kuban zenbait urtetan zehar, kultura patriarkal falozentrikoak gizonetan dituen eragin negatiboak bistaraziz eta nork bere maskulinitatea bizitzeko bestelako aukera batzuk askotarikoak, solidarioak eta ez-bortxazkoak- sustatuz.

BATU ZAITEZ kanpaina hasieratik bertatik babesteaz gainera, 2012an ospatzen hasi zen Egun Laranja ekitaldiarekin bat egin zuen lehen gizarte-eragilea izan zen RIAM sarea Kuban. Harrezkero, sareko aktibistek hutsik egin gabe ospatu dute hilean behin Egun Laranja, modu askotara ospatuz: 2013an, adibidez, 3.500 pertsona baino gehiagoren artean eta bederlatzi telebista-programatan (milioi eta erditik gorako audientzia izanik) eman zituen ezagutzera RIAMek Laranja Eguna eta BATU ZAITEZ kanpainaren mezuak.

Nazio Batuen sistemaren eta RIAMen arteko ituna medio, Latinoamerikako eta Karibeko herrien artean lehena izan zen Kuba "El valiente no es Violento" ("Ausarta ez da bortitza") kanpaina aurkezten, NBE Emakumeak erakundeak gizonekin lan egiteko prestatutako ekimenari jarraituz. Sareak 6.000 pertsona baino gehiago sentsibilizatu zituen, eta Nazio Batuetako idazkari nagusiak, Ban Kimonek, Kubako BATU ZAITEZ kanpainako gizarte eragileekin elkartu zelarik, berariaz goraiatu zuen bide horretan egindako ahalegina.

Aitortza horren lekukotza jasotzen duen dokumentuaren arabera, RIAM ezinbesteko aliatua izan da BATU ZAITEZ kanpainak artistekin eta kirolariek, komunitateetan, gazte-taldeekin eta unibertsitateetan egindako lanean, indarkeria matxistaren hirukoa oinarri hartuta: hots, gizonen emakumeen kontra, beste gizonen kontra eta beren buruaren kontra darabilten indarkeriari erreparatuta.

Maskulinitateak abian: gizonekin lan egiteko proposamen bat, sentsibilizazioan eta aktibismoan oinarritua izeneko lan honek urrats bat izan nahi du bide horretan, hainbat pertsonaren eta sareko lanaren ekarpenak jasota. Proposamen horren helburua hau da: egungo gizarte patriarkalean nagusi den maskulinitatea nola eraikitzen den ulertzeko beharrezko ezagutzak ematea eta gizon izate hori beste modu batzuetara bizitzeko egin beharreko aldaketa-prozesuen aldeko informazioa eta tresnak eskaintzea, nola gizonezkoei hala emakumezkoiei, baina batez ere gizonezkoiei.

Gaur plazaratzen dugun liburu hau RIAMEk antolatu zituen sorkuntza-tailer batzuetatik abiatuta dago pentsatua eta moldatua, Nazio Batuen Sistemaren (NBS) eta Garapenerako eta Lankidetzarako Agentzia Suitzarraren (COSUDE) laguntzarekin. Neida Peñalver, Yonnier Angulo, Enmanuel George, Maikel Colón eta Andrey Hernández kideek hartu zuten parte aipatutako sorkuntza-lantegietan eta osatu zuten proposamen honen egile-taldea, COSUDEko Programen Ofizial eta maskulinitateetan aditua den Julio César González Pagésen eta Kubako Nazio Batuen Sistemako koordinatzaile egoiliarren bulegoan BATU ZAITEZ kanpainaren koordinatzaile teknikoa den Dalia Acosta kazetariaren koordinazio eta aholkularitzapean.

Ekimen hau Emakume Kubatarren Federazioaren Editorial de la Mujer argitaletxeak -Nazio Batuen BATU ZAITEZ kanpaina diruz laguntzen duten ahalegin nazionalen barruan- argitaratutako sail baten zati bat da. Kanpainari bultzada berria eman zitzaion 2017an, BATU ZAITEZ 2030 izenarekin, Garapen Iraunkorrerako 2030 Agendaren helburu eta xedeekin bat eginez.

Berdintasunaren aldeko eta genero-indarkeriarik gabeko mundu baterako bidean gizonekin lan egiteak duen garrantzia kontuan harturik, *Maskulinitateak abian: gizonekin lan egiteko proposamen bat, sentsibilizazioan eta aktibismoan oinarritua* izeneko argitalpen honek beste hiru osagarri izan ditu aurretik, komunikazioaren, osasunaren eta hezkuntzaren alorrekoak, hurrenez hurren: *Letra con género: propuesta para el tratamiento de la violencia de género en*


los medios de comunicación (“Generodun hitzak: hedabideetan genero-indarkeria lantzeko proposamena”), Violencia contra las mujeres: alerta para el personal de la salud (“Emakumeen aurkako indarkeria: osasun-langileentzako alerta”), eta Educar para la igualdad: propuesta para la prevención y atención educativa de la violencia de género en el contexto escolar (“Berdintasunerako Hezkuntza: eskola-testuinguruan genero-indarkeriari aurrea hartzeko eta dagokion hezkuntza-arreta eskaintzeko proposamena”).

RIAMek bere esker ona adierazi nahi die aldez edo moldez ahalegin hau aurrera ateratzen lagundu duten pertsona guztiei, eta, bereziki, Isabel Moyari, Editorial de la Mujer argitaletxeko zuzendariari, eta Enrique Álvarez, Quisicua-ba Proiektu Soziokultural Komunitarioaren koordinatzaileari, bere proiektuaren egoitza ekimen hau gauzatzeko erabilitako sorkuntza-guneetako bati zabal-tzeagatik.

Maskulinitateak genero-ibilbidean

Definizio orokor baten arabera, generoa eraikuntza historiko eta soziokultural bat dela esan liteke, gizon-emakumei rol, identitate, balio eta produkzio sinbolikoak esleitzen dizkien eraikuntza bat. Sexua ez bezala, zeinak jaiotzatik ditugun ezaugarri biologikoei egiten die erreferentzia, generoa (maskulinoa zein femeninoa) umetatik ikasten den zerbait da eta aldatu egin daiteke norberaren historian edo bizitzan zehar, gizon-emakumeen garapen sozialaren edo erabakien arabera.

XX. mendeko 70. hamarkadan, akademiko feminista anglosaxoiek bulztatuta, genero-ikerketak berehala "ohartu" ziren generoaren kategoria hori, bere dimentsio pertsonala gorabehera, berdin aplika dakiekeela gizon-emakumeen arteko ohiko rol-banaketari eta rol horiek txertatzen diren gizarte esparruei:



Generoaren bereizketa soziokultural hori sexu bien arteko harreman-desberdintasunekin batera etorri da. Batetik, polo hegemoniko bat dago, menderatzailea, boterea bere esku duena; bestetik, menderakuntza- eta diskriminazio-egoeran dagoen bigarren polo bat. Genero-harremanetan, mundu-mailako gizarte-egituren antzinatiko konfigurazio patriarkalak polo hegemoniko horretan kokatu ditu gizonak, mendekoaren papera emakumeentzat utzirik.

Desberdintasun horiek genero-dimentsio guztietan azaltzen dira. Identitate pertsonalari dagokionez, kulturalki gizonei esleitu zaizkien ezaugarriak eta jokatutakoak dira historikoki legitimatu direnak. Gizonak indartsua behar du izan, ausarta, buruzagia, hornitzailea, adimentsua, heterosexuala; eta, gainera, gai izan behar du dagoeneko balioa galdu duten sentimendu batzuk (soilik feminotasunari, emakumezotasunari egozten zaizkion sentimendu batzuk, hala nola ahultasuna, eroapena, zaintza, samurtasuna eta menderakuntza) bere baitatik erauzteko.

Genero-rolen banaketan, ekoizpen-rola (hots, salmentarako eta familiaren kontsumorako ondasunak, zerbitzuak eta irabaziak sortzeko zereginetan aritzea) gizonei egokitu zitzaizkien. Era berean, partaide diren komunitateko garen eta antolakuntza publikoa hobetzeko jardueren gaineko ardura ere gizonei egokituz. Emakumeei, berriz, ugalketa-rolari loturiko lanak izendatu zitzaizkion, hau da, familiaren ongizatea eta biziraupena ziurtatzeko ezinbestekoak diren ugalketa biologikoa eta zaintza-lanak.

Rol-banaketa horrek gizonen ahalduntze ekonomikoa ekarri zuen, eta, aitzitik, oraindik ere, ez ordainsaririk ez aitorten sozialik ez duten lanetara baztertu zituen emakumeak. Lortutako botere-maila horri eusteko, emakumeen aurkako indarkeria justifikatzen edo naturalizatzen duten hainbat mekanismotara jotzen dute gizonak, belaunaldiz belaunaldi iraunarazitako kultur arauetan oinarriturik.

Generoan oinarritutako desberdintasunek, diskriminazioek eta indarkeriek (bizi garen ordena patriarkal hau bere horretan irautea eta erreproduzitzea bermatzen dutenek) desberdin eragiten diete emakume-talde batzuei eta besteei, haien gizarte edo giza baldintzak nolakoak diren: hirian edo landa-inguruetan bizi diren; heterosexuak, lesbianak edo trans diren; indigenak edo afrikar ondorengoak direnaren arabera: ezaugarri fisiko bereziak dituzten; edo GIBa (giza immunoeskasiaren birusa, hiesaren eragilea) duten. Era berean, masku-

linitate-eredu tradizionalatik aldentzen diren gizonak askotariko indarkeria-motak, genero-arauek eta -estereotipoek elikatuak, pairatzen dituzte.

Maskulinitatea ala maskulinitateak?

Genero-kategoriaren bilakaera teorikoaren zati gisa, maskulinitatearen erai-kuntza soziala eta maskulinitatearen eta feminitatearen arteko harremanena modu sistematikoan aztertuak izan ziren XX. mendeko 80. hamarkadatik aurrera. Estatu Batuetan, Kanadan, Suedian, Ingalaterran eta beste herrialde industrializatu batzuetan egin ziren lehen ikerketak, intelektual feministen lan teorikoetatik eta antropologiaren eta historiaren bidez generora egindako hurbilpenetatik abiatuta batez ere.

Ikerketa gero eta osoago horiei esker, hobeto aztertu ahal izan ditugu identitate maskulinoek beren erabidean behar dituzten dispositibo soziokulturalak eta kategoria sozial eta politikoak, haien estereotipoak, bai eta pertsonen eta taldeen arteko harremanetan zein botere instituzional eta kolektiboaren egitura nagusietan aitorten soziala lortzeko ezarritako betebeharrak betetzeak dituen kostuak eta eskatzen duen konpromisoa ere. Era berean, ikerketek genero-harreman berrien bilaketa legitimatu dute, eredu tradizionalen eraispenean oinarrituta.

Ildo horretan, honela definitu izan da **maskulinitatea**: generoari lotutako idealei, estereotipoei eta harremanei buruzko premisa soziokulturalen multzoa, identitate maskulinoa, imajinario subjektiboa eta haren irudikapen soziala erakitzen laguntzen duena. Hala, maskulinitateaz ari garenean, "gizon izateari" (ezen ez "emakume izateari") berez omen dagozkion praktikez, balioez eta atributuez ari gara beti, baita baldintza horiek gorputzaren gaineko esperientzian, nortasunean eta kulturaren eragiten dituzten ondorioei buruz ere.

Orduan, generoarekin gertatzen den bezala, maskulinitatearen eraketa ere, hura txertatuta dagoen kulturaren eta testuinguru historiko eta sozialaren mendean egongo da beti. Maskulinitatea, gainera, erlaziozko kategoria bat da, feminitatearekiko kontrastean baino existitzen ez dena (maskulinitatea VS feminitatea), genero- eta sexu-erlazio espezifikoaren zati gisa. Era berean, beste kategoria batzuek zeharkatua dago, hala nola etniaz, arrazaz, klase sozialaz, orientazio sexualaz eta genero-identitateaz, beste baldintza sozial eta gizatiar batzuen artean.

Logika horri jarraituz, esan beharra dago ezen, gizona bakarra ez den bezala, maskulinitatea ere ez dela gertaera monolitiko bat. Gizon izateko modu asko daude, kulturak, une historikoak, talde sozialak, subjektibotasunak eta indibidualtasunak nolakoak direnaren arabera. Era berean, maskulinitatearen adierazpenak askotarikoak izan daitezke, kultura bakoitzeko ordenamendu hierarkikoa edozein izanik eta kultura horietako guztietako genero-erlazioetan boterearen transmisore gisa jokatzeko duen eredu hegemoniko bat legitimatua egonagatik ere. Horregatik, gero eta gehiagotan, **maskulinitateez** hitz egiten da, pluralean, beren askotariko tipologien aitorpen gisa.

R. W. Connell australiar antropologoa aitzindari izan zen eztabaida teoriko horretan. La organización social de las masculinidades (“Maskulinitateen gizarte antolakuntza”) lanean, Connellek sakon aztertu zuen maskulinitateen adierazpen-heterogeneotasuna, hala nola interakzio sozialak eta giza talde espezifikoen erabilgarritasunak dauden estrategiak eta baliabideak. Harentzat, “edozein maskulinitate, praktikaren konfigurazio bat bezala, hainbat erlazio-egituratan kokatzen da aldi berean, zeinak ibilbide historiko desberdinak egiten egon baitaitezke. Beraz, maskulinitatea, feminitatea bezala, barne kontraesanekin eta haustura historikoekin lotua dago beti”¹.

Erlazio-ikuspegi horretatik abiatuta, mendebaldean (hots, Amerikan eta Europan) nagusi diren maskulinitate-eredu behinenak eraikitzen dituzten praktikak eta erlazioak definitzen ditu Connellek. Eredu horiek ez dira egoera homogeenak, kontraesankorrak baizik, desiren eta praktiken arteko tirabiren adierazpen-lekuak.

Teoria horrek, askotariko maskulinitateak daudela eta haien arteko erlazioak konplexuak direla dioenak, egile eta teoriko askoren babesa jaso du egungo eztabaida-giroan. Izan ere, hortxe datza gizonezkoen artean sortzen diren erlazioen funtsa: maskulinitatearen adierazpen guztiek ez dute zertan ekarri berekin botere-erlazioekiko analogia bat.

Definizio **hegemonikoak** botere-maila egoki bat adierazten du, emakumeen kontra zein beste gizon batzuegana zuzenduta gauza daitekeena. Era berean, bestelako eskakizun batzuk inplikatzeko dituzten ikuspuntu indibidualetik definizio horrek, maskulinitateen askotariko sozializazio-eremuetan (are gizon-talde espezifiko horietan ere) nagusitasun- eta mendekotasun-harremanek gehiago indartzen baitute hegemonikoa den idealera gehien hurbiltzen dena: hots, gizon zuria, hiritarra, eskuarteduna, indartsua, oldarkorra, bulartsua, arrakastatsua eta heterosexuala. Robert Brannon psikologoak 1976an gizentasunaz emandako definizioan oina-

1 Connell, R. W., La organización social de las masculinidades. University of California Press, Berkeley, 1995. https://www.academia.edu/6901808/La_organizacion_social_de_la_masculinidad_-_R.W._Connell

Maskulinitateak

Konplizea


Loturak ditu nagusi den ereduarekin, baina ez du beraren aldaera muturrekoenetan ordezkatzen. Eredu hegemonikoak zorrotz betetzen dituzten gizonen kopurua txikia izan ohi da; gehienek onurak ateratzen dituzte nagusitasun/mendekotasun erlazio patriarkal-tatik, hegemonikoa den ereduarekin konplizitate-erlazioak sortuz. Kultura patriarkalak gizoni eskaintzen dien botereaz baliatzeko aukera ematen duten eredu arabera eraikiak dira maskulinitate konplizeak, baina beti posizio hegemonikoan egon beharrak berekin ekartzen dituen tirabirak edo arriskuak jasan gabe.

Hegemonikoa

Patriarkatua legitimatzen eta gizonen emakumee-kiko nagusitasuna bermatzen duen (edo bermatzen ahalegintzen den) praktika orokorra. Ideal kulturalaren eta botere instituzional kolektiboaren artean korrespondentziaren bat dagoen bitartean ezartzen da nagusitasun hori. Patriarkatuaren kontrako erresistentzia handitu ahala, maskulinitate jakin baten nagusitasunerako oinarriak ahulduz doaz. Hala, emakumeek edo beste gizon batzuek arriskuan jar dezakete gizon-talde baten nagusitasuna.

Mendekoa

Nagusi diren paradigmak kontra dagoen guztia emetasunari lotua agertzen da askotan. Gay maskulinitatea da horren adibide nabarmenena, baina ez bakarra. Gizon edo mutil heterosexuallak ere mendeko maskulinitatera egokitzen dira, "gizon izatea" zertan datzan zehazten duten estereotipo batzuetatik urruntzen diren neurrian eta femeninotzat jotzen diren portaerak edo ezaugarriak barne hartzen dituzten heinean. Praktikan, botere-erlazio horiek zapalkuntza, bereizkeria, bazterkeria eta indarkeria dakarte beti.



Iturria: R. W. Connell-en La organización social de las masculinidades ("Maskulinitateen gizarte-antolakuntza") lanetik moldatua

rituta, Michael S. Kimmel aditu anglosaxoiak dio maskulino izateak femenino ez izatea eskatzen duela, hau da, emakumeak ez bezalakoa izatea². Hona hemen, maskulinitatea definitzeko, gizonek beren iruditerian darabiltzaten lau elementuak:

- Emakume konturik batere ez! Gizon-gizona denak inoiz ez du emetasun kutsuko ezer egin behar. Maskulinitateak femeninoa denaren erabateko arbuioa dakar.
- Lemazain nagusia izatea. Botereak, arrakastak, aberastasunak eta posizio sozialak ematen dute maskulinitatearen neurria. Emakumeekiko harremanetan, gizonezkoek agindu behar dute.
- Haritza bezain sendoa izatea. Maskulinitateak patxadaz eta segurtasunez jokatu behar du egoera larrietan ere, bere burua kontrolpean daukala. Izan ere, gizona gizon dela erakusteko modurik onena emoziorik ez azalerratea da: Gizonek ez dute negar egiten!
- Agresibitatea eta indarkeria fisikoa eta psikologikoa islatzen dituen jarrera izatea beti. Indarkeria fisikoa zein hitzezkoa gizentasunaren eta botere maskulinoaren ezaugarri ezinbestekoa dela erakutsi behar da beste gizonen aurrean, baita emakumeen, zaharren eta haurren aurrean ere.

Alda Facioren iritziz, ideologia patriarkalek "gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak eraikitzeaz gain, emakumeen gutxiagotasuna berezkoa edo naturala dela ulertarazteko moduan eraikitzen dituzte. Ideologia patriarkal guztiek euren erara eraikitzen dituzte sexuen arteko ezberdintasunak, eta, azken finean, gauza batek bakarrik bereizten ditu batzuk besteetatik: zein mailatan legitimatzen duten emakumeen desabantaila eta zenbatek partekatzen duten haiei buruzko iritzia bera"³.

Arrakalak eredu hegemonikoan

Lehen hurbilpen teorikoetatik abiatuta, XX. mendearen bukaeran eta XXI.aren hasieran, hainbat ikerketa bultzatu dira nazio-, eskualde- eta mundu-mailan, bi helburu hauekin: batetik, maskulinitateen egungo joerak finkatzea; bestetik, ezinbestekoa dugun aldaketarantz aurrera egiteko bidean (hau da, patriarka-

2 Kimmel, Michael. Homofobia, temor, vergüenza y silencio en la identidad masculina. <http://www.caladona.org/grups/uploads/2008/01/homofobia-temor-verguenza-y-silencio-en-la-identidad-masculina-michael-s-kimmel.pdf>

3 Facio, Alda. Feminismo, género y patriarcado. <http://justiciaygenero.org.mx/wp-content/uploads/2015/04/Feminismo-g%C3%A9nero-y-patriarcado.-Alda-Facio.pdf>

tua gainditzeko eta gizarte berdinzale eta inklusibo baterantz urratsak egiteko bidean) gizon-talde batzuetan dauden potentzialtasunak zehaztea.

Osasunaren Erakunde Panamerikarreko Nerabeen Osasun eta Garapen Unitateak 2000. urtean egindako ikerketa batek datu jakingarri batzuk plazaratu zituen Latinoamerikako bederatziherrialdetan (Brasil, Kolonbia, Costa Rica, El Salvador, Guatemala, Honduras, Jamaika, Mexiko eta Nikaragua) "gizon egiteko" prozesuaren inguruan. Ikerketaren ondorio nagusien artean bada bat bereziki azpimarratu beharrekoa: itxura denez, nerabe eta gazte latinoamerikarrek beren buruaren eraikitze-prozesu horretan etengabeko beharra dute beren gizontasuna erakusteko, lau agertoki hauetan, hain zuzen: Beren Buruaren aurrean, Familiaren aurrean, Bikote-lagunaren aurrean eta Kidekoen aurrean.

Hacerse hombres: la construcción de la masculinidad en los adolescentes y sus riesgos ("Gizon egitea: maskulinitatearen eraikuntza eta arriskuak nerabeetan") ikerketaren egileetako batek, Rodrigo Aguirre psikiatra txiletarrak, honako hau dio horren gainean: "gizonek emakumeekiko aurkakotasun-harremanean eraikitzen dute beren burua, eta beste gizonen aurrean agertzen dira gizon. Maskulinitate hegemonikoaren inguruko presio sozialak beren gizontasuna erakusten ibili behar izateko egoera zailean jartzen ditu denbora guttian mutil gazteak, haientzat arrisku denetan handiena dena -hots, kidekoek homosexualtzat hartzea- saihestuko badute". Emakumeek pentsatzen dutena baino areago, beste gizonek pentsatzen dutena izango da beti garrantzitsua.

Hala ere, OEPren ikerketak arrakala batzuk aurkitu zituen maskulinitateari buruzko irudi hegemonikoan, zeinak aldaketarako faktore potentzialak izan baiditezke maskulinitate berrietarako bidean. Arau patriarkalak zalantzan jartzen zituzten ideia hauek jaso zituen ikerketak: gizon izateko, ez da aski gorputza; emakumeek ere hartzen dute inizatiba; bikote-harremanak ez dira soilik sexu-harremanak, sentimendu-harremanak ere badirelako; gizona laguntzaile da etxean; eta abar. Arrakala horiek, dokumentuak proposatzen duenez, maskulinitate hegemonikoa erautsiko duten diskurtso alternatiboak sarrarazteko balia daitezke.

Ildo horretan, gizonek genero-berdintasunaren aurrean erakusten duten jarra neurtzeko balio dezakeen tresna bat proposatu zuten 2008an espezialistek, herrialde bakoitzeko baldintza soziokulturaletara egokitu beharreko tresna bat. Genero Jokabide Berdinzaleak neurtzeko GEM eskalax (GEM, Gender Equitable Men Scale) "genero-berdintzaletzat" hartzen ditu honakoak betetzen dituzten gizonak:

- Gizonen eta emakumeen arteko harremanak berdintasunean eta errespetuan oinarritzen direla eta genero biek eskubide berberak dituztela pentsatzen dutenak.
- Etxearekiko erantzukizunak, sostengu ekonomikoa ziurtatzeaz areago, aitasuna, zaintza-lanak eta etxeko lanak ere barne hartzen dituela pentsatzen dutenak.
- Sexu-transmisioko infekzioak, haurdunaldiak eta GIB/hiesa prebenitzeko erantzukizuna beren gain hartzen dutenak.
- Preserbatiboa eta bestelako kontrazepzio-metodoak erabiltzeko inizatiba hartzen dutenak.
- Egoera edozein dela ere, emakumeen aurkako indarkeriaren kontra daudenak eta indarkeria erabiltzea justifikatzen ez dutenak.
- Homofobia eta pertsona homosexualen aurkako indarkeria onartzen ez dituztenak⁴.

Azken puntu horretan, transfobia ere gehitu beharko genuke, baita beste edozein gizarte edo giza kondizioengatik emakumeen zein gizonen aurka egindako beste edozein diskriminazio- eta indarkeria-mota ere.



Jatorrizko GEM eskalak -tokian tokiko testuingurura egokituta Brasilen, Txilen, Indian, Mexikon eta Ruandan, IMAGES⁵ (The International Men and Gender Equality Survey) inkestaren zati gisa- era horretako 24 adierazpen planteatzen ditu, eta inkestatuek horietako bakoitzarekin zenbateraino dauden ados adierazi behar dute: erabat ados, partzialki ados, ez-ados. Emaitzek genero-ordena ez-berdinzale baten nagusitasuna berresten dute, gizon zein emakumeentzat kostu handiak dituen, baita genero-jarrerak eta -praktikak aldatzeko halako joera bat ere, hasiberria oraindik.

4 Masculinidades y políticas de equidad de género. UNFPA, 2012, <https://promundo.org.br/wp-content/uploads/sites/2/2015/01/Masculinidades-y-politicas-de-equidad-de-genero-Reflexiones-a-partir-de-IMAGES-Brasil-Chile-Mexico.pdf>

5 Gizonei eta genero-berdintasuneko politikei buruzko herrialde anitzeko proiektu baten barruan egin zen inkesta, Instituto Promundo eta The International Center for Research on Women (ICRW) erakundeek koordinatuta.

SEXUA

Jaiotzatik ditugun ezaugarri fisiologiko eta sexualak. Berezkoak ditugu eta ez dira aldatzen (berez ez, behintzat).



GENEROA

Gizarte bakoitzak sexu-ezberdintasunei ematen dien balorazioa eta esanahia.



Testuinguru jakin batean, emakume izateaz sortzen ditugun ideiak, arauak eta praktikak.

Ikasiak izaki, aldagarriak dira.

EKITATEA

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko justizia, batzuen eta besteen ezaugarriak eta beharrak desberdinak direla onartuta betiere.

Lege eta politiken bidez, desabantailan dagoenari laguntzeko baldintzak sortzen dira.



BERDINTASUNA

Emakume eta gizonen aukera eta posibilitate berdinak dituzte intelektualki, fisikoki eta emozionalki errealizatzeko, baita bizitzarako jarritako helburuak lortzeko eta beren gaitasunak garatzeko ere.

PATRIARKATUA DESMONTATUZ

Patriarkatua

Hainbat erakunde publiko eta pribatutan oinarritzen diren harreman sozial, politiko, ekonomiko eta sexualen sistemak da, gizonak eta gizezkoztat jotzen dena pribilegiatzen dituen, emakumeen eta emakumezkoztat jotzen denaren gainetik. Gizezkoztat jotzen degorputzen dituzte, haien ekoizpen-indarrak eta ugaltze-indarrak jabetu dira, haien gorputzez eta emaitzez, hainbat bitarteko erabiliz, indarkeria barne.

Edozein esparrutan (ekonomikoan, sexualean, lan-alorrean, gizar-tean, familian) gizonaren emakumearekiko nagusitasuna sustatzera, sostengatzera eta "normalizatzerak" bideratutako jarreraren, portaeren, praktika sozialen eta sinesmenen multzoa biltzen duen ideologia.

Emakume-portaera autonomo oro kondenatzen du, eta genero-indarkeriaren, homofobiaren eta transfobiaren oinarrian dago.

Matxismoa



Neomatxismoa

Ustez matxistak ez diren eta gizezkoen eskubideak defendatzen dituzten posizioetatik abiatuta, patriarkatua zerkritikan oinarritzen den presentzia tsamendu-ildoak. Presentzia handia du Interneten eta sare sozialetan. Neomatxismoak minimizatu egiten du emakumezkoen aurkako indarkeria, errudun egiten ditu biktimak eta justifikatu egiten ditu erarduradun mantentzen dituen emakumeak, eta sistematikoki gutxiesten du feminismoa, matxismoarekin parekatuz.

Iturria: Julio César González Pagés doktoreak Mexikon argitaratu zuen «Masculinidades en Movimiento» (Maskulinitateak abian) eskuliburuaren lehenengo bertsioari buruzko informazioa eta Nazio Batuen Kubako Sistemak COSUDEren babesarekin argitaratutako 2016ko eta 2017ko «Agendas de las Mujeres Cuba» lanari buruzko informazioa ere sartu da.

● Emakumezkoak gu baino sentiberagoak dira eta gu baino prestatuagoak daude haurrak zaintzeko.

● Nik denean laguntzen diot nire andreari, baina berak daki hobekien etxeko gauzak nola egin.

● Emakumeak zaindu egin behar dira. Gizon batek ez du jotzen emakumerik. Jotzen badu, emakumeak hori merezi izateko zer egin duen ikusi beharko da.

● Ni ez naiz ez feminista ez matxista. Eskubide-berdintasunean sinesten dut, eta berdintasun hori legeek bermatzen dute jadanik.

● Genero-indarkeriaren biktime gara gizonok ere, emakumeak bezainbat. Emakumezkoek egiten dituzten indarkeria-salaketa gehienak faltsuak dira.

● Hizkera inklusiboa hizkuntzaren kontrako eraso da.

Henbrismoa?

Emakumeak gizonak baino gehiagokotzat jotzen dituen "teoria" funsgabea; matxismoaren beste muturrean egongo litzateke berez. Kontnistaren adierazgarria.

Botere maskulinoa egunerokotasunean inposatzeko maniobera eta estrategia sotilak, emakumezkoen autonomiaren kontra doazenak. Gizonezkoek maiz erabiltzen dituzten trikimailu, amarru eta manipulazioak beren arazoak, desirak eta interesak emakumezkoen gain inposatzeko.

Horieta batak txikitik beretuak dituzte gizezkoek, eta akzio/erreakziozko ohitura gisa funtzionatzen dute emakumezkoen aurrean. Beste batak, bereriz, kontzientek dira, gizezkoek botereari eusteko dituzten trebetasunetako batak dira.

Micromatxismoa

Feminismoa

Emakumeen eskubideen eta genero-berdintasunaren aldeko pentsamendu-ildoak eta mugimendu politikoa.



GENERO-ESTEREOTIPOAK

Idea, arau eta praktika kulturalak. Zer espero dugu gizon-emakumeengandik?

	Emakume batez	Gizon batez
Estereotipo horiek eta antzeko beste batzuek honako ondorioak dituzte: <ul style="list-style-type: none"> ● Emakumearen eta gizonaren balio-gutxi-espena. ● Asimetria bikoite-harremanetan: gizonak agindu, emakumeak obeditu. ● Genero-indarkeria modu desberdinak. 	Bere etxekoa da / esparru pribatukoa	Kalekoa da / esparru publikokoa
	Etxea eta familia zaintzeaz arduratzen da	Familiaren hornikuntzaz arduratzen da
	Ahula da, sentibera, emozionala, irrazionala, beldurtia	Indartsua da, objektiboa, bere burua kontrolatzen du, arrazionala eta ausarta da
	Esanekoa da, autonomiarik gabea, erabakiak hartzen ez dakiena	Independentea, autonomia, erabakiak hartzen dakiena
	Etxean eta etxetik kanpo egiten du lan	Etxetik kanpo baino ez da aritzen lanean
	Bere sentimenduak adierazten ditu	Ez ditu sentimenduak adierazten
	Kontrol-falta	Nagusitasunerako joera
Letretarako eta eskulanearako gaitasunak ditu	Ezaugarri eta portaera intelektualak ditu	

GENERO-ROLAK

Birdefinitzea / Iraultzea / Deseraikitzea / Eraldatzea

UGALKETA-ROLA

Ugalketa biologikoa eta etxearen eta familiaren zaintza bermatzeko beharrezko jarduerak. Gehienetan, emakumeen gain gelditzen da lan hori. Ez du ez aitorpenik, ez ordainsaririk.

KOMUNITATE-ROLA

Norbera edo familia bizi den komunitatearen garapenaren alde egiten diren jarduerak. Ez dute irabazirik ematen, eta emakumeen gain gelditzen dira gehien-gehienetan.



EKOIZPEN-ROLA

Ondasun- edo zerbitzu-ekoizpenaren bitartez diru-sarrerak eragiten dituzten jarduerak. Gizonen gain gelditzen dira gehienetan, irabazi handienak ematen dituzten jardueren kasuan batez ere.

ROL POLITIKOA

Toki-, nazio-, eskualde- edo mundu-mailako buruzagitzak. Botereaz jabetzea ezinbestekoa da, gizartearen garapena antolatzeko eta gauzatzeko. Historikoki, "botere maskulinoaren esparru" nagusietako bat izan da beti hori.





Indarkeria matxistaren hirukoa

Semearen urtebetetzea izango dugu aurki. Zer oparituko diogu? Bada, betidanik nahi izan duen jostailuzko pistola hori. Txiki-txikitatik, mutilak gerratarra jolasten dute, baina inoiz ez zaie uzten -edo ia inoiz ez, badira-eta maskulinitate ez-patriarkalak eraikitze bidean diren familiak ere- neskekin sukaldetan jolasten edo panpinak sehaskan goxo-goxo kulunkatzen. Mutilak, bizi diren herrialdea edo sistema soziala gorabehera, ez dira bikote-bizitzarako, aitatasunerako edo maitasunerako hezten.

Indarkeriaren erabilera gizonen esleitutako ezaugarri soziokultural bat izan da historikoki; genero-harremanetan duten boterea legeztatzearen erabili dute hura. Aitzitik, sinestarazi nahi izan digutenaren aurka, indarkeria ez da gizonezkoen kondizio natural edo biologiko bat. Indarkeria ikasitako jokabide bat da, beren identitate soziokulturala eraikitze elementu gisa inposatzen zaie gizonezkoei, eta patriarkatuaren iraupena bermatzeko baliabide bihurtzen da.

Indarkeriaren bidez, gizonek beren posizio menderatzailea legitimatzen dute bai emakumeekiko bai maskulinitate hegemonikoaren aginduak betetzen ez dituzten beste gizonekiko botere-erlazioetan. Beraz, gizonen emakumeekiko indarkeria ez da prozesu isolatu bat, **indarkeria matxistaren hiruko** gisa ezaguna den horretan txertatutako jokabide bat baizik.

Gizonek beste gizon batzuen aurka darabilten indarkeria maskulinitate hegemoniko patriarkal horren osagai tradizional bat da, eta ez da bistatik galdu behar indarkeriaren arazoan sakontzen dugunean. Sozialki lehiarako heziak direnez gero, gizonak ahulguneak ez izatera edo ez erakustera behartuak dira txiki-txikitatik bizitzan. Norgehiagoka hori maskulinitatearen inguruan indarrean

INDARKERIAREN HIRUKOA



Gizonak gizonen aurka



Gizonak beren buruaren aurka



Gizonak emakumeen aurka

diren estereotipoetako bat da, “benetako arrak” direnak hala ez direnengandik bereizten dituen tasun ezinbesteko bat⁶.

Hala, maskulinitateen sozializazio horren ondorioz, gizonak, desadostasunei edo gatazkei aurre egiteko orduan, indarra eta indarkeria erabiltzera jotzeko ohitura dute, nola haultzarotan, hala nerabezarotan eta helduaroan ere. Joera hori Nazio Batuek agindutako ikerketek berretsia izan da: ikerketa horien arabera, indarkeriaz hildako gizon gehien-gehienak beste gizon batzuen eskuetan hiltzen dira. Nerabezarotik, mutilek neskek baino joera handiagoa dute indarkeria eta borroka fisikorako. Hain zuzen, pertsonen arteko indarkeria da, gaur egun, nerabe eta heldu gazteen heriotza-arrazoi nagusia Latinoamerikan eta Kariben.

Kultura patriarkala homofobiaren eta transfobiaren muinean dago, halaber, gaur egungo munduan. Sexu-orientazio edo genero-identitatearengatiko erasoak genero-arauak urratzen omen dituzten pertsonak zigortzeko gogoak eraginak izan ohi dira, baita gizonak, txikitatik, jendaurrean gizon agertzeko duten beharrak eraginak ere. Fobia horrek -arrastoa utz baitezake kultura patriarkalean hazi eta hezitako emakumezkoengan ere- mehatxupear jar dezake hainbat eta hainbat jende, irudipen hutsen ondorioz.

Mundu-mailako txosten batzuek diote indarkeriazko heriotzen ia % 80 Latinoamerikan gertatzen direla. UNESCOren txosten baten arabera, zenbait herrialdetan, ikasle lesbianen, gayen, bisexualen eta transgeneroen (LGBT) % 85 indarkeria homofobikoaren eta transfobikoaren biktima dira. LGBT kolektiboko

6 González Pagés, Julio César. Macho, varón, masculino. Editorial de la Mujer, Kuba, 2010.

kide ez izan arren genero-arau tradizionalak nolabait urratzen dituzten ikasleen % 33k ere bullying homofobikoa pairatzen dute.

Maskulinitateetan espezialista den Michael Kaufmanen arabera, "gizontasun-proba gainditu ezinaren ondorioz sortzen den segurtasun-gabezia edota, besterik gabe, porrot egiteko arrisku hutsa, aski dira gizon asko -gaztaroan, batez ere- beldur, bakardade, sumindura, auto-zigor, auto-gorrote eta indarkeriazko osin batera eramateko. Egoera emozional horretan, mekanismo konpentsatzaile baten antzera jokatzeko du indarkeriak. Oreak maskulinoa lehengoratzeko modua da indarkeria, norberaren ezaugarri maskulinoak norberaren eta bestearen aurrean sendotzekoa".

Eskola-jazarpen homofobikoa

Haur, nerabe eta gazte askok Kubako eta mundu osoko eskoletan pairatzen duten jazarpena (bullyinga) indarkeriaren beste adierazpen bat da, maskulinitateari, feminitateari eta eraikuntza soziokultural horien inguruko estereotipoei buruzko mitoekin lotua sarritan. 2015ean Zientzia Pedagogikoen Enrike José Varona Unibertsitateko ikertzaile batzuek hiriburuko Marianao eta Boyeros auzoetako eskoletan egindako ikerketa batean, eskola-jazarpen homofobikoaren inguruan elkarriketatutako 150 ikasleren iritzia jasotzen dira, gai hauen inguruan: ikasleen gogobetetasun-maila, segurtasun-pertzepzioa, hizkuntza homofobikoaren erabilera, arrisku-tokiak eta zuzenean edo zeharka eragiten dieten bazterketa-sentimenduak. Galdekatutako ikasleen % 25ek baino gehiagok adierazitakoaren arabera, ikastetxeak "ez dira seguruak" gizon "belaxkentzat", "maritxuentzat" eta "emakume diruditen gizonentzat". Eskola-jazarpen homofobikoaren prebentzioa erronka da denontzat. Elkartzunean, aniztasunarekiko errespetuan eta bakearen kulturaren oinarrituta hezi behar ditugu belaunaldi berriak.

Hala, Kaufmanen arabera, gizonen indarkeria, bere aldaera guztietan, "gizonen boterearen ondorioa da, batetik, baina baita, bestetik, pribilegio batzuetarako eskubidearen pertzepzioaren, indarkeria-modu batzuetarako baimenaren eta boteretik ez izatearen beldurraren (edo ziurtasunaren) ondorioa ere"⁷. Beste hitz batzuetan esateko: kasurik gehienetan, gizonak, "goi-mailako izakiak" direnez gero, "behe-mailako izakiek" -irakur bedi emakumeak- artatuak izateko eskubidea dutela sinetsita hazten dira, emakumeek haien nahiak asetzeko eta apetak pairatzeko prest egon behar dutela sinetsita.

7 Kaufman, Michael. The Seven P's of Mens Violence ("Gizonen indarkeriaren zazpi P-ak"). http://ateneu.xtec.cat/wikiform/.../_media/.../las_siete_ps_de_michael_kaufman_1_doc

Gizonak emakumeen kontra

Bi gizon borrokan kalean: beti agertzen dira beste gizon batzuk borrokalariak elkarrengandik banatzeko edota poliziaren bila joateko prest. Gizon batek lepotik heltzen dio emakume bati hiriaren erdian: inor ez tartean sartzeko prest. Auzoko emakume bat oihuka gau osoan, senarrak jipoituta: ez gara ate-joka hasten, emakumea sorostera joaten edo polizari hots egitera altxatzen. Gure lankide bat, emakumezkoa, besoak ubelduraz beteak dituela agertzen da bulegoan, burumakur eta isilik: lankide batzuk txutxu-mutxuka hasten dira elkarrekin, baina ez zaie burutik pasatu ere egiten laguntza eskaintzea.

Indarkeria-ekintza baten aurrean erreakzionatzen dugun modua txikitatik geureganatu ditugun arau patriarkalen ondorioa da. Kultura patriarkalaren ikuspegiaren arabera, gizonak emakumeen gaineko boterea edukitzeaz gain, erabiltzeko eskubide osoa dute. Gure pasibotasuna, inertzia, isiltasun konplizea justifikatzeko, gizonaren haserrea piztu izana leporatzen diogu emakumeari, bikote baten barruan gertatzen dena gauza pribatua dela dioen arau zaharkituarekin zuritzen dugu geure burua, eta, azkenik, zera esaten dugu, harro-harro: "gu tartean sartuz gero, baietz gizonaren alde atera emakumea".

Gutxitan jartzen gara pentsatzen zerk bultza ote dezakeen emakume jipoitu bat senar jipoitzaile bat jendaurrean defendatzera. Lehenik eta behin, esan beharra dago emakumea bera ere kultura patriarkal baten baitan hazia dela, txikitatik ikasitako genero-estereotipo guztien mende egon daitekeela: sinetsita egon daiteke, adibidez, merezita duela senarraren zigorra, eta gizonak munduko eskubide guztia duela egiten diona egiteko. Bigarrenik, emakume hori beldur paralizatzaile batek harrapatuta bizi da, bizitzako une bakar batean ere bakerik ematen ez dion beldur orokor handi batek menderatuta: beldur da, inoren laguntza onartuz gero, senarrak areago zigortuko ote duen; seme-alabak kendu, etxetik bota edo egun osoan etxean itxita utziko ote duen. Hitz batean, bizitza galtzeko beldur da.

Indarkeriaz hildako gizon gehien-gehienak beste gizon batzuen eskuetan hiltzen diren bezala, eraildako emakumeen proportzio handi bat hurbileko gizon baten indarkeriaren biktima da: bikotearen, bikote ohiaren edo hurbileko familiarteko baten (aitaren, anaia edo osabaren baten) biktima. Hilketei buruzko mundu-mailako ikerketa baten arabera, 2012an indarkeriaz hildako emakume guztien ia erdia (% 47) bikote-lagunaren edo familiako norbaiten eskuetan hil zen. Aitzitik, era horretan hildako gizonezkoen kopurua % 6 baino txikiagoa izan zen⁸.

8 Homizidioei buruzko mundu-mailako ikerketa. UNODC, 2013. https://www.unodc.org/documents/gsh/pdfs/GLOBAL_HOMICIDE_Report_ExSum_spanish.pdf

Zenbait kulturatan, emakumeen aurkako indarkeria matxistak barne hartzen ditu, halaber, honakoak: nesken infantizidioa eta jairo aurretiko sexu-aukeraketa (emakumeen jaiotzak galaraztearren), behartutako esterilizazioak eta abortuak, ezkontza behartuak, alabak ezkonsariaren truke aldatzea, ablazioa edo emakumezkoen sexu-organoen erauzketa (emakumeei plazererako eskubidea galaraztearren), "ohorearen izenean" egindako krimenak (desleiala izan delako susmopean emaztea hiltzea, adibidez) legez babestea eta, gaztaka armatueta, emakumeen gorputzak gerrako botin gisa erabiltzea.

Hala, genero-indarkeriaz hitz egiten dugunean, emakume izate hutsagatik emakumeen aurka erabiltzen den indarkeria horretaz ari gara, zeina handiago bilaka daitekeen emakumeek autonomia fisikoa, ekonomikoa eta politikoa lortzen duten neurrian, eta, ondorioz, botere maskulinoa azpikoz gora eta ordena patriarkala arriskuan jartzen duten neurrian. Egiturazko botere-desberdintasunak indarkeriaren eragile eta aldi berean testuinguru direla esan daiteke.

Nazio Batuen Erakundeak honela definitu du emakumeen aurkako indarkeria: "emakumea helburu duen edozein indarkeria-ekintza, emakumei kalte edo sufrimendu fisiko, sexual edo psikologikoa eragiten diena edo eragin diezaiekeena, baita halako ekintzak egiteko mehatxua, hertsadura edo asakatasun-kentze arbitrarioa ere, bizitza publikoan zein pribatuan gertatua"⁹. Problematika hori, gainera, **giza eskubideen alorreko arazo bat** dela aitortu da¹⁰, eta emakumeen segurtasun, osasun eta ongizaterako arrisku potentzial bat¹¹.

Ibilbide horren barruan, NBEren Idazkari Nagusiak 2006an argitaraturiko "**Emakumeen aurkako indarkeria-mota guztiei buruzko sakoneko azterketa**" horren gaineko informazio eta ebidentzia esanguratsuak bildu zituen eskualde-, nazio- eta mundu-mailan, honakoa ondorioztatzeko: "munduan ez dago inongo eskualderik, inongo herrialderik eta inongo kulturarik, emakumeak indarkeriatik libre gotea lortu duenik".

9 Emakumeen aurkako indarkeria deuseztatzeko Adierazpena, Nazio Batuak, 2013. <http://www.unhchr.ch>

10 Emakumeen aurkako bereizkeria-mota guztiak ezabatzeko Konbentzioaren 19. gomendio orokorra (CEDAW). <http://www.un.org/womenwatch/daw/cedaw/recommendations/recomm-sp.htm>

11 Emakumeen aurkako etxeko indarkeria ezabatzeko Biltzar Orokorraren 58/147 ebazpena. <http://www.acnur.org/t3/fileadmin/Documentos/BDL/2004/2631.pdf?view=1>

Gogoatarako jarraibideak

Indarkeria-gaietan espezialista den Clotilde Proveyer soziologoak egin-dako hainbat ikerketaren sistematizazio batek ezagutzera eman duenez, Kuban, bikoteak hildako gizon bakoitzeko ia hiru emakumek dute patu bera, eta, gehienetan, bizi diren etxean bertan, amarenean edo hurbileko ahaide batenean hiltzen dituzte. Bikotea hiltzen duten emakume guztiak azken aukera gisa jotzen dute horretara. Gizonek eragindako indarkeriaren inguruan, Kuban, zenbait adituk egindako ikerketa batzuen arabera, gizon erasotzaileek ez dute aparteko ezaugarri berezirik, gure gizarteko beste edozein gizon-talderekin alderatuz gero, baina, hori bai, emakumeen aurkako indarkeriarako baliatzen dituzten estrategiak aztertzean, ezaugarri komunak dituzte denek. Gehien-gehienak kultura patriarkalaren aruetan sozializatuak izan ziren, indarkeria erabiltzen zen familia batean, erasoak pairatu zituzten edo euren amen aurkako indarkeriaren lekuko izan ziren¹².


Emakumeen aurkako indarkeria nonahikoa izateak -nazioen mugak, kulturak, arrazak, klaseak eta erlijioak gainditzen ditu- zera adierazten du: indarkeriak patriarkatuan errotuta dituela sustraiak, hau da, gizonek emakumeen gain ezarria duten dominazio sistematikoan errotuta¹³.

Bestalde, Konbentzioaren 19. gomendio orokorrak, emakumeen aurkako bereizkeria-mota guztiak ezabatzeari buruzkoak (CEDAW), berariaz dio emakumeen aurkako indarkeriak larriki eragozten duela emakume zein gizonek esku-bideez eta askatasunez berdintasunean gozatzea. CEDAWek onartzen du ezer gutxirako balio diela emakumeei beren askatasun eta eskubide sozioekonomikoak aldarrikatzea, bizitzarako eskubidea bermatzen ez bazaie aurretik. Ondorioz, Konbentzioko Aditu Batzordeak **bereizkeriaren adierazpen areagotuzat** jotzen du indarkeria, "agerian jarri gizateriak konkistatutako eskubideen izaera integral eta interdependentea eta nabarmenduz genero-indarkeria traba handia dela emakumeentzat eskubide horiez baliatzeko orduan"¹⁴.

12 Proveyer Cervantes, Clotilde. Violencia y sociedad. Una mirada a la violencia de género desde la realidad cubana. Multimedia. La atención integral a la violencia contra las mujeres: herramientas para el trabajo en el ámbito comunitario, 2008.

13 Emakumeen aurkako indarkeria-mota guztiak buruzko sakoneko azterketa, Nazio Batuak, 2006. http://www.ungei.org/srgbv/files/N0641977_sp.pdf

14 Idem ref. 13.



Genero-indarkeriaren oinarritzko faktoreak

Gizonen eta emakumeen arteko harreman-desberdintasunen ondorioa da, izan ere, batzuek eta besteek boterea banatzeko orduan hartzen duten posizio antagoinakoa, nola esparru publikoan hala pribatuan. Eta harreman horietan duten posizio pribilegiatuari eusteko orduan, gizonen baliabide nagusia bihurtzen da indarkeria.

Genero-sozializazioaren parte gisa txikitatik ikasten ditugun arau, balio eta esteerotipoak. Gizonen maskulinitatearen eraikuntza-prozesua indarkeriaren erabileran oinarritzen da neurri handian.

Aldi berean, Latinoamerikako eta Karibeko egoerari buruzko beste ikerketa batean, CEPALek zion emakumeen aurkako indarkeria **gizarte baten atzerapen sozial eta kulturalaren adierazlerik argiena** dela. Desberdintasun-, bereizkeria- eta inpunitate-testuinguru horretan, genero-indarkeria giza eskubideen urraketan sistemiko eta sistematiko gisa agertzen da gainera, baita garapen ekonomiko, sozial eta demokratikoaren oztopo gisa ere, herrialde guztietan¹⁵.

Arazoaren aitorten sozialerainoko bide horretan, ikerlanak eboluzionatuz joan dira beren iritzietan, genero-indarkeria etxe-giroan kokatzen zuten definizioetatik hasi eta espazio publikoetan, maila estruktural eta instituzionaletan, eta are, duela gutxitik hona, ziberespazioan bertan ere gertatzen diren tratatu txarrak eta diskriminazioak barne hartzen dituen begirada zabalago bateraino. Indarkeria-mota muturreko eta ezaguterrazenez gainera (indarkeria fisikoa eta sexuala), badira beste indarkeria-adierapen batzuk ere, nagusi den kultura patriarkalak naturalizatuak, guztiz normalizat jotzen eta kontziente edo inkontzienteki ezkutatatu edo isilarazi ohi ditugunak.

GOGOETARAKO JARRAIBIDEAK

Marilyn Solaya kubatar zinema-zuzendariaren *Mírame mi amor* (2003, "Begira nazazu, laztana") dokumentalak agerian utzi zuen nolako sexu-erasoak pairatzen dituzten emakumeek kalean, zinemetan, parkeetan eta beste hainbat toki publikotan, pajujo edo tirador izenez ezagutzen diren exhibizionisten aldetik. Masturbazio publikoa gizonek emakumeen kontra gauzatzen duten indarkeria-mota bat da. Piropoak berak ere espazio publikoetan hain arrunta den indarkeria-mota horren beste ageripentzat har daitezke, eta botere maskulinoaren adierazpideetako bat dira.

15- CEPAL, ¡Ni una más! ¡El derecho a una vida libre de violencia!, 2007. <https://www.cepal.org/es/publicaciones/2870-ni-mas-derecho-vivir-vida-libre-violencia-america-latina-caribe>

lido horri jarraituz, emakumeen aurkako indarkeria-mota asko deskriba daitezke:

Indarkeria fisikoa Indarkeria-mota guztien artean agerikoena. Normalean arrastoak uzten ditu gorputzaren kanpoaldean. Kolpeak, bultzadak eta ostikoak edo kalteak, lesioak edo heriotza eragin ditzakeen beste edozein ekintza hartzen da indarkeria fisikotzat. Feminizidioa edo genero-arrazoiengatiko emakumeen hilketa selektiboa du azken muturreko ondorio¹⁶.

Indarkeria sexuala Helburu sexualez egindako ekintzak, keinuak edo mehatxuak, hala nola eskatu gabeko laztanak edo sexu-intsinuazioak, ezkontza barruko bortxaketa, ezezagun batek espazio publikoan egindako bortxaketa, behartutako sarketa (ahokoa, uzkikoa edo baginakoa), haurren sexu-abusuak, intzes-tua eta pornografiarako edo exhibizionismorako esposizioa.

Sexu-jazarpena Norbaitek gogoz kontra jasotako sexu-ekintzak (ahozkoak zein fisikoak), nola espazio publikoan, hala lanekoan zein hezkuntzakoan, denboran behin eta berriz errepikatua izan daitezkeenak eta promesa edo mehatxuekin batera gerta daitezkeenak. Ondoeza, umiliazioa, beldurra, atsekabea edo depresioa eragin dezakete jazarpena pairatutako pertsonarengan.

Indarkeria psikologikoa Emakumeari kalte psikologikoa eragiten dion edo eragin diezaiokeen ekintza, haren autoestimua eta libreki erabakitze gaitasuna kaltetu dezakeena. Berezitasun hauek izaten ditu: ahozko tratu txarrak, jeloskortasuna, kontrola, gutxiespenak, manipulazioa, mehatxuak, mugimendu-askatasuna mugatzea eta isilaldi luzeak. Bikotean, indarkeria-mota guztietan ageri ohi da.

Indarkeria psikologikoa Emakumearen mendekotasuna areagotzen duten mekanismoak, haren mugimendu-askatasuna eta baliabide eta zerbitzuetarako sarbidea mugatzen dutenak, biktimaren gaineko kontrola edukitzeko, kaltetzeko edo menderatzeko asmoz. Diruaren erabileraren gaineko kontrola, baliabide ekonomikorik ez emateko edo etxerik gabe uzteko mehatxuak hartzen ditu barne.

16- Genero-arrazoiengatiko emakumeen hilketa selektiboa espazio publikoan zein pribatuan gerta daiteke, eta bikotea, bikote ohia edo ezezagunen bat izan daiteke hiltzailea. Marcela Lagarde antropologo eta feminista mexikarraren arabera, feminizidioa dagoela esateko ezinbestekoa da "krimen horiek prebenitzeko eta desagerarazteko ardura duten autoritateen isiltasunak, omisioak, zabarkeriak eta kolusioak modu kriminalean" bat egitea.

Indarkeria obstetrikoa	Haurdunaldi-, erditze- eta puerperio-prozesuekin loturiko indarkeria-motak dira, nahita edo ohartu gabe gauzatzen direnak.
Indarkeria sinbolikoa	Emakumeek egungo historian edo gizartean egindako ekarpenaren ikusezintasuna, emakumearen irudia sexu-objektu gisa erabilia izatea komunikazio-, kultura- edo publicitate-produktuetan, edo gizonaren mendean jarritako roletan. Hedabideetatik, hezkuntzatik eta kulturatik patriarkatua sozializatzeko mekanismo gisa funtzionatzen du.
Indarkeria instituzionala	Biktimaren kriminalizazioa edo hari babesia emateko ardua duten erakundeen berbiktimizazioa. Besteak beste, ezaugarri hauek ditu: gertaerei buruzko bere bertsioa zalantzan jartzea, eraso berak probokatu izanaren ardurara egozteak biktimari, salaketa jarri ordez arazoa pribatuan konpontzeko konbentzitzen saiatzea, pairatutako tratua txarraren historia hainbat aldiz errepikaraztea. Honako ezaugarri hauek ere izan ohi ditu: emakumei bereziki eragiten dieten zerbitzuen hustuketa ekonomikoa edo ezabaketa bultzatzea, emakumeentzat diskriminatzaileak diren arau eta legeak onartzea eta zerbitzuak edo funtsak kudeatzea...
Egiturazko indarkeria	Emakumei, emakume izateagatik soilik, oinarritzko eskubideak (hala nola hezkuntzarako eskubidea edo enplegu jakin batzuetarako sarbidea) ukatzen dizkieten hesi sozialak, ukiezinak eta ikusezinak.

Informazio eta komunikaziorako teknologia berrien agerpenak beste eremu bat gehitu dio indarkeriaren erabilerari: ziberespazioa. Hala, **ziberjazarpena** deitu zaionaren lehen sintomak antzematen hasiak dira:

- Bikotearen mugikorra zelatzea.
- Mugikorraren edo sare sozialen bidez bikotekidea kontrolatzea edo jazartzea.
- Bikotekideak sareko beste pertsona batzuekin dituen harremanetan tartean sartzea.
- Bikotekideak berehala erantzuten ez duelako haserretzea.
- Bikotekidea bere sarbide-gakoak partekatzerara behartzea.
- Bikotea bere geolokalizazioa erakustera derrigortzea.
- Bikotekideak sare sozialetan partekatzen dituen argazkiak zentsuratzea.
- Beste norbaitekin egindako txata erakustera behartzea.
- Bikotekidea argazki intimoak bidaltzerara behartzea bere borondatearen aurka.

Internet eta bereziki sare sozialak pertsonen salerosketarako -irabazi handiko negozioa- plataforma ere bihurtu dira, sexu- eta lan-esplotazioa helburu.

Mutikoak, neskatoak eta emakumeak dira ia mundu osoko herrialde guztiek (sorburu, igaroleku edo helburu gisa) parte hartzen duten fenomeno horren biktima nagusiak. Biktima gehienak emakume gazteak dira: gezurretako lanpostuak eskainiz engainatu ondoren bortxatuak, drogatuak, giltzapetuak, kolpekatuak eta indarkeriazko ekintzekin mehatxatuak izan direnak, edota zorrez itota, pasaportea kenduta eta xantaiapean bizi direnak.

Gizonak, emakume-salerosketako operazioetan eta irabazietan partaide izateaz gain, sexu-esplotazioaren biziraupena ziurtatzen duten bezero nagusiak dira.

GOGOETARAKO JARRAIBIDEAK

Pertsonen salerosketa genero-indarkeriaren beste adierazpide bat da. Munduan detektatutako indarkeria horren biktimen ia erdia emakumezkoak dira. Emakumeak eta neskatoak, batera zenbatuz gero, identifikatutako hamar biktimatik zazpi dira. Hamar biktimatik bat haurra da. Uztailearen 30a Pertsonen Salerosketaren Kontrako Mundu Eguna da. Kubak pertsonen salerosketaren kontrako tolerantzia zero adierazi du, eta 2017an, Pertsonen Salerosketa Borrokatzeko eta Prebenitzeko eta Biktimak Babesteko Ekintza Plan Nazionala aurkeztu zuen Nazio Batuetan. Ezinbestekoa da fenomeno horren aurrean arrisku-pertzepzioa eta arbuio soziala handitzea.

Ibili haien oinetakoekin

Urtean behin, emakume-oinetako altuak jantzi eta Torontoko kaleetan barrena ibiltzera ateratzen dira, *Ibili milia batez haien oinetakoekin* izeneko ekimenaren barruan. Munduko herrialde askotako jarraitzaileak dituela, Genero Mugimendu Batuak "berdintasunarekin konprometitutako maskulinitatea" sustatzen du, eta aipatutako ekimenaren bidez, genero-indarkeriari aurre egiten saiatzen da, sexu-erasoak eta bortxaketak bereziki salatuz. Kanpainaren bul-tzatzaileentzat, "ez dago beste pertsona baten esperientzia ulertzerik, haren oinetakoekin ibiltzen ez zaren arte".

Laurogeita hamar herrialde baino gehiagotako antolakundeek hartzen dute parte, gaur egun, Lazo Zuriaren Kanpainan; gizonen ekarpenik garrantzitsuenetako bat da emakumeen aurkako indarkeria erazteko borrokan. 1991n sortua Kanadan, tradizionalki gizonek egiten zituzten ikasketa batzuk egin nahi izate hutsagatik eraildako hamalau nerabe emakumezkoren omenaldi gisa, gizonak erantzukizunez jokatzera eta indarkeria matxistaren inguruko isiltasuna eta konplizitatea gainditzera deitzen ditu kanpainak.

Indarkeria matxistaren aurkako ekimen horiez gainera, azken urteotan hainbat esperientzia eraman dira aurrera gizon-taldeetan, gizon bakoitzaren barrutik bertatik aldaketa sustatzeko. Bide horretan, urrats garrantzitsua da ohartzea indarkeria ez dela beti aurrez zehaztutako modu batean erabilia, baizik eta malguki bat bezala abiatzen dela, ia modu automatikoan, mehatxu gisa sumatzen denaren aurrean. *Manual de Capacitación a Líderes Locales en Masculinidades* ("Tokiko buruzagiak maskulinitateetan gaitzeko eskuliburua") eta *Prevención de la Violencia Basada en Género* ("Generoan oinarritutako indarkeriaren prebentzioa") lanen egile den Miguel Ángel Ramos Padillaren ustez, mekanismo hori da, hain zuzen, gizon askok bulkadek eraginda eta ia pentsatu ere egin gabe, erasoaren xedea automatikoki bereiziz, jokatzearen arrazoia.

Peruko Cayetano Heredia unibertsitatean, *Beren indarkeriari uko egiten dioten gizonak* programan sei urtez lanean aritzeak emandako esperientzian oinarrituta, Ramos Padillak proposatzen du maskulinitate ez-biolentorako bidean aldaketa egiteko prozesua gure hurbileneko inguruan has daitekeela, etxean bertan, jarraibide jakin batzuk betez.

Gizonak bagara, gure betebeharra da:

- **Gure indarkeriazko ekintzak ez minimizatzea**, gure artean "ez da hainbestera izan" edo "ia ez dut ukitu ere egin eta" esanez. Ez dago indarkeria txirikik, denak behar dira arbuia eta gelditu.
- **Geure gain hartzea gure indarkeriazko ekintzen ardura**, errua emazteari leporatu gabe. Ezerk ez du justifikatzen indarkeria erabiltzea, eta pertsona bakoitza da bere ekintzen erantzulea.
- **Ez espero izatea emazteak gure zerbitzura egotea**. Gure beharrak asetzeko erantzukizuna gurea baino ez da, ez emakumeena. Horrek, gainera, gure indarkeria abiarazten duten gatazkak saihesten laguntzen du.
- **Indarkeriara jo aurretiko seinaleak** -gure indarkeria abiarazten duten pentsamenduak eta sentimenduak- zein diren ezagutzea, garaiz geldiarazteko edo arriskutik aldentzeko¹⁷.

17 Ramos Padilla, Miguel Ángel. *Manual de Capacitación a Líderes Locales en Masculinidades y Prevención de la Violencia Basada en Género*. UNFPA, 2012. <https://www.mimp.gob.pe/webs/mimp/sispod/pdf/378.pdf>

BOTERE PATRIARKALAREN BITARTEKOAK



Gizonezkoen pribilegioa:

etxeko errege gisa jokatzea; emakumea zerbitzari gisa tratatzea; emakumeari garrantziko erabakiak hartzen ez uztea; gizonek eta emakumeek zein rol jokatu behar duten zehaztea.



Seme-alabak manipulatzea:

emakumea haurren portaerengatik errudun sentiaraztea eta haurrak bitartekari gisa erabiltzea; seme-alabak kentezarekin mehatxu egitea.

Hertsapena edo mehatxuak

erabiltzea: emakumea beldurtzea; harremana etetearekin, suizidioarekin edo salaketa faltsu bat jartzearekin mehatxu egitea; delitu bat egitera edo bere kontra jarritako salaketa bat kentzera behartzea.



Larzeria: emakumeari begiraden, ekintzen eta keinuen bidez beldurra eragitea; objektuak birrintzea; emakumeari bere gauza pertsonalak haustea; armak erakustea edo maskotak gaizki tratatzea.

Bakartzea: emakumeak zer egiten duen, norekin egoten den, norekin hitz egiten duen, zer irakurri edo ikus dezakeen kontrolatzea; bizitza soziala mugatzea; etxetik ateratzen ez uztea.



Abusu ekonomikoa:

emakumeari lan egitea debekatzea; dirua kontrolatzea; familiako diru-sarreraren berri ez ematea edo bere diru-sarrerak erabiltzen ez uztea.



Abusu emozionala:

emakumea gaizki sentiaraztea, besteak baino gutxiago, zikin, errudun; erotuta dagoela pentsaraztea; ezizen laidogarriekin iraintzea; berariaz nahastea eta umiliatzea.

Indarkeriaren gurpilean harrapatutako emakumeak



Emakumeak EZETZ esaten duenean, BAIETZ esan nahian dabil. Eta badakizu... gizona ezkerrean, ezin eutsi barne-bulkadei.

EZTEI-BIDAIA

Erasotzaileak barkamena eskatzen dio biktimari, asko maite duela eta halakorik ez dela inoiz berriro gertatuko ziurtatzen dio, opariak egiten dizkio.



Denborarekin, tentsio-etzanda horiek gehiagotan gertatzen dira, eta bortitzagoak eta arriskutsuagoak izaten dira, emakumearen bizitza arriskuan jartzeraino.



Horrela tratatzen eta zelatatzen badu, asko maite duelako da.

Emazteak gustukoa du tratu txar hori; bestela, aspaldi utziko zuen senarra. Gainera, gizona hain bortitza balitz benetan, salaketa jarriko zion.




EZTANDA

Pilatutako tentsioa lehertzean, abusuak gertatzen dira, kolpeak, sexu-erasoak, bultzadak eta mehatxuak barne.

Bikote-bizitzako indarkeria-ekintzak ez dira ekintza isolatuak. Erasotzailerek desberdin jokatzen dute eremu pribatua eta publikoan. Emakumea bakartu egiten da, eta, azkenerako, egoeraren erruduntzat jotzen du bere burua. Kanpoko laguntzarik gabe, nekeza da gurpil horretatik ateratzea.

TENTSIOA PILATUZ DOA

Oihuak, akusazioak eta irainak gero eta gehiagotan errepikatzen dira.



Emaztea ondo portatuko balitz, ez balu hainbeste tentatuko... Egiten dituenak ikusita, ongi merezita dauka.



Gizon gizajoa... bera ez da horrelakoa. Kontua da asko edan duela eta alkoholak bero-bero jarri duela.



Senarra oso langilea da eta emazteari ez zaio inoiz ezer falta izan. Berak ikusiko du zer egin, baina harremanari eutsi egin beharko dio, seme-alaben onerako.



SEXU-JAZARPENA

Emakumeek laneko esparruan, hezkuntzakoan eta esparru publikoetan pairatzen duten sexu-jazarpena genero-indarkeriarik ikusezinenetako bat da, eta legeetan babesik txikiena duena. Emakumea sexu-jazarpeneren biktima da honelakoak gertatzen direnean:

- Haren garapen profesionala, edo lanpostua bera, nagusiaren sexu-eskaerak onartzearen mende dagoenean.
- Azterketa baten emaitzak irakaslearekin maitekor jokatzearen edo haren nahiei amore ematearen mende daudenean.
- Garraio publikoan gizon bat nahita itsasten zaionean edo ukituak egiten dizkionean, baimenik gabe.
- Zinemaren edo beste espazio publiko batean, gizon bat, masturbatzeak asmoz, ondoan esertzen zaionean.
- Gizon batek, nahi duenean nahi duena esateko eskubidea duelakoan, bere piropoekin, eta baimenik gabe, haren espazioa inbaditzen duenean.
- Kalerik bakarrik doala, egunez zein gauzez, seguru sentitzen ez denean.

III

“Gizon izatearen” kostuak

Txikitatik hitzez hitz jarraitu zituen etxekoei maiz entzundakoak: “mutilek ez dute negarrik egiten”, “gizon portatu”, eta gisakoak. Nerabegarora iritsita, edozein une aprobetxatzen zuen zein indartsua zen erakusteko, etengabe jazarzen zuen gelako ahulena, neska-lagun guztiak galdu zituen jeloskorra eta menderatzailea izateagatik, harik eta, azkenean, neurriko emakumea aurkitu zuen arte: etxetik kanpo lan egiteko asmorik ez eta familia (senarra eta 13 eta 16 urteko bi neskato, dagoeneko gizonengandik babestu beharrekoak) zaintzea beste helbururik ez zuena. Hori besterik ez genuen behar! Inoiz ez du emaztea gaizki tratatzeko beharrik izan... Bere emaztea emakume ona da eta ez dio horretarako arrazoirik ematen. Aukera duen guztietan, hortik zehar ibiltzen da, ron botilatxoarekin eta lagunekin, gaueko ordu txikiak arte. Inoiz ez zaio burutik pasatu bestela jokatzetik: bera gizona da eta gauzek hala behar dute izan.

Antzeko beste milaren arteko istorio bat baino ez da hori. Belaunaldiak joan, belaunaldiak etorri, indarrean dauden baldintza sozioekonomikoak eta politikoak gorabehera, ahaldu egiten dituzten arau patriarkaletan ainguratuta jarraitzen dute gizonak, txikitatik emakumeak baino posizio hobean jartzen dituzten arau horiei tinko helduta. Egoerak, baina, baditu bere makurrak eta kostuak ere: emozioak eta sentimenduak adierazteko ezintasunetik hasi eta etengabe beren gizontasuna erakusten aritu beharra izateraino, are batzuetan ados ez dauden gauzak egin behar badituzte ere, edota beren usteen kontra jokatu behar badute ere, baina hartara behartzen dituen ohituraren presiopean beti. Batzuentzat, hainbeste etekin ematen dien botere hori, sortzetik beretik kultura patriarkalari esker jasotzen duten pribilegio hori, ihesbide zaileko alkandora hertsagarri bihurtzen da azkenean.

“Ar, gizon, maskulino” bihurtzeko bide horretan, emoziorik eta sentimendurik ez adierazteak berebiziko garrantzia du haurtzarotik bertatik. Zenbat aldiz ez ote diogu esan mutiko bati gizonak ez dutela negarrik egiten mina dutenean (min fisikoa zein emozionala), ohartu gabe negarra gizaki ororen erreakzio

natural bat dela? Zenbat aldiz ez ote dugu ikusi gizon heldu bat bere burua ezkutatu nahian, lotsaturik, malkoei eusteko gauza ez delako? Errepresio hori eta errepresioak bizitzan eragin dezakeen min hori nola sortzen diren, Michael Kaufmanek azaldu du bere *Los hombres, el feminismo y las experiencias contradictorias del poder entre los hombres* ("Gizonak, feminismoa eta boterearen esperientzia kontrajarriak gizonen artean") lanean¹⁸.

"Maskulinitate hegemonikoaren (eta mendeko maskulinitate gehien) jabetze-prozesu horretan, gizonak emozio, premia eta aukera sorta oso bat ezabatzen dute, hala nola besteak zaintzearen plazera, harmena, enpatia eta errukia, horiek guztiek botere maskulinoarekin zerikusirik ez dutelakoan. Emozio eta behar horiek ez dira desagertzen ordea; moteldu egiten dira, edota ez zaie uzten paper garrantzitsurik jokatzen gure bizitzan, gure eta gure inguruko kalterako. Ezabatu egiten ditugu, murriztu egin lezaketelakoan guk geure burua eta gure inguruko gizakiak -eta maitasunean eta adiskidetasunean zordun gatazkaizkienak- menderatzeko dugun gaitasuna eta nahia. Gure maskulinitatearen bilaketa horretan erabat baztertu dugun feminitate horrekin lotuta egon daitezkeelako ezabatzen ditugu emozioak".

Kaufmanek dio -Kanadako Lazo Zuriaren kanpainaren sortzaileetako bat da bera- maskulinitate nagusi edo hegemonikoari loturiko boterea oinaze-iturri bilaka daitekeela, besteak beste lortu ezinako helburuak ezartzen dituelako; izan ere, emozioak eta sentimenduak beti egongo dira hor, gogor menderatzen saiatu arren. Adituaren iritziz, giza premien eta gaitasunen sorta handi baten haria galtzean, gizonak emozio-zentzua galtzen dute, baita beren burua zaintzeko gaitasuna ere, "ezkutuko min hori auto-gorroto, auto-gutxiespen, eritasun fisiko, segurtasun-gabezia edo adikzio bihurtuta beren buruaren aurka zuzentzera" iristeraino.

Muga horiek guztiek ondorio larriak dituzte osasunarentzat, baina baita gizonak emakumeekin eta beste gizon batzuekin erlazionatzeko moduarentzat ere. Estereotipo tradizionalak ahulezia-egoeran uzten dituzte gizonak indarkeriaren aurrean -haiek berek eragina sarritan-, sexu-transmisioko gaitzen aurrean, edota garaiz artatuak ez izateagatik okerrera egiten duten beste erita-

18 Kaufman, Michael. *Los hombres, el feminismo y las experiencias contradictorias del poder entre los hombres* http://www.observatorioviolencia.org/upload_images/File/DOC1162568754_hombresspanish.pdf

sun batzuen aurrean, alkoholismoaren aurrean eta bestelako adikzio batzuen aurrean. Bizitzaren amaieran, seme-alabekiko harremana eraikitzeko moduak babesgabetasun-egoera batera eraman ditzake gizonak, emakumeak baino areago.

Kostu horietako batzuk **indarkeria matxistaren hirukoaren** osagai dira, eta zerkusia dute gizonak -ohartu gabe askotan- beren buruaren aurka egiten duten guztiarekin.

GOGOETARAKO JARRAIBIDEAK

Gizon gisa eraikitzeko modu tradizionalak norberaren aurkako indarkeria-prozesu bat dakarte berekin. Gizonezkoen indarkeria fisiko eta psikologikotik eratorritako arduragabekeria pertsonalak norbere buruaren zainketa eskasean eta, gizontasuna erakustearren, gorputz-gaitasunen erabilera gehiegizkoan du bere isla. Gizonezkoen osasunari buruzko ikerketa batzuek agerian utzi dutenez, istripu horietako asko gizonezkoak, arrisku-egoeren eraginpean ez ezik, maskulinitate-estereotipoek legitimatutako bortizkeria erreal eta sinbolikoaren eraginpean ere jarri izanaren ondorioz sortuak dira.

Zaintzaren bidegorputzean

Gizonek gorputza zaintzeko duten modua aldatu egin da XXI. mendean. Be-launaldi gazteenen artean, ohikoa da itxura zaintzen duten gizonak ikustea, bularra, hankak eta besoak depilatzen dituztenak, giharrak sendotzeko gimnasia maiz joaten direnak. Batzuek gauditua dute beste gizonekiko kontaktu fisiko hurbila eragozten zuen hesia ere, eta besarkada batez edo musu emanez agurtzen dute elkar, beren gizontasunaren benetakotasunari buruzko susmoak sortzeko beldurrik gabe. Seinale berri horiekin batera, baina, agertu dira bestelako fenomeno batzuk ere, hala nola gorputzarentzat kaltegarriak diren gaiak erabiltzea, "indartsuago bihurtzeko" prozesua azkartzeko, edo zakilean perlatzeko, emakumeari atsegin handiagoa ematen diolakoan.

Aldi berean, gizonak gorputza zaintzeari zenbat denbora eskaintzen dioten alde batera utzita, joera hori ez da oraindik behar beste eraman osasunaren alorrera. Ohiko genero-arauak erabakigarriak dira oraindik ere emakumez-

koen eta gizonezkoen arteko desberdintasunetan, osasun-zerbitzuetarako sarbideari eta heriotza-arrazoi nagusiei dagokienez. Ez da soilik gizonezkoek ez dutela medikuarengana jotzen larri egon arte, baizik eta herrialde askotan ez dela gizonen osasun-arazo jakin batzuk (prostata-minbizia, kasurako) prebenitzeko kanpainarik ere egiten.

Duela urte batzuetatik hona, genero-teoria osasunaren alorrean aplikatzeak gizonen osasun-problematika agerian jartzeko eta ulertzeko bidea eman du, maskulinitate tradizionala eraikitze eta sozializatzeko moduak nolako eragina duen kontuan harturik. Haurtzaroan hasten den prozesu bat da hori. Familiak permisibitate handiagoz jokaten du mutikoekin, haiek etxetik kanpo egin dezaketenarekin: ezbehar eta indarkeria-mota desberdinak pairatzeko arrisku handiagoan ipintzen dituzte. Gurasoek gehiago zaintzen dituzte neskatoak mutikoak baino, eta eskola-jazarpenaren, pornografiaren, sexu-abusuen eta gisakoen aurrean mutikoek pairatzen dituzten arriskuei buruzko kontzientzia txikia da oraindik. Behin nerabegarora iritsia, joera hori bere horretan mantentzen da, eta mutilak elkarrekin lehian hasten dira, ea nor gizonago agertuko, egunero beren buruak arriskuan jartzera bultzatzen dituen norgehiagoka zentzugabe batean.

GOGOETARAKO JARRAIBIDEAK

Gizonezkoek traumatismoak jasateko eta istripuz edo indarkeriaz hiltzeko arrisku handiagoa dute. Substantzia psicotropikoen abusu-tasa handiagoak dituzte, eta proportzio handiagoan pairatzen dituzte ondorioak: biriketako minbizia, gibelego zirrosia eta arriskuzko sexu-jokabideak. Maskulinitatearen arau zorrotzen eraginez, gizon batzuek uko egiten diote traumatismoak artatzeko edota gaitzen tratamendua behar bezala betetzeko osasun-laguntza bilatzeari.

Nerabezarotik aurrera, sexukako desberdintasunak gero eta nabariagoak dira osasunaren alorrean ere. Une horretatik aurrera, gizonezkoak heriotza-arrisku handieneko taldean kokatzen dira, istripuak, erasoak, suizidioa, laneko gaitzak eta beste gaitz kroniko kasu gehienak, gure maskulinitateak sozializatzeko moduekin lotuak daude.

Alkohola eta drogak: mundu-mailan, substantzia-abusua hiru aldiz handiagoa da gizonezkoen artean emakumezkoen artean baino. Latinoamerikan eta Kariben, urteko alkohol-abusuaren batez besteko prebalentzia % 9,8koa da gizonezkoen artean eta % 1,9koa emakumezkoen artean. Hamabi herrialdetako larrialdi-zerbitzuetan artatutako 5.410 pazienterekin egindako ikerketa baten arabera, alkohola ohikotasunez kontsumitzen zutenek nahitako eraso gehiago pairatu zituzten hirugarrenen aldetik (lagun baten aldetik, normalean), eta eraso gehienak espazio publikoetan gertatu ziren. Osasunaren Erakunde Panamerikarraren (OEP) datuen arabera, gizonezkoen gain-hilkortasuna ikaragarria da alkohol-kontsumo gehiegizkoarekin lotutako ezbeharretan: emakumezkoen artean baino 5etik 50era aldiz handiagoa da tasa hori¹⁹. Alkohola eta bestelako drogak ere gizonak emakumei etxeko esparruan pairarazten dieten indarkeriaren iturburuak dira eta eragina dute familia osoarengan.

GIB/hies: Eskualdean dauden bi milioi GIBdunen arteko gehienak gizonezkoak dira: 2000-2015 bitartean Latinoamerikan detektatutako kasuen % 71 eta Kariben detektatutako % 64. Gizonekin sexua duten gizonen (GSG) artean, infekzio-aukera 3tik 1ekoa dela kalkulatzen da. Gizonekin sexua duten gizonen % 10 baino gehiago birus-eramaileak dira. Gayek, bisexualak eta trans pertsonak pairatzen dituzten estigmak eta diskriminazioak areagotu egiten dute GIBarekiko eta sexu-transmisioko beste gaitz batzuekiko (sifilisa, gonorea edo giza papiloma) ahultasuna. Ikerketaren arabera, Erdialdeko Amerikan, GSGen % 22k sexu-harremanak dituzte emakumeekin ere. Arau patriarkalek, batetik, eta bikote heterosexualetan kondoiaren erabileraren inguruan oraindik dauden aurreiritziek, bestetik, arriskuan jartzen dituzte emakumeak ere, GIBarekin kutsatzen baitira gizonezko bikote egonkorrekin izandako sexu-harremanen ondorioz.

Suizidioa: gizonak emakumeek baino suizidio-ahalegin gutxiago egiten dituzte, baina eraginkorragoak. Mundu-mailan, arma erabiliz beren buruaz beste egiten dutenen % 88 dira gizonezkoak. 15-25 urte bitarteko gazteen artean ere nabarmen igotzen ari da suizidio-tasa. Ameriketan, 25 urtetik beherakoan artean hirugarren heriotza-eragilea da suizidioa, homizidioen eta zirkulazio-istripuen ondoren: arrazoi horregatik hildako lautik hiru gizonezkoak dira. Depre-

19 Género, salud y desarrollo. Indicadores básicos. OPS, 2007. http://www1.paho.org/hq/dmdocuments/2009/BROCHURE__GENDERh1th07span.pdf

sioa zabalduz doa egungo munduan eta areagotu egin da gizonezkoen artean, maskulinitate hegemonikoak ezarritako betebeharrak betetzeko ezintasunak eraginda, batetik, eta gizonek laguntza eskatzeko orduan (laguntza profesionala zein lagunartekoa) beren buruari ezartzen dizkioten oztopoek eraginda, bestetik.

Homizidioa: 2012an, mundu osoan gertatutako hilketetan hildako 437.000 pertsonen % 79 gizonezkoak ziren. Gizonezkoak dira hilketen biktima gehienak, baina baita hilketen eragile gehienak ere. Joera hori berdintsua da eskualde guztietan, homizidio-mota eta erabilitako arma-mota gorabehera. Mundu-mailan, gizonen hilketa-tasa emakumeena baino ia lau aldiz handiagoa da (9.9koa eta 2.7koa, hurrenez hurren, 100.000 biztanleko). Denetan handiena, Amerikan (30 hilketa 100.000 gizoneko). Hilketa-arrazoi nagusiak delinkuentzia antolatua, alkoholaren eta bestelako drogen abusua eta pertsonen arteko arazoei indarkeriarik gabe aurre egiteko baliabiderik eza izaten dira. Kontuan harturik hilketen biktima guztien % 41 15-29 urte bitarteko adin-tartean dagoela, munduko zazpi hilketa-biktimetatik bat Amerikako kontinenteko gazte bat da. Emakumeen proportzio handi bat ustez lagun izan behar lukeenaren eskuetan hiltzen den bezala, hilketetan hildako gizon gehienak seguru asko ezagutu ere egiten ez dituzten beste gizon batzuen eskuetan hiltzen dira.

Latinoamerikako eta Karibeko gizonek emakumeek baino bizitza-urte gehiago galtzen dituzte, % 40 gehiago, batez ere garaiz harrapatuz gero sendabidea izan lezaketen gaitz kronikoen ondorioz. Depresioa, buru-osasuneko beste arazo batzuen artean, munduko gizonezko askori eragiten dion gaitza da, eta, kasu batzuetan, maskulinitate hegemonikoaren betebeharrak betetzeko ezintasunarekin lotua egon daiteke. Horri guztiari indarkeriazko ekintzek eta zirkulazio- eta lan-istripuek gizonezkoen artean eragiten duten **gain-hilkortasuna** gehitu behar zaio.

GOGOETARAKO JARRAIBIDEAK

Kubako Biztanleriari eta Garapenari buruzko Ikerketa Zentroaren eta Estatistika eta Informazio Bulego Nazionalaren (ONEI) ekimenez GIB/hiesdun pertsoneri egindako Inkesta Nazionalaren arabera herrialdean bizi ziren eta gutxienez 12 urtez birus-eramaile izandako 6.238 GIBdun elkarrizketatu zituzten, gaitza askoz ere hedatuago dago gizonen artean (% 80,6), emakumeen artean baino (% 19,4). Talderik kaltetuena gizonekin sexua duten gizonena da eta emakume seropositibo gehienak gizonezko bikotekide egonkorrekin babesik gabeko harremanak izatearen ondorioz kutsatu dira²⁰.

20 GIB/hiesdun pertsoneri egindako inkesta. Estatistika eta Informazio Bulego Nazionala, 2012. <http://www.one.cu/encuestasida.htm>



Gizonen artean, minbiziaren aldaerik hilgarrienetako bat prostata-minbizia da. Zientzia medikoaren aurrerapenak gorabehera -gaitza garaiz detektatzeko eta tratatzeko aukera ematen dute, eta, beraz, heriotza saihesteko probabilitate handia eskaintzen-, paziente askori beranduegi diagnostikatzen zaie. Zergatik? Matxismoak ondeste-ukipenaren probatik aldaratzen ditu gizon asko. Uzkialdea puntu "sakratua" izan da his-

torikoki gizonentzat; han ezin da ezer sartu, ezin da ukitu ere egin, gizonaren maskulinitatea "urratzearen" parekoa litzateke.

Emaitza? Gizon askok atzeratu egiten dute espezialistarenganako bisita, eta, hala, arriskuan jartzen dute bizitza.

Habanan, Luyano auzoko mediku-kontsultategi batean egindako esperimentu baten bidez frogatutzat eman zen hipotesi hori: PSA (Antigeno Prostatiko Espezifikoa) froga egiteko, odol-lagin bat aski zela jakinarazi zelaririk, gizon askok jo zuten kontsultara. Gaur egun ere, minbizia diagnostikatzeko ondeste-ukipena egiten uzteko prest ote leudekeen galdetzen zaie-nean, ez dira gutxi muzin egiten duten gizonak, edozein adin, arraza edota hezkuntza-mailatakoak. Askok nahiago dute hil, norbaiti uzkitik hatza sartzen utzi baino lehen.

2016an, Kuban, 3.023 gizon hil ziren prostata-minbiziaren ondorioz. Kubako gizonen artean, hori da minbizi-motarik zabalduena, biriketakoaren ondotik.

Hornikuntza-lanak eta aitatasunak

27 urterekin, berdintasunaren aldeko gizon-talde batean sartu da, aitarengandik familiaz ikasitako guztiarekin hausten saiatzen ari da, eta emazte bila dabil, bizitza eta etxe bateko erantzukizunak harekin partekatzeko. Baina emakumeentzat ez bada erraza etxea eta familia zaintzeko lanak eta erantzukizunak berdintasunean partekatzeko prest dauden gizonak aurkitzea, matxismotik aldentzea erabaki duten gizonentzat ere ez da batere erraza indarrean diren arauak urratzeko prest egongo diren emakumeak topatzea. Genero-arau tradizionalak, gure gaunkotasunean patriarkatua erreproduzitzea bermatzen duten horiek, belanaldiz belanaldi transmititzen dira oraindik ere, emakumezkoei eta gizonezkoei eraginez.

Ibilbide horretan, gizonen bizitza osoa (ezkongai-alditik aitatasunera bitartean) baldintzatzen duen estereotipo sustraituenetako bat, gizon hornitzailearena da. Gizonari dagokio diskotekako sarrera eta kafetegian hartutakoa ordaintzea, nahiz

eta bikoteko kide biak izan unibertsitate-ikasle eta soldata-gabeak, eta gizonak hartu behar du bere gain familia mantentzeko betebehar morala, nahiz eta bere bikoteak ere lan egin, soldata on bat irabazi eta familia sostengatzeko ezinbestekoa den ekarpen ekonomikoa egin. Emakumezko bikotekide arrakastatsu batek, bere lan-ibilbidean gora egiteko aukera duenak eta etxera ekarpen ekonomikoa garrantzitsua egiten duenak, krisian sarraraz dezake edozein gizon, eta depresiora eraman, are indarkeria erabiltzera bultzatu ere, emaztearen autonomia geldiarazteko eta maskulinitate hegemonikotik (agindua bailitzan) oinordetua duen kontrolari eusteko ahalegin batean.

Joera horiek, jakina, ez dira estatikoak. Eredu tradizionalak gizonen hornitzaile-rola eta emakumeen zaintzaile-rola sendotzen eta biztanleriaren parte handi baten imajinarioan halaxe iraunarazten dituen bezala, azken hamarkadetan zenbait aldaketa ari dira azaleratzen, emakumea lan-munduan sartzearekin, goi-mailako hezkuntzaren feminizazioarekin eta ugalkortasun-indizeen gainbeherarekin lotuak denak. Familiak berak ere dibertsifikatu egin dira, eta ohiko eskema heterosexualari (ama, aita eta seme-alabak), familia homoparentalak deituak gehitzen zaizkie orain (bi aitak edo bi amak eta seme-alabek osatutakoak), baita beste elkarketa-mota batzuk ere (odol-, maitasun- edo sexu-harremana gorabehera), bizitza elkarrekin partekatzeko helburuarekin.

Dena den, emakumeak espazio publikoetan izaten ari diren partaidetzak ez du maila bereko erantzuna jaso gizonak espazio pribatuan izaten ari diren partaidetzaren aldetik. Hornitzaile-papera hertsagarria da gizon askorentzat, baina, era berean, pribilegio-posizioan jartzen ditu, emakumeen mendekotasuna indartzeaz gainera. Gutxi dira oraindik eskema hori gainditu duten gizonak. Kasurik onenean, emazteari etxeko lanetan "laguntzeko" beharra sentitzen dute, eta zaborra botatzera ateratzen dira, etxerako bidean erosketatxoren bat egiten dute, edota gizonetzkoen zeregintzat jotzen diren lantxoak egiten dituzte, hala nola, urtean behin, aire girotuaren mantentze-lanaz arduratu. Etxeko lanen eguneroko ardurek, gehienetan, emakumeen gain egoten jarraitzen dute, eta ia berdin-berdin transmititzen dira seme-alabengana, etxean erantzukizunak hartzen hasten direnean: neskatok egunero laguntzen diote amari sukalde-lanetan, eta aitak igande goizean lanpara nola konpontzen duen begiratzen dute mutikoek.

Mundu-mailan denbora-erabilerari buruz egindako ikerketa guztiek agerian uzten dutenez, emakumeek gizonak baino askoz ordu gehiago ematen dituzte etxeko lanetan eta familia zaintzen, ez lansariik ez aitorpen sozialik jaso gabe trukean, etxetik kanpo lan egiten duten edo ez askorik begiratu gabe. Lanaldi bikoitza deitu zaiona hirukoitza bihurtzen da egunaren amaieran gizon batzuek sexu-betebeharrak betetzera hertsatzen dituztenean emazteak.

Testuinguru horietan txertatzen da, familia-mota eta bikote-mota adina ñabar-durarekin, aitatasunaren praktika.

Julio César González Pagésék bere *Macho, varón, masculino* ("Ar, gizon, maskulino") liburuan dioenez, "gure gizarteetan nagusi den maskulinitate-eredua zehazten denean, aitatasuna era honetako ezaugarriekin lotzen da zuzenean: etxeko sostengu ekonomikoa ziurtatzea, larderiaz jokatzea, nortasun sendo, irmo eta arrazionala agertzea, ez emoziorik ez afekturik –agerikorik behintzat-erakustea. Bistan da definizio horrekin erabateko kontrastean dagoela amatasunaren paradigma, honako ezaugarriak dituena: zuzeneko zaintza, onginahia, maitasuna, sostengu emozionala, kontaktu fisikoa"²¹.

Honela jarraitzen du gero: "aitaren irudiari buruzko okerreko iritziak sortu dira testuinguru sozial ezberdinetan; samurtasunik, afekturik eta besteak ulertze-ko ahalmenik gabekotzat hartu izan da aita, historikoki amari bakarrik esleitu zaizkion sentimenduak adierazteko gaitasunik ez balu bezala. Berriri, beste kointzidentzia bat aurkitzen dugu aita-semeen arteko erlazioa eta are aitaren eta amaren arteko loturak ere ezin pentsatuko moduan nahasten dituen ideal maskulinoaren estereotipoarekin".

"Seme-alabak dira kaltetuen ateratzen direnak: arreta espiritualaren balantza amaren aldera nola makurtzen den ikusten dute, eta pentsatzeko eta jokatzeko modu jakin batzuk barneratzen dituzte pixkanaka, gizonak eta emakumeek familian dituzten rola erreproduzitzen eta iraunarazten dituztenak. Ama-emakumezkoak hartuko du orduan bere gain etxeko lanen ardura, haurrak zaintzearena eta eskolako zereginak behar bezala betetzearena. Gizon-aitak ekonomikoki mantentzen du etxea, berak hartzen ditu pisuzko gaiei buruzko erabakiak, eta, hezitzaile gisa, gai jakin batzuek baino ez du hitz egiten seme-alabekin, haien sexuaren arabera."

Aldaketarekiko erresistentzia gorabehera, Latinoamerikako eta Karibeko ikerketa batzuek azken hamarkada hauetako eraldaketa sozial, ekonomikoa eta kulturelei egotzen diete maskulinitate- eta aitatasun-erreferente nagusiak eta eredu horietan oinarritutako praktikak zalantzan jartzen hasi izana, baita gizon-emakumeen eta aita-semeen arteko harremanak "gizatiaragoak", kutunagoak, anaioragoak, berdinzaleagoak, tolerantagoak eta demokratikagoak izateko egin beharreko aldaketak egitearen aldeko ahotsak entzuten hasi izana ere²².

21 González Pagés, Julio César. *Macho, varón, masculino*. Editorial de la Mujer, Cuba, 2010.

22 Sexualidad, fecundidad y paternidad en varones adolescentes en América latina y el Caribe, UNFPA 2015.

Aldaketa horien artean, aitatasuna kontu biologiko hutsa baino zerbait gehiago bezala ikusten hastea da nagusietako bat. "Aitatasun soziala" delakoak erakusten digu -adopzio legal edo adostuari eta aitatasuna zein amatasuna praktikatzeko bestelako modu batzuei erreferentzia eginez- dimentsio soziokultural bat dugula aurrean, xertatutako testuinguruaren arabera eraikitzen eta aldatzen dena.

Erdialdeko Amerikako lau herrialdetan egindako ikerketa baten arabera, aitatasuna, "beste edozein giza portaera bezala, nor bere gain hartua izan daiteke edo ez, onartua edo arbuiatua, eta hartatik sozialki eta une historiko jakin batean espero daitekeenaren araberrakoa izango da onesgarritasun-maila. Egun, gizarteko sektore gero eta zabalagoek ez dute ontzat hartzen aitatasuna, ez badator lotura afektibo sendo eta iraunkorrez lagundua, funtzio material eta hornitzaileaz batera, hau da, ez badakar berekin seme-alabekiko hurbiltasun handiagoa, zaintza-lanetarako prestasunaz gainera".

Masculinidad y factores socioculturales asociados al comportamiento de los hombres: estudio en cuatro países de Centroamérica ("Maskulinitatea eta gizonen portaerari loturiko faktore soziokulturalak: ikerketa Erdialdeko Amerikako lau herrialdetan") izeneko ikerketak, Erdialdeko Amerikako Istmoko Ugal-keta Hezkuntza eta Aitatasun Arduratsua proiektuaren barruan gauzatuak, agerian utzi zuen lotura afektiboak ez direla era instintiboan edo automatikoan ziurtatzen gizon guztientzat, gizon eta emakume askok pentsatzen jarraitzen dutela aita ona izateko aski dela hornitzaile-rola betetzea, eta herrialde batean, une jakin batean, aitatasuna praktikatzeko modu desberdinak egon daitezkeela aldi berean.

Hala, maskulinitateez hitz egiten dugun bezala, aitatasunez hitz egiten hasi beharko genuke:

Aitatasun tradizionala

- Gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunei buruzko erreferentzia biologikoetan eta patriarkatuak ezarritako eruedetan oinarritzen da.
- Familia-piramide baten erpinean irudikatzen du aita, naturalizat eta eztaba daezintzat onartzen zaion estatus baten jabe. Aitaren zeregin nagusia hornikuntza da, eta bere gain hartzea familia -autoritatearen eta- diziplinaren ardura.
- Aita batek ez du oso maitekorra eta ulerkorra izan behar, autoritatea gal dezakeelako, seme-alabek errespetua gal diezaioketelako.
- Aita on batek zigortu egiten ditu seme-alabak, eta indarra erabil dezake behar izanez gero, haiek "zentzarazteko".


Erdibideko aitatasuna

- Aitatasunaren inguruko ikusmolde moderno bat eratzen dutenek zalantzan jartzen dituzte aitatasun tradizionalari buruzko ideiak.
- Mentalitate batetik besterako aldaketa-prozesu hori nabarmenagoa da izan beharri buruzko iritziak emateko orduan zalantzak dituztenen artean.
- Batzuetan kontraesankorrak izan daitezkeen ideiak adierazten dituzten gizonak; beren baitan aldi berean ideia tradizionalak eta modernoak dituztenak.

Aitatasun modernoa

- Aitatasuna integrala da, maila berean jartzen ditu familia hornitzeko funtzioa eta seme-alabei maitasuna eta arreta eskaintzekoa.
- Aitaren autoritateak ez du indarririk galtzen seme-alabekin maitekor eta ulerkor agertzeagatik.
- Ondorengoen gaineko erantzukizuna, hala nola seme-alaben hazkuntzaren eta arretaren gainekoa, emakumearena bezainbeste da gizonarena.
- Aitaren erantzukizuna funtsezko balio bat da, ez da amaitzen bikote-harremanarekin batera, ez da legeak ezarritako betebeharra, barneko uste sendo baten emaitza baizik.
- Aita on batek ez du zertan ados egon seme-alabekin erlazionatzeko metodo gisa indarkeria eta hertsapena erabiltzearekin.

Bestalde, El Salvadorren, Hondurasen, Nikaraguan eta Costa Rican egindako beste ikerketa baten arabera, aitatasun tradizionalak nagusi izaten jarraitzen du Erdialdeko Amerikan, baina ozta-ozta iristen da ikertutako gizonen erdira (% 50,67). Aztertu den laginaren gainerakoa aitatasun modernoaren edo eredu horretarako bidean dagoen erdibideko aitatasunaren artean banatuta zegoen. Emaitzarik pozgarrienak adinkako azterketan agertzen dira: 50 urtetik gorako gizonen artean aitatasun-eredu nagusia aitatasun tradizionala den bitartean, 20-49 urte bitartekoen artean aitatasun modernoa da nagusi²³.



Aitatasun tradizionala
Erdibideko aitatasuna
Aitatasun modernoa

23 Masculinidad y factores socioculturales asociados al comportamiento de los hombres: estudio en cuatro países de Centroamérica. UNFPA, CEPAL, 2005. unicef.cl/web/wp-content/uploads/2015/01/Guia-Paternidad-Activa.pdf

Aitatasunak definitzeko era horiek zerikusia dute, baita ere, aitatasunaren praktika **arduratsua** edo **arduragabea** delakoarekin. Iturri batzuen arabera, honela defini daiteke hori:

Aita arduratsua

- Kultura patriarkalak ezarritako maskulinitate- eta aitatasun-ereduetatik urruntzen da.
- Familia artatzeko eta zaintzeko erantzukizuna partekatzen du bikotekidearekin, baldintza-berdintasunean.
- Ekarpen ekonomikoa egiten du, elikadura, jantziak, osasuna, hezkuntza eta aisia ziurtatzeko.
- Maitasuna eta babesa ematen die seme-alabei, eta haiekin komunikatzen da.



Aita arduragabea

- Lan egiten du eta dirua ekartzen du etxera, bera da familiaren hornitzailea, baina ez da inplikatzeko seme-alaben zainketan eta garapenean, eta ez du parte hartzen etxeko lanetan.
- Ez da maitekor agertzen seme-alabekin, ez da haiekin komunikatzen, ez du haiek zaintzeko lanetan parte hartzeko beharrik ikusten.
- Batzuetan, indarkeria erabiltzen du seme-alaben aurka. Muturreko kasuetan, sexu-abusuak egitera irits daiteke.



Haurren Laguntzarako Nazio Batuen Funtsarentzat (UNICEF), gurasoek familiako zereginetan berdintasunean parte hartzea justizia ekonomiko eta sozialeko kontu bat da, funtsezkoa gizon-emakumeak eta seme-alabak euren eskubideez bete-betean baliatu ahal izateko. NBERen agentzia espezializatu horrentzat, aitek, etxeko lanetan eta haurren hazkuntzan inplikatzeko direnean, garrantzi handiko urratsa egiten dute seme-alabek txikitatik barnera dezaten gizonak eta emakumeak berdinak direla, eta genero-berdintasuna eta nesken autonomia-zentzua eta ahalduntasuna ere onar dezaten. Aita arduratsu eta konprometituek indarkeriatik, sexu-abusuetatik eta esplotaziotik babes ditzakete haurrak, eta hezkuntza eta osasun-arreta jasoko dutela bermatu.


Dena dela, UNICEFek Askotariko Adierazleen Multzokako Galdetegian (MICS) oinarrituta 2017an egindako ikerketa baten arabera, gaur egun, 74 herrialdeko 3-4 urte bitarteko haurren erdiak baino gehiagok (% 55), hau da, 40 milioi haur inguruk, ez dute ez jolasten ez hezkuntza-jardueretan parte hartzen aita-rekin. Galdetegiak aztertzen zuen zer neurritan hartzen zuten parte aitek ikas-kuntza goiztiarreko jardura hauetan: liburuak irakurri, istorioak kontatu edo abestiak abestu, elkarrekin paseatzera atera, elkarrekin jolastu, inguruko gau-

zen izenak erakutsi, lehen zenbakiak erakutsi edo elkarrekin marraztu. Kubako kasuan, ikerketak agerian utzi zuen aiten % 18k bakarrik hartzen zutela parte 3-5 urte bitarteko seme-alaben hezkuntza-jardueretan.

Zer egin ziklo hori hausteko? Dударik gabe, beharrezko aldaketa kulturala sustatzeaz gainera, aitatasun arduratsu baten aldeko politikak bultzatu behar dira, familia-plangintza egiten den une beretik. Gizonek beren ondoreari buruzko erabakietan parte hartzeko duten eskubidea aldarrikatzea, bikotekideari haurdunaldian laguntzea, erditzeko unean parte hartzea, aitatasun-baimenak eskatzea eta kultura patriarkalaren eraispena bultzatzea belaunaldi berrien hezkuntzan txertatu beharreko gaiak dira, biologiaren eta gorputz-atalen irakaskuntzari bezainbesteko garrantzia ematea eskatzen dutenak. Eraiki nahi dugun ideal hau ezin da irakasleen espontaneotasunaren esku utzi, haiek ere badutelako zer hobetu genero-gaietan.

Aiten eskubide eta betebeharreri buruzko informaziorako sarbidea eta ikaskuntza eskubide horien ezarpena bermatuko duten neurri sektorialekin osatu behar da, baita gizon-emakumeen sentsibilizazioa areagotzen lagunduko duten herri-onurako kanpainekin ere. Latinoamerikan eta Kuban²⁴ gutxi samar dira oraindik haurren lehen urteko bizitzako zaintza-lanak amekin txandakatze-ko aitatasun-baimenak eskatzen dituzten gizonezkoak, baina ikerketa batzuek adierazten dute hasiak direla aitatasun-modu arduratsuago eta berdinzaleagoen aldeko seinaleak ikusten aita-talde gazte batzuen artean.

Kuban Aitatasun Legeari heldu dioten aiten kopurua²⁵



Kuban, 2003. urtean, 234. zenbakidun Lege Dekretua onartu zen, Aitatasun Legea izenez ezaguna, zeinak haurra seigarren hilabetetik lehen urtera bitartean nork zainduko duen erabakitze eta, horretarako, legez ezarritako gurasotasun-baimena hartzeko aukera ematen baitio bikoteari.

24 Eskura ditugun datuen arabera, 2006tik 2014ra bitartean, 125 gizonek bakarrik heldu zioten legeak bermatutako gurasotasun-baimena emaztearekin txandakatze-ko eskubideari.

25 "Extraño" cuidador en casa, Juventud Rebelde (Edizio digitala), 2014ko ekainak 14 <http://www.juventudrebelde.cu/cuba/2014-06-14/extrano-cuidador-en-casa/>

Nola izan aita aktiboa eta arduratsua?²⁶

- Inplika zaitetz zeure seme-alaben garapenaren une guztietan.
- Erantzunkide izan haurren hazkuntzan eta hezkuntzan, partekatu bikotearekin etxeko lanak eta haurrak zaintzeko lanak, hala nola: jaten ematea, janzteia, pa-seatzera ateratzea, loaraztea, jolastea, bainatzea, ikasketetan eta etxeko lanetan laguntzea.
- Izan zaitetz maitekorra, baldintzarik gabeko maitasuna eta tratu ona eman.
- Sustatu garapena ipuinak irakurriz, istorioak kontatuz, abestiak abestuz, musika entzunez eta jolastuz.
- Onartu eta errespetatu seme-alaben bertuteak eta bizitzan hartzen dituzten erabakiak.
- Ospatu jarduerak, lorpenak eta/edo ikasketak.
- Arreta jarri eta entzun zer esana edo adierazia dutenean, dela hitzekin zein hitzik gabe.
- Babesa eman beldur edo triste direnean, edo zapuztuta daudenean.
- Errespetuz hezi, mugak jarri, baina tratu onez beti.
- Etxetik kanpo lan egiten baduzu, edo ez bazara seme-alabekin bizi, saia zaitetz egunero hitz egiten haiekin, telefonoz, eta bisita itzazu ahal duzun guztietan.

Sexu "indartsua"

Sexualitatea gizakien adierazpen integralaren alderdi bat da, eta prozesu biologiko, psikologiko eta sozialei lotua dago. Pentsamendu, fantasia, desira, sinismen, jarrera, balio, jarduera, praktika, rol eta harremanen bidez esperimendatzen edo adierazten da. Faktore biologiko, psikologiko, sozioekonomiko, historiko, kultural, etiko, erlijioso edo espiritualen emaitza da. Generoa, sexu-eta genero-identitatea, sexu-orientazioa, erotismoa, lotura afektiboa, maitasuna eta ugalketa hartzen ditu bere baitan. Hainbat adierazpen indibidual ditu, eta bere dibertsitatea adierazpide.

Gizonen kasuan, sexua oinarrizko elementua da haien sozializazioan, eta identitate maskulinoaren atributu nagusietako bat hegemonia heterosexuala bermatzeko. Sexualitate maskulinoa femeninoaren aurkakotzat hartu izan ohi da. Mito horrek, sexualitate maskulinoa berez dela eutsiezina, oldarkorra eta menderaezina dioenak, emakumeen esku utzi du jaiotzaren kontrolaren gaineko erantzukizuna, eta desabantaila batzuk sortu ditu botere-harremanetan, jarrera zapaltzaileak ekarri baititu emakumeen kontra, ezarritako parametroak betetzen ez dituzten beste gizonen kontra, edota haien beraien kontra ere.

26 Guía de paternidad activa para padres. UNICEF, 2014. <http://unicef.cl/web/wp-content/uploads/2015/01/Guia-Paternidad-Activa.pdf>

Maskulinitate-eredu hegemonikoak "araudi" batzuk ezartzen ditu sexualitate maskulinoaren ideal jakin batentzat, zeina gizontasuna etengabe erakusteko beharrean oinarritzen baita -gizontasuna kementasunaren eta heterosexualitatearen sinonimo gisa-, femeninotasunari egozten zaizkion ahultasunetatik urrun. Horrek balio estetiko jakin batzuk eskatzen ditu, gorputzaren eta gorputzasunaren irudikapen hegemonikoak, hipersexualitatea (hau da, sexu-harreman asko eta askotarikoak edukitzeko beharra), sexu goiztiarra, sexurako erabateko prestasuna, lehiakortasuna, autoritatea, agresibitatea, norberaren seduktoire-trebetasunak erakusteko beharra eta ondo frogatutako sexu-iaiotasuna.

Zakilaren funtzionamendu eta neurriak, erekzioaren iraupenak, koittoa hainbatetan errepikatuzko ahalmenak eta izandako sexu-bikoteen kopuruak maskulinitate hegemonikoa areago gizendu duten kultu faliko baten parte izan dira.

Zer dira estereotipo sexualak?

Sexu-portaerari dagokionez, gizon-emakumeek dituzten eta izan beharko lituzketen ezaugarri pertsonalen inguruan sortutako sinismenak dira estereotipo sexualak; gizon-emakumeen sexualitatea kultura patriarkaletik legimitatuak diren ideia aurrepentsatuen bidez zehazteko, arautzeko eta mugatzeko moduak. Sexualitatearen inguruko ezagutzez, jarrerez eta balioez hornitzen dute gizabanakoa, gizarte eta testuinguru historiko jakin baten interesei lotuta. Gainera, ezarritako arau sozialarekin bat datozen bizimoduak, subjektibotasunak eta portaera indibidualak ekartzen dituzte berekin.

Gizonezkoak

Kementsuak, aktiboak, heterosexuak, homofobikoak, lehiakorak, iniziatiba hartu zaleak, autoritarioak, agresiboak, axolagabeak, desleialak, dagokien gizon-papera betetzeko prest beti.



Emakumezkoak

Sentiberak, pasiboak, heterosexuak, saiatuak, zuhurrak, neurritsuak, iniziatibarik gabeak, arduratsuak, leialak, esanekoak, bikote maskulinoaren desirak asetzeko prest beti.

Estereotipo horien arabera bizi diren gizonek sexuaren inguruan garatzen dituzten bizimoduak ez datoz nahitaez bat beren benetako desira sexualekin edo gizatiarrekin, sexu-harremanetan gorputz osoa erabiltzean (laztan atseginen hartzaile eta beste pertsonarekiko hurbiltasun afektiboaren bideratzaile gisa erabiltzean) agertzen diren posibilitate sensorial ikaragarriak bizitzeko aukera galtzen dute, sexualitate mugatu bat bizi dute -“benetako gizonak” zakila baino ez du erabiltzen sexu-harremanetan, bere rol aktiboaren berme gisa-, eta desparekotasun- eta biolentzia-egoeran murgilduta daude, maskulinitatea eraikitzeke moduagatik etengabe pairatzen duten tentsioa, nahasketa eta segurtasun-gabezia direla eta. Homofobia da, beraz, eredu hegemoniko horren beste ezaugarri nagusietako bat.

GOGOETARAKO JARRAIBIDEAK

Aloyma Ravelo kazetari kubatarraren *Sexo Tropical: El tamaño del pene en la imaginaria de estudiantes universitarios de la Habana* (“Sexu tropikala: zakilaren tamaina Habanako ikasle unibertsitarioen iruditerian”) ikerketa-lanean, honakoa adierazten da: “Kubako gizona txikitatik sozializatzen dute bere gizontasuna eta sexu-kemena erakusteko, eta ezaugarri horiek bere zakilaren neurriekin lotzeko”²⁷.

Zakil handia izateak sexualitatearen bideak irekitzen dizkio gizonari. Izan ere, zenbat eta lodiagoa eta luzeagoa izan zakila, orduan eta gehiago sendotuko du bere buruaz eman nahi duen gizon-itxura. Habanako hiru maskulinitate-tailerretan egindako inkestetan, iritzi horietako askoren zuzentasuna berretsi ahal izan dugu.

Inkesta horietan, 173 gizonek eta 57 emakumek hartu zuten parte, erdi-mailako ikasketak eta unibertsitate-ikasketak egindakoak, lanbide askotakoak eta arraza-ezaugarri desberdinetakoak: 119 pertsona zuri, 88 beltz, 23 mulato eta asiar. Adinari dagokionez, 22 eta 45 urte bitartekoak ziren denak. Zakilaren neurrien mitoaz galdetuta, inkestatuek (% 71k, hain zuzen) arraza beltzeko kideak kokatu zituzten lehen tokian, zakilik handienak omen dituztelako; arrazaren berezko indar genetikoari eta afrikar jatorriari egotzen zioten horren arrazoia.

Inkesten arabera betiere, galdetutako emakumeen % 65ek nahiago zituzten zakil handiko gizonak, baina hori ez dator bat beste elkarriketa askotan entzundakoarekin. Izan ere, inkesta horien aurretik egindako banakako elkarriketetan emakumeek adierazia zuten ez ziela askorik kezkatzen tamainak, balio espiritualak zirela benetan garrantzitsuak. Kontraesanak agerian uzten du egungo imaginario kulturalen konplexutasuna, eta baita imaginario horiek ikuspegi holistikoa batetik aztertzeke beharra ere.

27 Aloyma Ravelo: “Sexo Tropical: El Tamaño del pene en la imaginaria de estudiantes universitarios de la Habana”, in Aloyma Ravelo: *Intimidades, adolescencia y sexualidad*, La Habana, Editorial Científico-Técnica, 2005, 238. or.

Gizonezkoek axolagabekeriaz bizi izan dute beren sexualitatea, eta horrek ahultasun-egoeran jarri izan ditu GIBa eta sexu-transmisioko beste gaixotasun batzuk hartzeko aukeraren aurrean, preserbatiboa erabiltzeari uko egiteagatik, batetik, eta norbere burua zaintzeko kultura faltagatik, bestetik. Gizonek gai horren inguruan dituzten aurreiritziek, beldurrek eta ezinegonek ez diete sexu-bizitza oso eta atsegingarri bat autonomiaz bizitzen uzten, eta, gainera, beste pertsonen sexu-eskubideak urratzen dituzten praktiketara bultzatzen dituzte.

Urraketa horietako bat sexu-aniztasunaren ukapena da, sexualitatea eta esperientzia erotikoa bizitza, pertsonak eta kulturak berak bezain modu askotariko eta aberatsean onartzeko, adierazteko eta bizitzeko benetako aukera ukatzea.

Homofobia, bere aldetik, sexu bereko pertsonekin praktika sexualak egiten dituzten edo eredu hegemoniko heterosexuala betetzen ez duten pertsonen aurkako diskriminazio-modu bat da. Izaera homofobikoko adierazpen diskriminatzaileek eskubideen ukapena dakarte berekin, eta, aldi berean, kontraesanak sortzen dituzte, ekintza bortitzei bide emanez, eta pertsona askoren integritate fisiko eta mentala arriskuan jarriz. Homofobiak lotura estuak ditu genero-indarkeriarekin. Izan ere, kultura patriarkalak gizon eta emakume izateko bete beharreko arauak eta estereotipoak dauzka oinarrian²⁸.

Gizon gayenganako ulertu ezina indarkeria-eragilea da oraindik ere, baina trans pertsonak are zailagoa dute egoera. Batetik, maskulinitatearen arau hegemonikoak urratzen dituzte, sexu bereko pertsona batekiko gustu sexuala aldarrikatuz; bestetik, ezinezkoa zaie beren sexu biologikoarekin bizitzea, eta berea sentitzen duten genero-identitatearen atribuzioekin bizitzearen aldeko hautua egiten dute. Kultura patriarkalean ulergaitza bada gizon bat beste gizon batek erakarrita sentitzea, are zailagoa da onartzea gizon batek, emakume sentitzen delako, gizon izan nahi ez izatea. Emakume transexualak dira, agian, indarkeria matxistaren talde kalteberenetako bat.

Perlak zakilean

Ikusi berri dugunez, gizonen maskulinitatearen eraikuntzan, sexualitatearen inguruan dagoen mitoetako batek dio gizonek maila handia erakutsi behar dutela beti sexu-ekintzetan. Gizonak ohaidea “asebeteta” uzteko eta zakilari denbora guztian tente eta kementsu eusteko ahalmena ziurtatu behar du. Uste horrek bultzatuta, gizon askok -gazte jendeak gehienbat- beren eta bikoiteen osasunerako arriskutsuak izan daitezkeen praktiketara jotzen dute. Horren adibide dira, esaterako, zakileko “perlak”.

Gazteen maskulinitate hegemonikoaren eraikuntzaren zati bat da fenomeno hori. Kubako gazteen artean boladan dago zakilean “perlak” edo antzekoak jartzea, emakumeak “gozaraztea” helburu. Maskulinitate hegemonikoren adierazpide arrikutsu hori -sexu-organoen infekzioa eta haiek erausi beharra eragin du askotan- soldaduskan eta ikastetxe bekadunetan ageri da beste toki batzuetan baino maiztasun handiagoz.

Gure andropausia

Gizonaren bizi-zikloaren azken hamarkadetako sexu- eta ugalketa-ahalmenaren narriadurari “andropausia” edo “klimaterio maskulinoa” deitzen zaio. Prozesu horrek seinale eta sintoma jakin batzuk agertzen ditu, organismoaren testosterona-mailaren beherakadari loturikoak.

Gizon batzuen sexualitatean gertatzen diren aldaketek maskulinitate-sentimenduaren, segurtasunaren eta autoestimuaeren galera ekartzen dute ondorioz.

Obesitaterako eta gaitz kardiobaskularretarako joera ere antzematen da.

Dena dela, andropausia eta horrek gizonen osasunean duen eragina ez dago behar adina aztertua, landua eta gizarteratua. Osasunaren beste alor batzuetan gertatzen den bezala, emakumeek berehala jotzen dute medikuarengana edo psikologoarengana, laguntza-eske, klimaterioaren sintomak agertutakoan; gizonak, aldiz, ar indartsuaren eskeman harrapatuta geratzen dira: laguntza beharrean egonda ere, txintik esan gabe pairatzen dituzte neke guztiak.

Andropausiaren sintomak

Lehen sintomak agertzen direneko adina, sintomak berak eta intentsitatea ere ez dira beti berdinak, aldatu egiten baitira gizonetik gizonera.



Ilea galtzea

Sabelaldean pisua hartzea

Sexu-desira galtzea eta/ edo erekzio-arazoak

Gihar-masa galtzea

Artikulazioetako mina

Testosterona gutxitzea.
40 urterekin %1,6;
70 urterekin %50



Bero-kolpeak



Kontzentrazio-falta



Lokartzeko arazoak



Suminkortasuna



Depresioa



Oroimena galtzea



Ilearen hauskortasuna

Andropausiaren diagnostika*

Galderak

1. Sexu-desira galdu duzu?

2. Energia-falta sumatzen duzu?

3. Indarra eta erresistentzia fisikoa galdu dituzu?

4. Altura galdu duzu?

5. Bizipoza galdu duzula sumatu duzu?

6. Goibel eta suminkor sentitzen zara?

7. Lehen baino erekzio ahulagoak dituzu?

8. Kirolerako trebetasuna galdu duzula sumatu duzu?

9. Loak hartzen zaitu afaldu (bazkaldu) ondoren?

10. Lanerako gaitasuna galdu duzula iruditzen zaizu?

BAI

EZ

*Saint Louis Unibertsitatean (Missouri, AEB) erabilitako galdetegia

IV Parte-hartzea eta aktibismoa gizonen aldetik

Gizonek beren buruari buruzko ikuspegi autonomo eta kritikoa garatzea izan da Maskulinitateen Sare Iberoamerikar eta Afrikarraren erronketako bat. Ordena hierarkiko maskulinoaren naturalizazioa eztabaidan jarriko bada, matxismoak gure artean hartzen dituen aldaerak zalantzan jartzea lortuko bada, eta aldaketarako aukerak bilatuko badira, gizonen artean nagusi diren sozializazio-eremu horietan aztertu beharko da nahitaez fenomeno hau.

Julio César González Pagés irakaslearen koordinaziopean RIAMek berak eginiko ikerketa batzuen arabera, musika, sexua eta kirola dira hizpide nagusiak gizon kubatarren artean. Gizonak gai horiei buruz hitz egiteko eta indarkeriari hainbat adierazpide emateko elkartzen diren toki horiek heziketa- eta gogoeta-dinamikak bideratzeko baliatzea oso estrategia egokia izan daiteke eredu hegemonikoak (menderakuntza eta berdintasunik eza) eraisteko bidean. Ikus-entzunezko metodoak edo informazioa eta komunikazio-teknologia berriak ere oso baliagarriak izan daitezke genero-estereotipoen eta indarkeria matxista desberdinen gaineko eztabaida errazteko eta kultura patriarkala eta haren adierazpideak desmuntatzen laguntzeko.

Esperientzia horren gainean jardun du, hain zuzen, RIAMek azken hamar urteotan aurrera eraman duen lanak, gizonen eta beren inguruneen arteko harreman osasuntsuak ezartzen laguntzeko helburua duen filosofia praktikoa eta barne-hartzaile bat bultzatuz. Emaitzak musikaren eta kirolaren alorretan ageri dira gehienbat: irakaskuntzaren bidez akademia eta aktibismo soziala uztartzen dituzten jardunbide egokiak, topaketa komunitarioak, eztabaida-taldeak, partaidetza-foroak, prebentzioa eta sareetako lana. Emaitza nabarmenak lortu dira gizonen eta emakumeen parte-hartzeari eta konpromisoari dagokionez.

Xede horretarako, RIAMek baditu tresnak eta badu lanerako metodologia komun bat, sistematikoki komunitateen, erakundeen, taldeen, gizabanakoen eta erabakiguneen eskura jartzen duena.

Aldaketarako dinamikak

Parte-hartze kolektiboko dinamikak gai bati buruzko ezagutza taldean **eraikitzea** proposatzen dute, eta, ondorioz, iturri zientifiko batzuek "koeraikuntza" deitzen diote prozesu horri. Eraikuntza horren helburua da pertsona bakoitzak ekarpenen bat egitea elkarrekiko analisiari, eta esperientzietan, eztabaidetan eta arrazoiketetan oinarrituta egitea hori, ideiek eta arrazoibideek tokia izan dezaten ariketen azken balorazioetan. Prozesuak ez du hierarkiarik agertu behar partaidetzan eta irizpideetan, ez inplikaturako pertsonen dagokienez, ez prozesua errazteko bideei dagokienez.

Metodologia parte-hartzaileek irakaskuntza-prozesu bertikala (pertsona baten ezagutzak ematean eta beste batzuek jasotzean datzana) haustea dakarte. Dinamika horietan parte hartzen dutenak prozesuaren protagonista dira, beren ideia propioen bidez eta dinamikak sorturiko interpretazio berrien bidez prestatzen dute beren burua. Proposamen bakoitzak, zentzu horretan, konfiantzazko guneak sortzeari ematen dio garrantzia, gai edo errealtate jakin batean sakontzeari baino gehiago.

Laguntzailearen papera taldearen eraikitze-prozesua **erraztea** da: taldeak berak hartzen ditu bere erabakiak, berak garatzen du eta balioesten du ezagutza.

Maskulinitateen dekonstrukzioan, oso garrantzitsua da gizonez soilik osatutako taldeekin lan egitea, baina baita,aldi berean, gai hori askotariko publikoetarako pentsatutako sentsibilizazio-guneetan eta aktibismo-eremuetan txertatzea ere. Talde-lanean ari garela, emakumeren batek parte har bazake ere, errazte-lana gizon baten esku uztea gomendatzen da, berdinaren arteko komunikazioaren abantaila bermatze aldera.

Jarraian, talde-lanerako dinamika batzuk aurkeztuko dizkizuegu. Proposamen hauetarako, oso gomendagarria litzateke prozesuaren oroimena jasotzen lagun diezagukeen bitartekoren bat erabiltzea. Argazkiak edo bideoak ere oso baliagarriak izan dakizkiguke, taldearekin lanean jarraitzea errazteko, aurretiko egoera eta gerokoa ikusaraziz. Gazteekin ari bagara lanean, kontuan

hartu beharko dugu ikus-entzunezko komunikazioak eta komunikazioaren eta informazioaren teknologia berriek belaunaldi berrietan duten garrantzia.

Dinamika horietan, landu beharreko gaiari buruzko informazio laburrak eskaintzen dira. Informazio horiek, liburu honetako lehen kapituluekin batera, lana erraztu beharko liokete bideratzaileari. Dena den, garrantzitsua da prozesua bideratzeaz arduratuko den pertsonak gaiari buruz ahalik eta informazio gehien edukitzea eta egoera zailean dauden gizonak orientatzeko beharrezko ezagutzak izatea. Orientazioa, adibidez, liburu jakin bat irakurtzeko gomendatzea izan daiteke, edo kontsultategi juridiko batera edo mediku-kontsultategi batera laguntza-eske joateko esatea, edo aktibismo-guneetan parte hartzea gonbidatzea.

Hasierako dinamika: Armiarma-sarea



Helburuak:

- Tailerrean parte hartzen duten gizonetakoak eta bideratzailea bera taldean integratzea.
- Tailerrari formalki hasiera ematea.
- Tailerraren helburuak aurkeztea.

Denbora: 20 minutu.

Materialak: artile-mataza, hari-mataza edo antzekoa.

Garapena:

1. Parte-hartzaileen aurkezpena. Bideratzaileak berak proposatuko du zer informazio partekatu, taldearen eta tailerraren ezaugarrien arabera. Adibidez: izena, lanbidea edo jardunbidea, norberak bere buruari aitortzen dion dohainen bat, tailer honetan jarritako itzaropenak, maskulinitate-tailer batean parte hartzen duen lehen aldian den edo ez.
2. Norberaren aurkezpena egiteko txandak modu aleatorioan banatuko dira, matazak eskutik eskura pasatuz. Parte-hartzaileak elkarrengana hurbilaziko ditugu horrela.
3. Eratutako "armiarma-sarea" elkarlanean desegino dugu denon artean

Oharra: Txikitatik jaso dugun heziketa dela eta, gizonok elkarrekiko kontaktu adeitsua saihesteko joera dugu, besteek gure gizentasuna zalantzan jarriko duten beldurrez. Tailerraren aurkezpen-, garapen- eta amaiera-dinamiketan, bideratzaileak zenbait jardura proposa

ditzake gizonen arteko tentsio hori (afektuen errepresioari oso lotua) apurtzen laguntzeko.

1. dinamika: Zergatik negar egin?



Helburua:

- Generoarekin zerikusia duten sozializazio-prozesuak egunero bizitzan oso presente daudela ohartaraztea.

Denbora: ordubete.

Materialak: paper edo txartelak, bolalumak edo errotuladoreak, datashow proiektzio-sistema edo antzeko beste edozein. Gazteekin ari bagara lanean, eta ez badugu halako proiektzio-sistematik, mugikorrera bidal diezaiekegu, Zapia edo Bluetooth bidez, proiektatu nahi duguna. Gero, taldeka erreproduzitzeko eskatuko diegu.

Garapena:


4. Partaideak hironaka ipini behar dira, eta idazketa-materiala banatuko zaie.
5. Hirukote bakoitzari honakoan pentsatzeko eskatuko zaio: Lehenik eta behin, txikitan abesten zizkieten abestietan ("Pello Joxepe", "Gure aitak amari", "Ama begira zazu..."). Abestiok zer iradokitzen dieten adierazteko eskatuko zaie, baita abestiotan emakumeek eta neskek zer paper jokatzeko duten azaltzeko ere.
6. Ondoren, egungo modako abesti batean pentsatzeko eskatuko zaie. Reggaeton ezagun horietako batean, adibidez: "Quiere que le metan bien bruto / bien bruto / más bruto. / Se molesta si no la subo. / Quiere que le meta bien bruto/ uh la la, mami te buscaste al Romeo equivocado...". Eta, lehenago egindakoaren moduan, abestiak zer iradokitzen dien eta emakumeak zer tokitan uzten dituen azaltzeko eskatuko diegu.
7. Hirukote bakoitzak bere emaitzak azaldu ondoren, eztabaida sustatuko da partaide guztien artean.
8. Amaitzeko, baztertzailak edo bortitzak ez diren abestiak gogorarazteko eta partekatzeko eskatuko diegu.

Azken eztabaida:

- Zein paper jokatzeko du musikak kultura patriarkalaren transmisioan?
- Izan ote gaitezke kontsumitzaile hutsak? Izan gaitezke hartzaile kritikoak?
- Zer egin dezakegu guk geure aldetik eta herritar gisa?
- Nola sentitu gara?

Oharra: Denbora eta baldintza teknikoak kontuan hartuta, modako hainbat bideo klip proiektu daitezke, eta berdintasuna aldarrikatzen duten edo bake-kultura sustatzen duten abestiekin amaitu saioa. (Adibidez: Kantu Kolore taldearen "Nire gorputza da", Mikel Markezzen "Konplize ditut eta", Glaukoma taldearen "Nire kaiola", Rochy Ameneiroren "Quisiera", Rochy Ameneiro eta David Blancoren "Si te vas", edo bideratzaileak proposatutako beste edozein). Taldeari nahi dituen bideoak ekartzeko esan dakioke, eta gero, denen artean, genero-ikuspegitik aztertu edo desmuntatu produktua.

2. dinamika: Nondik dator matxismoa?



Helburua:

- Matxismoak, eraikuntza kultural gisa, jatorria non duen identifikatzea.
- Ezaugarri biologiko edo anatomikoen (sexua) eta portaera soziokultural edo ikasien (generoa) arteko ezberdintasunak ezartzea.

Denbora: ordu bat eta 25 minutu.

Materialak: paperak edo txartelak, papelografoak, bolalumak edo errotuladoreak.

Garapena:

1. Hasteko, erlaxazio- eta bisualizazio-ariketa bat egingo da, gizon sentiarazi gintuzten esperientziak gogorarazteko.
 - Partaideei begiak itxeko eskatuko zaie. Gaua bada, edo toki itxi batean badaude, argi nagusia itzali eta argi ahul bat edo kandela bat bakarrik utziko da piztuta.
 - Behin begiak itxita, tentsioak eta arazoak gorputzetik uxatzeko eskatuko zaie partaideei.
 - Amasa nola hartzen duten entzuteko eskatuko zaie. Bat esatean, amasa sakon hartzeko; bi esatean, airea botatzeko, birrikak erabat hustu arte.
 - Berriro errepikatuko da ariketa, taldearen integrazioa bilatze aldera.
 - Orientazio hauek irakurriko zaizkie, ahots leunez eta lasai: kontzentratu bizitzako oroitzapen batean, iraganean bizitako esperientziaren batean, haurtzaroko batean, nerabzaroko batean, gaztaroko batean (helduak baldin badira) eta helduaroko batean. Zein esperientziak sentiarazi ninduen lehen aldiz gizon?
 - Pentsatzeko denbora emango zaie.
 - Bizitako sentimenduetan eta gertaeretan pentsatzera gonbidatuko ditugu ondoren: Zer gertatu zen? Zergatik gertatu zen? Zein gehiago zegoen han

zurekin? Zer egin zu(t)en? Zer esan zu(t)en? Zer egin zenuen zuk? Zer sentitu zenuen?

- Pentsatzeko denbora emango zaie.
 - Ondoren, beren maskulinitatea irudika dezakeen animalia batengan pentsatzeko eskatuko zaie.
 - Begiak mantso-mantso irekitzeko esango zaie, eta amasa sakon hartzeko. Argia piztuko dugu, itzalita bazegoen.
 - Luzaketa-ariketa batzuk egitea proposatuko zaie.
2. Hausnarketa eta eztabaidarako txanda irekiko da ordubetez.
 - Partaideei beren esperientziak partekatzeko eskatuko zaie: zer gogoratu duten, zer sentitu duten, zein animalia aukeratu duten maskulinitatea irudikatzeko.
 3. Hizketan ari diren bitartean, paper batean (edo txarteletan edo papelografoan) jasoko ditugu maskulinitateari esleitzen dizkioten ezaugarriak.
Adibidez: indarra, adimena, konkista sexuala, adorea, nagusitasuna, kontrola, boterea, negarrik ez egitea...
 4. Erabilitako euskarriaren arabera (libreta, txartelak, papelografoa), guk geuk irakurriko ditugu ezaugarriok edo taldeko beste norbaiti eskatuko diogu irakur ditzan.
 5. Sexuaren eta generoaren arteko ezberdintasunak azalduko zaizkie, baita matxismo kontzeptua zertan datzan ere.

Eztabaidarako gida:

- Dinamikan azalduko ezaugarrietatik zein dira maskulinoak eta generoaren eraikuntza soziokulturalaren emaitzak, eta zein dira, berriz, ezaugarri biologikoak?
- Zer da patriarkatua eta nola adierazten da?
- Zer alda dezakegu eta zertarako behar dugu aldaketa?
- Azkenik, esperientzia familiako kideekin, lantokian edo ikastetxean eta sare sozialetan partekatzeko eskatuko zaie.

Oharra: Dinamika honetarako, kontuan hartu liburuko I. kapituluko informazioa, hau da, maskulinitateak nola eraikitzen diren, sexuaren eta generoaren arteko ezberdintasunak, kultura patriarkala, matxismoa eta bere adierazpide diren mikromatxismoak eta neomatxismoak. Gizonen eta emakumeen portaerak finkatzen dituen kultura batez ari garela gogoraraziko diegu partaideei.

3. dinamika: Indarkeria erakusgai

Helburua:

- Gizonek, emakumeen kontra ez ezik, beste gizon batzuen kontra eta beren buruaren kontra ere erabiltzen duten bortizkeria identifikatzea.
- Bizitzaren uneren batean indarkeriaren biktima izatearen eta indarkeria erabiltzearen artean dagoen lotura ezartzea.

Denbora: ordu bat eta 30 minutu.

Materialak: arropa zabaltzeko soka, zinta, karten neurriko hiru paper zati edo koloretako txartelak (partaideko bat), eta arropa zabaltzeko pintzak. Aldez aurretik, arropa zabaltzeko sokak ezartzeko tokia badagoela ziurtatuko dugu.

Garapena:

1. Dinamikaren helburua zein den azalduko zaie: guk eragiten dugun indarkeriaz ez ezik gure aurka gauzatzen denaz ere eta gai horren inguruan sortzen zaizkigun sentimenduez hitz egitea.
2. Jarduera zertan datzan azalduko zaie: arropa zabaltzeko lau soka eskegiko ditu gelan, eta partaideek paper-orrietan edo txarteletan hitz batzuk idatzi eta soketan eskegi beharko dituzte gero.
3. Launa orri edo txartel banatuko zaizkie partaideei.
4. Soka bakoitzean kartel bat zintzilikatuko da, izenburu hauekin:
 - Besteek nire aurka erabilitako indarkeria.
 - Nik besteen aurka erabilitako indarkeria.
 - Nola sentitzen naiz indarkeriaz jokatzeko dudanean?
 - Nola sentitzen naiz indarkeriaren biktima naizenean?
5. Pixka batean pentsatzeko eta galdera bakoitzerako erantzun bat idazteko eskatuko zaie partaideei. Soka edo kategoria bakoitzeko erantzun bat idatzi behar dute, gutxienez. 10 minutu emango ditugu zeregin bakoitzerako. Ez dago asko idatzi beharrik; aski dira hitz gutxi batzuk, edo esaldi bat.
6. Erantzunak dagokien sokan zintzilikatzeko eskatuko zaie partaideei. Zintzilikatu aurretik, talde osoaren aurrean irakurri beharko dute erantzuna. Nahi izanez gero, egoki deritzeten azalpenak eman ahalko dituzte, eta gainerako parte-hartzaileek azalpen horiei buruzko galderak egin ahalko dizkiete.
7. Behin erantzun guztiak zintzilikatu ondoren, hasiera emango zaio eztabaidari, galdera hauek gidatatzat harturik:
 - Zein da gure aurka erabiltzen duten indarkeria-motarik arruntena?
 - Nola sentitzen gara indarkeria-mota horren biktima garenean?

- Zein da guk beste pertsonen kontra gehien darabilgun indarkeria-mota?
 - Nola jakin dezakegu norbaiten kontra indarkeria erabiltzen ari ote garen?
 - Ba al dago loturarik darabilgun indarkeriaren eta pairatzen dugunaren artean?
 - Nola sentitzen gara indarkeria darabilgunean?
 - Ba al dago besteak baino okerragoa den indarkeriarik?
 - Nola sentitzen gara indarkeria darabilgunean?
 - Bortxakeriaz jokatzeko dugunean edo bortxakeria pairatzen dugunean, hitz egiten al dugu gero horri buruz? Salatzen dugu? Nola sentitzen garen adierazten dugu? Erantzuna ezezkoa bada: eta zergatik ez?
8. Liburu honetako II. kapitulutik aurrera, indarkeria matxistaren hirukoa zertan datzan azaldu dut, eta indarkeria ez dela gizonetakoek berezkoa duten zer-bait, bizitzan zehar ikasitakoa baizik.

Eztabaidarako gida:

- Indarkeria pairatu dutenek aukera handiagoa dute etorkizunean indarkeriaz jokatzeko?
- Badago indarkeria-ziklo hori eteteko modurik?
- Nola eten dezakegu?
- Nola sentitu zineten istorioak partekatzerakoan?

Abusuren bat pairatzen ari dela dioten gazterik balego taldean (abuso sexuala zein etxeko abusu fisiko sistematikoa barne), eta 18 urtetik beherakoa balitz, dinamika-aren bideratzailea behartuta egongo da salaketa jartzera autoritate eskudunen aurrean (polizia edo fiskaltza). Beraz, eskuliburu honetako edozein dinamikari ekin baino lehen, adingabeen kontrako tratu txarrei eta indarkeriari buruzko arau juridikoak ezagutu beharko ditu bideratzaileak.

Oharra: Indarkeria aipatzen denean, eraso fisikoetan edo sexualtan pentsatzen dugu soilik. Garrantzitsua izango da, jarduera honetan, integritate fisikoari ez ezik psikologikoari ere eraso egiten dioten bestelako indarkeria-mota batzuen berri ematea. Teknika hau beste tailer batzuetan erabiltzean ikusi dugunez, gizonen errazago zaie pairatutako indarkeriaz hitz egitea, eragindakoaz hitz egitea baino. Hori hala gertatzen da erasotzaileak besteak direla esanez zuritu nahi izaten dutelako beren burua.

Dinamika honek funtsezko helburu bat du: partaideek argi ulertzea pertsonarteko indarkeriaren biktimek gerora indarkeria-ekintzak egiteko aukera handiagoa dutela. Gazteei lotura horretaz jabetzen laguntzea eta indarkeriaren ondorioetan pentsaraztea ziklo hori eteteko modu potentzial bat da.

4. dinamika: Tuntuna eta bizirik ala ausarta baina hilda?



Helburua:

- Gizonezkoen ustezko «ohoreak» indarkeriarekin duen loturaren inguruan gogoeta egitea.
- Minduta sentitzen garenean, indarkeriarik gabeko aukeretan pentsatzea.

Denbora: bi ordu edo ordubeteko bi saio.

Materialak: lanerako eta sorkuntzarako espazioa. Dinamikari ekin baino lehen, indarkeria-egoeran dauden gizonak agertzen diren pelikula edo bideo zati bat proiektatu dezakegu. Horretarako, proiektagailu bat beharko da, noski.

Garapena:

1. Ikus-entzunezko bat edo sarrera-hitzalditxo bat erabil daiteke gaia aurkezteko.
 - Gizonen arteko indarkeriaren faktoreetako bat "ohoreari" lotuta dagoela gogoraraziko zaie partaideei.
 - Honako hau jakinaraziko zaio taldeari: ikerketen arabera, gizonen artean (gazteen artean, batez ere) gertatzen diren heriotzetako asko eztabaida soil batek eraginak izaten dira, futbola, andregai edo irainen bat tarteko dela; eztabaida berotuz joaten da eta borrokan -are hilketan ere inoiz-amai daiteke.
 - Ikerketen arabera, halaber, gizonek joera handiagoa dute indarkeria erabiltzeko, beste gizon batzuen kontrako etsaitasun-egoeretan.
2. Parte-hartzaileak bospasei kideko taldeetan banatuko dira, guztira zenbat diren kontuan hartuta. Talde bakoitzak bi gizonen arteko irain-trukaketari buruzko istorio bat sortu eta aurkeztu beharko du.
3. Behin taldeak osatuta, orri bana banatuko zaie partaideei, esaldi osagabe hauekin:

- *Mikel eta Jon eztabaidan hasi dira jolas-denboran, eskolako lan baten inguruan. Mikelek esan dio kanpoan itxarongo diola, arazoa behar bezala ebazteko. Eskola-irteeran...*
 - *Lagun-talde bat taberna batean dago, edari batzuk hartzen. Halako batean, bi gizon borrokan hasi dira, eta ezezagun bat (beste gizon bat)...*
 - *Lagun-talde bat dantzara atera da, zein bere bikotearekin. Lagunetako batek, Unai, gizon bat bere emazteari begira dagoela ikusi du. Unai... denean hasi da borroka.*
 - *Aritz semaforo baten aurrean geldituta zegoen, bere autoan. Eskuine-rantz biratzen hasi denean, beste auto batek, eskuinetik bat-batean agertuta, tartean jarri eta gelditzera behartu du. Aritz, orduan, ...*
 - *Lagun-talde bat futboleko ari da. Talde bereko jokalaria dira. Borroka hasi da beste taldeko gizon bat hurbildu eta...*
4. Lana zertan datzan azalduko zaie: antzezen labur bat egin behar dute (3-5 minutukoa), jaso duten esaldi osagabeen oinarrituta. Nahi beste xehetasun gehi diezazkiokete testuari.
 5. Hogei bat minutu emango zaie ideiak trukatzeko, ados jartzeko eta antzezena prestatzeko.
 6. Antzezena egiteko eskatuko zaie. Antzezen bakoitzaren ondoren, eztabaidarako txanda irekiko da.
 7. Segidan, informazioa partekatuko dugu, galdera honetatik abiatuta: Zertan datza "gizonezkoen ohorea" delakoa? Informazioa modu interaktiboan partekatu daiteke parte-hartzaileekin.

Partekatze: kultura askotan, ohoreak eta harrotasunak garrantzi handia izaten dute gizonentzat, handiegia ere bai batzuetan.

"Gogor" ospea izatea, "indartsu" itxurak egitea edota nor bere onetik aterata agertzea defentsa-modu bat izan daiteke ez gizon gutxiarentzat. "Ohorearen kultura" oso hedatuta dago Latinoamerika osoan, "matxismo" itxuran. Eta matxismoak europar kolonizazioan du bere jatorria.

Kultura batzuetan, desleialtasuna edo horren susmo hutsa aski arrazoi izan daiteke legearen aurrean justifikatzeko senarrak emaztea hil izana. "Gizonaren ohorearen" izenean abortu selektiboak egiten dira neska gutxiago jaio daitezten, eta indarkeria erabiltzen

da emakume alargunen kontra ere senar hilaren ondra errespeta dezaten. Kasu askotan, bortxaketen biktima izan diren emakumeak, ezkondu aurretik sexu-harremanak izateaz akusatua, edota ezkon-saria emateko ohitura bete ezin izan dutenak, senarraren, jatorrizko familiaren edota bikotearen esku hiltzen dira. Bost mila emakume inguru hiltzen dira urtero "gizonaren ohorearen" izenean.

Eztabaidarako gida:

- Zer esan nahi du matxismo hitzak guretzat?
- Ba al da matxismorik oraindik? Indarrean al dago oraindik "ohorearen kultura"?
- Zer egin dezakegu guk "ohorearen kultura" hori aldatzeko?
- Nondik datorren jakitea lagungarri izan dakiguke?

Oharra: Kontuan izan behar da talde batzuei asko kostatzen zaiela istorio bat asmatzea edo dramatizazio baterako antzezleak hautatzea. Horren aurrean, bideratzaileak erne egon behar du eta partaideei lana errazten saiatu, ez dutela zertan "antzezle profesionalen" gisa jokatu gogoraraziz. Jarduera honekin, gizonari lagundu nahi zaie ulertzen zergatik jokatzen duten batzuetan jokatzen duten moduan, eta jokabide horiek zergatik izan daitezkeen indarkeria-iturri. Jokabideak aldatzeko eta/edo saihesteko moduz ere hitz egingo da.

5. dinamika: Sexu-indarkeria. Bada ala ez da?



Helburua:

Sexu-indarkeria zer den, sustatzen duten baldintzak zein diren eta gutxitzeko edo prebenitzeko zer egin dezakegun aztertzea.

Materiala: papelografoa, errotuladoreak, zinta itsasgarria.

Denbora: ordubete.

Oharra: Teknika hau aurkeztu baino lehen, egokia litzateke gure inguruko (erkidego, udalerrri edo probintziako) sexu-indarkeriari buruzko datuak eskuratzea, baita indarkeria horren nazio-, eskualde-

eta mundu-mailako joerei buruzko informazioa lortzea ere. Bestalde, teknika aplikatu baino lehen, hemen proposatutako esaldiak egokiak diren edo ez ikusi beharko litzateke, behar izanez gero beste adibide batzuk jartzeko. Era berean, kasuak aztertu, egokienak hautatu edo beste batzuk bilatu beharko lirateke. Ondoren, orrietan edo txarteletan idatzi, eta taldeen artean banatu.

Baliteke partaide batzuk uzkur agertzea sexu-indarkeriaz hitz egiteko garaian, beren larruan bizitako esperientziak gogorarazten dizkielako. Bideratzaileak prest egon beharko du halako egoerei aurre egiteko. Partaide batzuek espezialisten laguntzaren beharra izan dezakete, baina ez du zertan horrela izan beti.

Garapena:

1. jarduerarekin hasi aurretik, esaldi hauek idatziko ditugu orri banatan:
 - Sexu-indarkeria da.
 - Ez da sexu-indarkeria.
 - Ez nago ziur.
2. Aurkeztuko zaizkien egoera batzuen aurrean, sexu-indarkeria diren edo ez esan beharko dutela adieraziko zaie partaideei. Ziur ez badaude, "ez dakit" edo "ez nago ziur" adierazi ahal izango dute.
3. Hiru paper-orri zintzilikatuko dira denek ikusteko moduko toki batean, esaldi bana idatzita dutela. Egoera bat aurkeztu eta hiru paperetako zeinetan kokatuko luketen galdetuko zaie partaideei.
4. Behin erabakia hartuta, taldeko kideren batek (edo batek baino gehiagok) bere ikuspuntua defendatu beharko duela azalduko zaie partaideei.
5. Nahi beste kasu aurkeztu ondoren, taldeak osatu eta txartelak banatuko dira. Sei bat minutu emango zaizkio talde bakoitzari kasua eztabaidatzeko.
6. Talde bakoitzeko kide batek kasuaren aurkezpena egingo du. Ondoren, eztabaida irekiko da, txartela dagokion definizioaren ondoan ezarri aurretik.

Kasu batzuk adibide gisa:

- *Duela hilabete batzuk, Felipe administrari-laguntzaile gisa hasi zen lanean enpresa ezagun batean. Gau batean, enpresako nagusiak, Robertok, esan zuen atsegin zuela Felipe, oso gustukoak zituela haren emakume-manerak, eta sexu-harremanak izan nahi zituela berarekin. Bere eskaera onartzen bazuen, enpresan gora egiten lagunduko ziola esan zion Feliperi.*

- *Mundu guztiak dio Yamiletek neska errazaren aurpegia duela. Sexua oso gustukoa duela eta maiz egiten duela esanez ibiltzen da Yamilet. Egun batean, Pedro izeneko lagun baten festara joan eta konortea galdu arte edan zuen. Egoera aprobetxatuz, Pedrok larrua jo zion eta gauza bera egitera gonbidatu zituen lagunak.*
- *Carlosek 10 urte ditu eta bideoklipetako izarra da dagoeneko. Aitaren lagun bat zinema-zuzendaria da eta Carlos hainbat aldiz aritua da haren aurrean dantzan, pozik asko gainera. Egin behar duen gauza bakarra da bere adineko neska batzuk limurtzeko "itxurak egitea", haiek reggaeton erritmora dantzan ari diren bitartean.*
- *Luisak dio sexu-harremanak izan nahi dituela Dayronekin. Erantzi eta Dayrorekin oheratzen da, baina une horretan atzera egitea erabakitzen du. Dayronek harremanak izatera behartzen du. Hori sexu-indarkeria da?*
- *Leonardok 12 urte zituela, amaren lagun bat, Alicia, berarekin gelditzen zen batzuetan, gurasoak gauean ateratzen zirenean. Aliciak 35 urte zituen. Gau batean, Leonardo bainatzen ari zela, Alicia ondoan sartu zitzaion. Leonardo zer egin ez zekiela gelditu zen. Orduan, neskak esan zion: "Zertan ari zara hor geldirik? Porta zaitez gizon". Eta eskatutako egin zuen Leonardok. Gero, arraro sentitu zen, ez zekien gertatutakoaz inorekin hitz egin edo ez.*
- *Manuk 15 urte ditu eta ez du sexu-harremanik izan inoiz. Lagunek barre egiten diote beti, birjina ez ezik maritxua ere badela esanez. Gau batean, prostituzio-etxe batera eraman eta sexu-langile bat bilatu diote. Manuk ez du nahi, baina, azkenean, emakumearekin etzan da, lagunak behartuta.*
- *Gorkak eta Elenek bi urte daramatzate ezkondu. Gorka, batzuetan, berandu iristen da etxera, eta Elene lotan egoten da ordurako. Gorkak esnatu egiten du, eta sexua nahi duela esaten dio. Batzuetan, Elenek ez du gogorik izaten, baina Gorka berean tematzen da.*

Eztabaidarako gida:

- Sinesgarriak dira egoera horiek?
- Zer da sexu-indarkeria?
- Zer da genero-indarkeria?
- Sexu-indarkeria krimena da beti?
- Zer egin dezakegu sexu-indarkeria saihesteko?
- Zeinek dute sexu-indarkeria pairatzeko arrisku gehiago, gizonak edo emakumeak? Zergatik?

- Badira sexu-indarkeriaren biktima diren gizonak?
- Zein dira mutilek aurre egin behar izaten dieten arrisku nagusiak? Neskak adina babesten ditugu?
- Zein ondorio izaten ditu sexu-indarkeria pairatzeak?

Partekatze: Sexu-indarkeriak emakumeak ditu biktima nagusi. Horrek ez du esan nahi gizonak sexu-erasorik pairatzen ez dutenik, baina gehien pairatzen dituztenak emakumeak dira beti, adin guztietakoak. Bortxakeriak nagusitasun patriarkalaren sintesia sinbolizatzen du, pertsona baten gorputzean haragitia. Horregatik da sexu-erasorik larriena. Hona zer hartzen den sexu-erasotzat: indarkeria edo mehatxuak erabilita zakila baginan sartzea, aho edo uzki bidezko sexu-harremanak izatea, eta pertsona baten sexu-organoetan abusuzko ukipenak egitea, hala nola sarketa gauzatzeko edozein objektu-mota erabiltzea. Ekintza horiek biktimaren baimenik EZA dute ezaugarri, ukatu egiten baitaio gorputza nahieran erabiltzeko eskubidea.

Oharra: Dinamika hau bestelako genero-indarkeria mota batzuei buruzko gogoeta sustatzeko erabil daiteke. Bideratzaileak erreferentziatzen har dezake liburuko bigarren kapitulua, bestelako istorio batzuk asmatu, edota eztabaida beste alor batzuetara zabaldu.



6. dinamika: Zaintza-esperientzia

Helburua:

- Norbere burua eta besteak zaintzearen inguruan sortzen diren arazoak, zailtasunak eta kezak aztertzea.
- Norbere burua eta besteak zaintzeko beharra ulertaraztea.
- Aitatasun arduratsua praktikatzeko beharra sustatzea.

Denbora: 2 ordu.

Materialak: papelografoa, arkatzak, errotuladoreak, paper zuriak edo txartelak, paper-zerrenda batzuk, musika-erreproduzitzailea.

Oharra: Dinamika hau bi zatitan banatuko dugu. Lehen zatia zaintzara zuzenduta egongo da; bigarrena, aitatasunera.

Garapena:

Lehen zatia

1. Partaideei biribilean esertzeko eskatuko zaie. Paper eta arkatz bana banatuko zaizkie. Paperean "zaintza" hitza idazteko eskatuko zaie.
2. "Zaintza" hitza entzutean, burura etortzen zaizkien hitz eta esaldi guztiak idazteko eskatuko zaie.
3. Bost minutu geroago, zer idatzi duten irakurtzeko eskatuko zaie. Zerrenda bat osatuko da aipatutako hitz eta esaldiekin, eta gehien egiten diren asoziazioak identifikatuko dira.
4. Hiruna paper-zerrenda banatuko zaizkie, eta gainerakoak partaideek osatzen duten zirkuluaren erdian jarriko dira. Haurtzarotik bizitako zaintza-esperientzietan pentsatzeko eta eszena horietako bat idatziz deskribatzeko eskatuko zaie.
5. Hogeit bat minutu geroago, norbaitek bere istorioa azaldu nahi ote duen galdetuko zaie. Antzeko beste esperientziarik ba ote dagoen galdetu ondoren, hasiera emango zaio eztabaidari.

Eztabaidarako gida:

- Ba al dago "zaintza" hitza ideia bakar batean oinarrituta definitzerik?
- Ona da zaindua izatea? Zergatik?
- Ona da zaintzaile izatea? Zergatik?
- Zaintzen al dute beren burua gizonen?
- Zaintzen ikas dezakete gizonen?

Bigarren zatia

1. Aitatasunari buruzko abesti bat entzungo dugu, aldez aurretik hautatua.
2. Musika entzun bitartean begiak ixteko eskatuko zaie partaideei.
3. Abestia amaitzean, burura etorri zaien irudi nagusia paperean idazteko eskatuko zaie.
4. Bideratzaileak edo taldeko kide batek paperak bildu eta ozen irakurriko ditu. Bien bitartean, beste kide batek koadro bat egingo du papelografoan, aipatzen diren ideia nagusiekin.
5. Ideia horiek hartuta, hiruna txartel banatuko zaizkie partaideei. Hiru papelografo kokatuko dira denen bistan, honako galdera hauekin:
 - Nolakoak dira ezagutzen ditudan gurasoak?
 - Zer da aita ona izatea?
 - Zer behar da aita ona izateko?

6. Galdera bakoitzari txartel batean erantzuteko eskatuko zaie partaideei, eta, bukatzen dutenean, dagokion galdearen azpian uzteko txartela.
15 minutu emango zaie jarduera honetarako.
7. Ondoren, eztabaida sustatuko dugu, erantzunetan oinarrituta.

Eztabaidarako gida:

- Guraso izaten erakusten digute?
- Gurasoengandik jaso dugun ereduak izan behar du nahitaez onena?
- Arduraz onartzen dugu aitatasuna?
- Zeri deitzen diogu aitatasun arduratsua?
- Ba al da aitatasuna sustatzeko politikarik, legerik edo programarik?

Partekatzeko: Zaintza hitzari esanahi desberdinak eman izan zaizkio egoera batzuetan eta besteetan. Erabilitako terminoa gorabehera, guk, hemen, pertsona batek bere inguruko munduarekin (hau da, inguruko objektuekin, landareekin, animaliekin eta, batik bat, beste gizaki batzuekin eta, jakina, baita bere buruarekin ere) nola elkar eragiten duen aztertu nahi dugu, horretaz nahi dugu hitz egin. Auto-zaintzak edo nork bere burua zaintzeko jarrera hori ezaugarri "femeninotzat" hartua izan da askotan gure kulturean. Testuinguru horretan, gizonak beren burua alde batera uztera bultzatuak dira. Oro har, gizonak espektatiba sozialei kemenez erantzuteko sozializatuak dira txikitatik: haien arriskua ez da saihestu edo prebenitu beharreko zerbait, egunero borrokatu eta gainditu beharreko zerbait baizik. Auto-zaintzarako aukerarik ezak bizimodu auto-suntsizailerako bidea ematen du, bizimodu arriskutsu -zenbait zentzutan, behintzat- baterako bidea. (Ikus liburu honetako III. kapitulua). Askotan ez gara konturatzen bizitzan zehar ikasten den trebetasun bat dela zaintza. Mutiko batek bere jolasen artean etxeko lanekin zerikusia duten gaiak edo jostailuak sartzen dituztenean, zentsura eta zigorra jasotzen ditu ordainetan. Gizonak beren burua ez zaintzen eta besteak ez zaintzen ikasten duten modu berean, espektatiba sozial hori itzulipurdikatzen ere ikas dezakete.

Sozializazioa imitazioaren bidez eta, elaborazio-maila jasoago batean, gurasoekiko eta helduekiko identifikazioaren bidez ere barneratzen da. Hala, gizonak seme-alaben zaintzan gehiago inplikatzek eruz eraldatuko litzuke segur aski genero-harremanak, mutilek beren aitak lan horietan nola moldatzen diren ikusteak maskulinoa eta femeninoa denaren esanahiak zabaltzea ekar bailezake.



7. dinamika: Gorputz erotikoa

Helburua:

- Desiraren, kitzikapenaren eta orgasmoaren inguruan gogoeta egitea.
- Gizonen zein emakumeen behar sexualak berdinak direla ulertaraztea.

Denbora: ordu bat eta 30 minutu.

Materialak: aldizkariak, guraizea, kartoi mehea eta lekeda. Dinamikaren emaitzak arbelean, horman edo arropa zabaltzeko soketan jarriko dira erakusgai. Beraz, zinta itsasgarria, tattetak edo pintzak ere beharko dira.

Oharra: Dinamika honetan, argi utzi behar da desiraren, kitzikapenaren eta orgasmoaren mekanismoak ezagutzea eta haien gozamen osoa ziurtatzea oso lagungarri gerta daitekeela gizonak (nerabe eta gazteek batik bat) sexu-harremanen aurrean izaten duten segurtasunik eza eta presioa gutxitzeko. Garbi utzi behar zaie partaideei bizitza sexual aktiboa izateak ez duela nahitaez koitoea edo sarketa egon behar duenik esan nahi, eta asko direla kontaktu intimora eta plazerera iristeko bideak. Eztabaida ahalik eta modurik ireki eta lasaienean gidatzen saiatuko da bideratzailea, parte-hartzaileen bromak eta txantxak gorabehera. Bideratzaileak bereziki nabarmenduko du babes-neurriak hartzearen garrantzia.

Garapena:

1. Partaideak lauzpabost kideko taldeetan banatu ondoren, bina paper-orri emango zaizkie guztiei. Aldizkari batzuk, guraizeak eta lekeda-ontzi batzuk ere jarriko dira denen eskura.
2. Hasteko, partaideek "collage" bana egin beharko dute, aldizkariak, gurai-zeak eta lekeda erabiliz, gai honen inguruan: zer da zuretzat gizon-gorputz erotikoa? 10 minutu izango dituzte jarduera egiteko.
3. Lana bukatuta, gauza bera egin beharko dute emakume-gorputz erotikoa gaitzat hartuta. Beste 10 minutu izango dituzte "collage" hori prestatzeko.

4. Lanak erakusgai jartzeko toki bat prestatu beharko da.

Eztabaidarako gida:

- Zer da desira?
- Nola dakigu gizona kitzikatuta dagoela? Eta emakumea?
- Nola kitzikatzen dira gizonak?
- Nola kitzikatzen dira emakumeak?
- Gizonak eta emakumeak modu berean kitzikatzen dira?
- Zein desberdintasun daude bien artean?
- Zer da orgasmoa?
- Zer gertatzen da gizonak orgasmoa duenean?
- Nolako da emakumeen orgasmoa?
- Zer garrantzi du afektuak sexu-harremanetan?
- Sexua desberdina da maite dugun norbaitekin praktikatzen dugunean?
- Noiz da hobea sexu-harremana, pertsonen artean afektua dagoenean ala ez dagoenean?
- Saiatzen al gara bikotearekin komunikatzen, hobeto ezagutzeko?

Oharra: Dinamikan zehar, pertsona bakoitza mundu bat dela nabarmenaraziko da. Gizonak eta emakumeak gorputz erotikoa dute eta gehien kitzikatzen diren gorputz-atalak desberdinak dira pertsona batetik bestera. Batentzat atsegina denak ez du zertan hala izan beste batentzat. Horregatik, bikote-harremanetan oso garrantzitsua da komunikazioa, besteari entzutea, bestea sentitzea. Behar bestetan nabarmenduko da, beraz, zein garrantzitsua den sexu-harremanetan afektua ematea eta babes-neurriak hartzea. Bestalde, emakume batek "ezet" dioenean "baietz" esan nahian dabilela dioen mitoa bertan behera utzi behar da.

Partekatzeko: Gorputz-atal guztiek sentitzen dute plazera ukitzen dituztenean, baina badira batzuk laztanekiko sentiberagoak direnak beste batzuk baino. Atal erogeno deritze: bularrak, titiburuak, uzkia, bulba, bagina, zakila, klitoria, ahoa, belarriak, lepoa... Bakoitzaren lana da bere bikoteak gehien kitzikatzen duen gorputz-atala zein den aurkitzea. Kitzikapena, gainera, elkarrekin loturik dauden eta bata bestearen mendeko diren faktore sozial eta psikologikoen ara-

berakoa izaten da. Nabarmendu beharra dago, halaber, sexu-harremanetan bere osotasunean hartu behar dela kontuan gorputza, eta ez dela egokiena arreta sexu-organoetan bakarrik jartzea.

Ansietateak, depresioak, arrisku-sentsazioak eta gutxietsia izateko beldurrak eragina izan dezakete pertsonen sexu-desiran.

Aitzitik, pertsona lasai egoteak, seguru egoteak eta intimitatea izateak asko errazten du sexu-harremanetarako desira.

8. dinamika: Aniztasuna eta eskubideak. Besteak eta ni



Helburuak:

- Era guztietako pertsonetikiko enpatia sustatzea.
- Hainbat talde etniko eta/edo orientazio sexualekiko indarkeriaren jatorrian sakontzea.

Denbora: ordu bat eta 30 minutu.

Materialak: gutunen neurriko paper-orriak edo txartelak, errotuladoreak eta zinta itsasgarria.

Oharra: Neutrala izatea gomendatzen da. Gizonak zentsuratu gabe aplikatu behar da teknika hau, baina, aldi berean, aniztasunarekiko errespetua sustatuz. Dinamika honetan, gizonetako batzuek esaldi gehiago pentsatzeko eta teknika bitan erabiltzeko eskatu zuten. Horrek aukera eman zuen sakonago jarduteko gizonengan zalantzak sortzen zituzten eta azalpenen bat behar zuten gaien inguruan: GIB/hiesa, sexu-transmisioko gaixotasunak, etxeko indarkeria, sexualitatea eta aitatasuna, eta abar.

Garapena:

1. Bideratzaileak esaldi bana idatziko du orrietan edo txarteletan. Parte-hartzaile bakoitzeko esaldi bana, gutxienez. Esaldiak taldearen testuingurura edo nabarmendu nahi den gaira egokituko dira.
2. Partaideei biribilean esertzeko eta begiak itxeko eskatuko zaie. Hitz edo esaldi bat idatzita duen orri bana banatuko zaiela azalduko zaie. Papeira jaso ondoren, parte-hartzaileek bertan idatzita dagoena irakurriko dute beren golkorako, eta egoera horretan egongo balira nola jokatuko luketen pentsatu.

3. Zinta itsasgarria hartuta, papera paparrean itsasteko eskatuko zaie.
4. Denak zutituta, aretoan ibiltzen hasiko dira, beste parte-hartzaileen pape-
retako esaldiak edo hitzak irakurriz, elkarri agur egingez, baina elkarrekin hitz
egin gabe.
5. Ondoren, elkarri begira jarrita, biribil bat eratzeko eskatuko zaie. Partaide
bakoitzak pertsonaia bat antzetzuko du, eta paparrean idatzita daraman
esaldiarekin zerikusia duen istorio bat asmatuko, bere egoeraz edo erreali-
tateaz hitz egingo duen istorio bat. Denbora emango zaie istorioa pentsa-
tzeko.
6. Inor hasteko prest ote dagoen galdetuko zaie. Orduan, bakoitzak, modu
aleatorioan edo zirkuluaren ordenan, bere istorioaz hitz egingo du, taldeko
azkenaren txanda iritsi arte.
7. Istorio guztiak entzun ondoren, bakoitza bere tokian eseriko da berriro, pa-
pera paparretik kendu gabe.
8. Parte-hartzaileak, bakoitza bere pertsonaiaren larruan sartuta, elkarri gal-
dezka hasiko dira istorio horietan bizitako bizitzaz eta errealtateez, izanda-
ko sentimenduez eta sortutako arazoez.

Eztabaidarako gida:

- Ezagutzen al duzu antzeko egoera bizitzea egokitu zaion gizonik?
- Nolako esperientzia izan da zuretzat pertsonaia horren larruan sartzea?
- Nola sentitu zara?
- Munduko toki askotan, “desberdina” edo gutxiengo baten kide denak diskri-
minazioa eta indarkeria pairatu behar izaten ditu. Nondik ote dator gorroto
hori?
- Nola justifikatzen dugu indarkeria, gu “ez bezalakoa” den norbaiti aurre egi-
terakoan?
- Zer egin dezakegu diskriminazioa eta gorrotoa saihesteko?

Aita naiz eta seme-alabak nire ardurapean daude
Sexu-harremanak izan ditut beste gizon batekin, baina ez naiz gaya

Transsexuala naiz
Bikotekidea jo nuen behin

Gorra naiz
Senarrak tratatu txarra ematen dit

Bisexuala naiz
Alkoholikoa naiz
Heterosexuala naiz

Afro-ondorengoa naiz
Ez daukat non bizi

Nire ama
sexu-langilea da
Ez naiz herrialdeko hiriburukoa
Beso bat galdu nuen ezbehar batean
Gaya naiz

Nire bikotekidea ez da leiala izan nirekin
11 urte ditut eta gelako potoloa naiz

Seropositiboa naiz
Neure buruaz beste egiten saiatu nintzen
Gizon zaharra naiz eta bakarrik bizi naiz

Oharra: Desberdinak diren pertsoneri edo aipatu ez diren gutxiengoei buruzko ideia-trukaketa eginez amai daiteke dinamika. Batzuetan, desberdintzat jotzen diren eta inoiz erreparatu ez diegun pertsonen adibideak sortzen dira. Horrek mami handiagoo ematen die erabilitako teknikei eta gizonekiko lanari. Garrantzitsua da askotariko diskriminazio-motak daudela ezagutaraztea (arrazo- edo genero-diskriminazioa, orientazio sexualak edo lurralde-arrazoiek eragindakoa, edota GIB/hiesduna izatearen ondoriozkoa, besteak beste) eta haiei buruzko informazioa partekatzea taldearekin. Gai horietan sentsibilizatzeko ekimenetan edo ekintzetan parte hartzera gonbidatu daitezke partaideak.

9. dinamika: sexu-transmisioko infekzioak (STI)



Helburuak:

- STIak ezagutzeak, detektatzeak eta prebenitzeak sexualitatearen eta ugalketa-osasunaren testuinguruan nolako garrantzia duen jakitea.
- Gaiari buruzko mitoak eta desinformazioa deuseztatzen laguntzea.
- Prebentzioaren erantzukizun partekatua sustatzea.

Denbora: 2 ordu.

Materialak: papelografoa, papera, errotuladoreak, aldizkariak eta lekeda. Ikus-entzunezkoren bat proiektatzea aurreikusten bada, erreproduktzioarako euskarri bat.

Oharra:

Bideratzaileak egoki informatuta egon beharko du STI mota desberdinez, eta komunikazio-euskarriak (afixak, bideoak, etab.) kudeatzen jakin beharko du. Garrantzitsua da azpimarratzea STI baten sintomak sumatzean medikuarengana jo behar dugula, eta ez auto-medikatu. STIek (GIBak barne) eragiten dituzten osasun-arazoak ez ezik arazo etikoak ere aipatu behar dira. Hau da, norbaitek sexu-transmisioko infekzioa duenean, berarekin kontaktu sexuala izan duten pertsoneri jakinarazteko erantzukizuna du. GIB/hiesari dagokionez, bideratzaile-lanak egingo dituen pertsonak gaixotasunaren transmisio-bideei eta prebentzioari buruzko informazioa menderatu behar du, birus-eramaile eta hies-gaixoa izatearen artean dagoen desberdintasuna jakin behar du, baita tratamenduaren eboluzioaren nondik norako nagusiak ezagutu ere. GIBdun pertsoneri eta hies-gaixoei pairatzen duten diskriminazio sozialari eta jasaten dituzten aurreiritziei buruzko eztabaida bultzatuko da.

Garapena:

1. Talde osoko bileran, parte-hartzaile gehienek ziurrenik STIen inguruko xehetasunak entzunda izango dituztela aipatuko da.

2. Zein STI ezagutzen dituzten eta sintomak zein diren galdetuko zaie. Erantzunak papelografo batean jasoko dira. Jarraian, zerrenda osatuko da, parte-hartzea bultzatuz.
3. Ondoren, GIB/hiesaren zein sintoma ezagutzen dituzten galdetuko zaie. STIen zerrendaren ondoan idatziko dira.
4. STIren bat harrapatu dugun edo ez jakiteko ezagutu beharreko sintomez hitz egingo zaie, baita medikuarengana jotzeko eta botika egokiak hartzeko beharraz ere, eta horrelako gaixotasunetatik babesteko bitartekoak zehaztuko zaizkie.
5. GIB/hiesak sintoma agerikorik ez duela azalduko zaie. Infektatuta gauden jakiteko modu bakarra odol-analisia da.
6. Ondoren, gizon batek STI (GIBa barne) batekin ez infektatzeko zer egin dezakeen galdetuko zaio taldeari. Erantzunak beste papelografo batean jaso eta ideia-trukaketa sustatuko da.
7. Segidan, talde osoa seina kideko azpitaldeetan banatuta, partaideei eskatuko zaie pentsatzeko nola informatu beste pertsona batzuei gai hauetako bati buruz: STIak (GIBa/hiesa barne); sintomak eta prebentzioa; erantzukizun etikoa eta ez diskriminatzea. Horren inguruan kartelak, antzeppen bat edo telebista-iragarki bat (nahi dutena) egitea proposatuko zaie.
8. Behin lanak bukatuta, talde bakoitzak bere aurkezpena egingo du besteen aurrean.

Eztabaidarako gida:

- Zergatik da hain zaila STIez eta GIB/hiesaz hitz egitea?
- Sexu-harremanetan beti hartu behar dira babes-neurriak ala ez dago halakoen beharrik bikote egonkorra dugunean?
- Zer egin behar dut STI bat dudala susmatzen badut?
- Zein da nire erantzukizuna nire bikotearekiko eta sexu-harremanak izan ditudan beste pertsonetikiko?
- Nire erantzukizuna desberdina da bikote egonkorraren edo aldizkako kontaktu baten kasuan?
- Edozein pertsona izan daiteke seropositiboa GIBarekiko, edo pertsona batzuk bakarrik?
- Ezagutzen duzu GIB/hiesa duen inor? Beste edozein pertsona bezala tratatzen duzu? Elkartzen zaretenean, besarkatzen duzu edo musurik ematen diozu? Ala nahiago duzu ez hurbiltzea?
- GIBarekiko seropositiboa den pertsona batek infektatuta ez dagoen beste pertsona baten eskubide berberak izan behar ditu?

Oharra: Garrantzitsua da GIB/hiesaren inguruan indarrean jarraitzen duten mitoak aztertzea. Adibidez, pertsona “promiskuoak” bakarrik kutsa daitezkeela edo “homosexualen kontua” baino ez dela.

Partaideei azaldu behar zaie badirela gizonak beren osasunaz arduratzen ez direnak, beren burua zaintzen ez dutenak, sexu-harremanak bikotekide egonkorrekin ez ezik beste askorekin ere izaten dituztenak (baina preserbatiborik erabili gabe, lotsagarri irizten diotelako), eta hori dena beren kementasunaren eta gizontasunaren adierazgarri nagusizat daukatenak.

10. dinamika: Harila (Gure aldaketa-konpromisoa)



Helburua:

Bizitako prozesuarekiko konpromisoari bide ematea, landutako gaiak kontuan hartuta. Funtsean, emakumearen kontrako indarkeria-mota oro desagerrarazteko borrokari dagokionez, eta seme-alabekin sexista ez den eta besteen eskubideak errespetatzen dituen prestakuntza garatzeko.

Denbora: 15-20 minutu.

Materialak: Artile-harizko edo sokazko harila, edo antzekoa.

Garapena:

Parte-hartzaile guztiak biribilean eseriko dira. Erraztaileak babilezko haril bat botatzen dio parte-hartzaile bati, edozeini, punta askatu gabe, eta, bitartean, ahots gora esaten du zer konpromiso hartzen duen bizitako prozesuan oinarrituta. Parte-hartzaile bakoitzak gauza bera egiten du: harila jaso eta oraindik jaso ez duen kide bati bota, babila askatu gabe, eta bere konpromisoa azaldu. Azken parte-hartzaileak erraztaileari botatzen dio harila, bere konpromisoa esaten duen bitartean, eta mordoiloa ixten da. Erraztaileak guztien konpromisoekin eraturako sarearen analogia bat egin dezake.

Sare-lanaren jardunbide onak

Hamarkada honen hasieran, ordurako maskulinitateei buruzko ikerketa eta ez-tabaida akademikoetan ibilbide luzea zuela, RIAMek harremanak estutu zituen estatu-mailako eta nazioarteko erakunde eta elkarteekin, eta sare-lanerako ahalmena indartu, honako helburu hauekin: gizon-taldeetan beharrezko aldaketa sustatzeko, publiko handietan eragina izateko, eta sektore garrantzitsuetan (hala nola sektore juridikoan eta hedabideetan) genero-gaien inguruan ahalmenak indartzeko esparruetan maskulinitateei buruzko analisi espezifikoa bermatzeko.

Jarraian, lan sistematiko horretako zenbait esperientzia eta emaitza azalduko ditugu:

Zuzenbidea: Historikoki, zuzenbidea patriarkatuaren erakunde nagusietako bat izan da. Bere bilakaeran, berdintasunekoak ez diren bizikidetzeta-moduak legitimatu zituen zuzenbideak. Orobat, gizonezkoen hegemonia eta inposizio- eta indarkeria-mekanismoak berretsi zituen, sexu bat bestearen gainean hierarkizatzeke.

Zuzenbidean, genero-ikuspegiak ikaragarritzko erronka du: gizabanako bakoitzaren subjektibotasunean eragitea, eta arau eta estereotipo sexistak balio-gabetzea, jurista-jarduera hobea izan dezaten. Horrexegatik, garrantzitsua da eztabaida juridikoan maskulinitate berrien ikuspegia txertatzea, zuzenbidean dauden matxismo- eta desberdintasun-adierazpen ugariak agerian jartzea, eta gizonen konpromiso aktiboa lortzea genero-indarkeriaren kontra eta bake-kultura baten alde.

2011z geroztik, Maskulinitateen Sare Iberoamerikarra eta Afrikarra (RIAM) aktiboki ari da parte hartzen Kubako Juristen Batasun Nazionalak (UNJC) sortutako Generoa eta Zuzenbidea Proiektuan: "Justizia Generoaren Ikuspegitik, emakumeen eta gizonen berdintasunerako bermea". Bi erakundeek lan handia egin dute generoari buruzko trebakuntza emateko, bai hainbat esparrutako (fiskaltza, abokatu-langela kolektiboak, auzitegiak) juristei, bai Kubako unibertsitateetan zuzenbide-ikasketak hartzen eta ematen dituztenei. Ahalegin horietan, hainbat erakundeak eta elkartek lagundu diete; besteak beste, Kubako Emakumeen Federazioak (KEF), Nazio Batuen Sistemaren Kubako agentziek, Garapen eta Lankidetzarako Agentzia Suitzarrak (COSUDE), Kubako unibertsitateetako zuzenbide-fakultateek eta sektore juridikoko erakundeek.

2014an, COSUDEren laguntza jasotzen duen Eragin Nazionalako Genero Berdintasuna Plataformaren (PEGIN) baterako ekintzen planean sartu zen ekimena. Eragin-eremua herrialdeko eskualde guztietara hedatu da, eta, batik bat, probintzia hauetara: Guantanamo, Santiago de Cuba, Holguin, Las Tunas, Camagüey, Santi Spiritus, Artemisa, Habana eta Pinar del Río.

Lankidetzaz horren ekarpen nagusiak honako hauek dira:

- Generoa eta Zuzenbidea aukerako ikasgaia, Habanako Unibertsitateko Zuzenbide Fakultatean.
- Generoa, Zuzenbidea, Maskulinitateak eta indarkeriaren prebentzioa graduondoko ikastaroak, UNJCK herrialdeko zenbait probintzietan dituen etxe sozialetan ematen direnak.
- Bitartekaritza, Generoa eta Familia diplomatura.
- Generoa eta Zuzenbidea ikastaroa, Herri Auzitegi Goreneko Eskola Judizialekoa.
- “Emakumea, Generoa eta Zuzenbidea” bi urtez behingo nazioarteko batzarra.

Maskulinitateak eztabaidagai

RIAMek truke-esparruak sustatu ditu. Horietako bat Maskulinitateak Aztertze Jardunaldia da. Esparru horiek COSUDeren, NBSren Kubako agentzien eta beste erakunde eta elkarte batzuen laguntza jaso dute, hala nola KEFeko Emakumearen Argitaletxearena. Trukearen helburuak honako hauek dira: gizona izateko modu tradizionaleri buruzko hausnarketa bultzatzea, beste maskulinitate batzuk sustatzea eta konpromisoan oinarritutako aldaketa bideratzea. 2017an, zazpigarren urtez egin ziren jardunaldiak, eta, haietan, lan hauek jorratu dira, besteak beste: osasunaren zainketa, musika, kirola, indarkeria matxista, informazioaren teknologia berriak, sare-lana eta lankidetzaz.

Bide horretan, gizon gazteak indarkeriaren kontrako eta genero-berdintasunaren aldeko laneko lider gisa trebatzea izan zen gertaera garrantzitsuetako bat. 2012an eta 2013an Matanzas eta Pinar del Río probintzietan UNFParen laguntzarekin garatutako ekimena izan zen. “Gazteentzako hausnarketa: Maskulinitateak eta bake-kultura” eta “Musika eta kirola gizon gazteentzat, indarkeria prebenitzeko” tailerretan, modako ikus-entzunezkoak erabili ziren, indarkeria matxistaren hirukoari buruz hausnartzeko. Tailer horiek 1.000 gizon gazte baino gehiago sentsibilizatu zituzten; gehienak unibertsitate-ikasleak ziren.

RIAMen maskulinitateari buruzko ikerketek, ikuspegi akademiko batekin, gai hauek landu dituzte: feminismoa, indarkeria, sexualitatea, aitatasuna, migrazioa, arraza, kirola eta musika. Sarearen sortzaile Julio César González Pagések egindako lanez gain, beste kide batzuen ekarpenak badaude: Genero-harremanak kanariarrek Kubara migratzeko prozesuan, 1902-1939 (2007), Dayron Oliva Hernández; Maskulinitatea ala maskulinitateak? Gizon-talde batekin egindako ikerketa, Habanako jai gay batean (2007), Andrey Hernández; Maskulinitatea eta sexualitatea. Bisexualitatea eta GIB/HIESA Habanako Plaza de la Revolución

udalerriko gizon-talde batean (2007), Mairim Valdés; Maskulinitateak eta arraza-erakuntzak Kuban, 1898-1912 (2008), Maikel Colón Pichardo; Kubatar beisbol-jokalarien emigrazioa Estatu Batuetara. Maskulinitateen sozializazioa Ipar Amerikako beisbol profesionalaren unibertsoan, 1940-1949 (2008), Daniel A. Fernández; Kubatar musikarien emigrazioa Estatu Batuetara: haien maskulinitateen sozializazioa, 1940-1949 (2009), Ernesto Díaz Calderín; Kubako galiziar gizonen maskulinitate-estereotipoak, 1919-1933 (2009), Yonnier Angulo Rodríguez; Gizon peto-petoak. Genero- eta sexu-harremanak sexu-estereotipoen eraikuntzan Kuba (2014), Neida Peñalver Díaz; Esango dutenaren beldur. Maskulinitatea eta sexualitatea (2016), Enmanuel George; besteak beste.

Musikak. Musikak, giza sorkuntzaren emaitza gisa, patriarkatuaren kultura-aginduak islatu ditu garai bakoitzean: zenbait garaitan emakume artistak baztertzea, genero-rolak eta -estereotipoak indartzea... Patriarkatua maitasunezko boleroetan zein reggaetonik zakarrenetan islatzen da. Zertan dira desberdinak? Hain zuzen, honetan: musikaren zenbait adierazpen garaikideak ikus-entzunezkoaren bidez berresten dira.

XX. mendeko azken hamarkadetatik aurrera, bideokliparen industria izugarri garatu da. Haren hizkuntza grafikoak bat egiten du letren zentzuarekin eta ideiarekin, eta eragin handia du belaunaldirik gazteenetan. Zenbait salbuespen errespetagarritan izan ezik, arte-adierazpen hori musikaren barruko sexismoaren isla handia izan da, eta diskriminazio eta indarkeria esplizitatu dituzten patroik hegemonikoak indartu ditu.

Gizarte-testuinguruaren eta kontsumitzen diren musika- eta bideoklip-moten arteko zuzeneko lotura hori gizarte-ehuneko fenomenorik konplexuenak ulertzeko adierazletzat har daiteke. Beraz, bide eman du maskulinitatei buruzko eztabaidan sakontzeko, gizonen nagusitasuna berresten duten edukiak aztertzeko, eta kode horiek alderantzikatzen saiatzeko, ikertzaileen eta erraztaileen zein sortzaileen sentsibilizazioan eta konpromiso sozialean oinarrituta.

Ildo horretan, RIAM maskulinitatearen eraikuntzaren inguruan historikoki eratuak arketipoak desmuntatzen ahalegindu da, abestiek berezko dituzten balioak, behin eta berriz erreproduzitzean jokabide eta jarrera horiek normalizatu dituztenak, desmuntatzen. Musikaren heziketa-osagaia erabili nahi izan du, genero-desberdintasunak edo indarkeria-moduak adierazten dituzten

irizpide horiek agerian uzteko; izan ere, besteak beste, emakumearen irudia sexu-objektu gisa erabiltzen da, eta, are kezkarriagoa, haurrak azaltzen dira izugarri sexistak eta misoginoak diren bideoklipen istorioetan, eta bideoklip horiek ez dira gutxi.

Musika oso baliagarria da gai hau gizonekin lantzeko, hainbat lantalde-motatan jorra baitaiteke. Oinarri horretatik abiatuta, 2011n, RIAMek parte hartu zuen Rochy Ameneiro BATU ZAITEZ abeslari eta artistak bultzatutako genero-indarkeriarik ezaren aldeko lehen bira nazionalean. Hartan, kontzertu baten esparrua eta genero-indarkeriari buruzko tailer bat harmoniaz lotzen zituen lan-metodologia garatu zuen, ospe handiko bideoklipak proiektatu eta haiei buruz eztabaidatzeko.

Rochyren proiektuari, Tod@s contracorriente izenekoari, aholkularitza- eta laguntza-lan sistematikoaz gain, David Blanco, Elain Morales eta beste gizonetako musikari batzuen esperientziak ere hartu behar dira kontuan; haiek, iritzi-lider gisa, indarkeriarik ezaren aldeko mezuak publiko handiengana zabaltzen lagundu dute.

Indarkeriarik ezaren aldeko bira nazionala

2012an, katedradun batek eta abeslari batek bat egin zuten lehen aldiz, Kubako feminismoaren 100 urteak ospatzeko eta genero-indarkeriari buruz sentsibilizatzeko bira nazional bat egiteko. Ekimenak, Rochy Ameneiro abeslariaren eta Julio César González Pagés maskulinitateei buruzko gaietan adituaren zuzendaritzapean, Tod@s contracorriente proiektuaren, RIAMen, KEFen, Kubako Musika Institutuaren eta Kubako beste erakunde eta elkarte batzuen ahaleginak batu zituen, eta Nazio Batuen Sistemaren (BATU ZAITEZ-Kuba kanpainaren baitan) eta COSUDEren laguntza jaso zuen, besteak beste.

Orduan sortutako metodologiak (harrezkero uharteko zenbait probintzian erabili izan denak) orekaz uztartzen ditu zeregin artistikoa, alde batetik, eta, beste batetik, kultura-industriek hedatzen dituzten feminitate- eta maskulinitate-irudi tradizionalen dekonstrukzioa, genero- eta eskubide-ikuspegitik jardunbide ontzat edo txartzat har daitezkeen ikus-entzunezko lanak proiektatuz.

Catherine Murphy estatubatuar errealizadoreak, David Blanco eta Rodrigo García musikariek, eta María Teresa Díaz espezialistak bat egin dute kontzertu-tailer ibiltariek; ondoz ondoko lau urtean, 8.000 pertsona inguruk hartu dute parte haietan.

BERDINTASUNAREN ALDEKO MUSIKARIAK

2012ko abenduaren 25ean, 800 bat lagun joan ziren Yara zinema-antzokira, Elain Moralesekin urteko azken EGUN LARANJA ospatzeko. Indarkeria matxistarik ezaren aldeko kontzertuetako lehena eskaini zuen musikariak, RIAMekin egiten duen lanaren baitan. Bere "Sin pasaje de regreso" bideokliparen bidez, Moralesek BATU ZAITEZ kanpainaren mezuak helarazi zizkien hedabideei, eta "El valiente no es violento" (Ausarta ez da biolentoa) ekimenari atxiki zitzaion.

2013az geroztik, RIAMen, Tod@s Contracorriente proiektuaren eta David Blanco musikariaren arteko elkarlanak aliantza bat sorrarazi zuen, eta horrek, urte hartan soilik, Kuba osoko milioi bat pertsona ingururi helarazi zizkion indarkeriarik ezaren aldeko mezuak. 2013tik 2015era bitartean, NBE Emakumeak-en UNFPAREN eta COSUDEren laguntzarekin, Davidek bost kontzertu handi egin zituen, BATU ZAITEZ kanpainarako bereziki; guztira, 7.000 lagunetik gora egon ziren kontzertuetan. Hainbat eztabaida-gunetan, tailerretan eta prentsa-topaketatan parte hartzeaz gain, iragarki, bideoklip eta kontzertu-dokumental bana egin zituen RIAMekin lankidetzan, "Ausarta ez da biolentoa" ekimenerako.

Iragarkiak, Habanako Zinema Latinoamerikar Berriaren Jaialdian BATU ZAITEZ kanpainaren baitan, "El silencio nos hace cómplices" (Isiltasunak konplize egiten gaitu) ekimenaren mezua eman zien 100.000 ikusleri baino gehiagori.

Kirola: Kirol-arloa RIAMen trebakuntza-lanerako euskarrietako bat izan da. Hedabideen estaldura zabalak eta komertzializazioak fenomeno soziokultural bihurtu dute kirola. Kirol-esparrua maskulinitateen sozializazioaren ardatz nagusietako bat da, alde batetik, haien adierazpen hegemonikoetan eta, beste batetik, gizonen kontutzat hartzen dituen ikuskera patriarkalean.

Antzina sortu zenetik, gizonen eremua izan zen kirola, eta, eremu horretan, lehiaketa-arauekin eta armaden arteko tregoa-garaietan, gerrarako euren gaitasun fisikoak erakusten zituzten. Ondorioz, indar- eta gizontasun-erakustaldien, indarkeriaren eta emakumeen bazterketaren arteko zuzeneko loturak finkatu ziren kirolean, testuinguru horretan ez baitzegoen emakumeentzako tokirik.

1896an, Pierre de Coubertin baroiak Aro Modernoko lehen joko olinpikoak antolatu zituen Atenasen, kirol-ekitaldi ospetsu hura berreskuratu nahian; joko haietan, emakumeek ez zuten atleta gisa parte hartu.

Denborak aurrera egin ahala, emakumeak esparru horretan parte hartzea eskatzen hasi ziren, baina, gainera, kirola aztertzeko zientziak eta espezialitateak sortu ziren, kronologia, domina-zerrendak eta atleten errekorrak alde batera utzita.

Kirola txikitatik egitea osasun onarekin eta garapen fisikoarekin lotzen zuten ikerlanak egin ziren, eta kirolaren soziologia sortu zen, bai eta interakzio-esparru garrantzitsu horren alderdiak ugaritu zituzten beste jakintza-arlo batzuk ere. Gaur egun, oso ohikoa da kirola diplomaziarekin eta gatazken ebazpenarekin lotuta dagoela entzutea, edo gizarte-egoera ahulean dauden komunitate eta taldeekin lan egiteko aproposa dela.

Ildo horretan, RIAMek hau izan du helburu: kirolaren heziketa-alderdia erabilteza, esparru horretan genero-desberdintasunak agerian uzten dituzten ikerketak egitea, eta balio positiboak eta herri-onurarako mezuak ematea.

2012az geroztik, maskulinitateei buruzko jardunaldi akademikoak eta sentsibilizazio-tailerrak egin dira, kirolaren eta kirolak gizona izaten ikasteko moduetan dituen eraginen inguruan. Ekitaldi horietan, askotariko gaiak erlazionatu eta jorratu dira. Hona hemen haietako batzuk: sexualitatea, indarkeria, aitatasuna, osasuna, aniztasuna, anabolizatzaileen erabilera, autozainketa, eta emakumeen eta pertsona guztien inklusioa, sexu-orientazioa eta genero-identitatea alde batera utzita. Gai horiek honako hauekin eztabaidatu dira: kirolariek, entrenatzaileekin, kultura fisikoko eskoletako irakasleekin, diziplina jakin batzuk irakasten dituzten pertsonekin, eta zenbait komunitatetako liderrekin eta protagonistekin.

Bestalde, gai horiei buruzko prestakuntza jaso duten eta kirolaren testuinguruan bertan sortu diren iritzi-liderrak ere hartu izan dira kontuan. Talde edo sektore sozial jakin batek aintzat hartutako pertsona batek onura publikoko mezuak ematen baditu, mezu horiek eragina izango dute talde horretan; beraz, ugaritu egiten dira haren arrazoibideek erantzun positiboak eta aldeko imitazio-ekintzak sortzeko aukerak. Gainera, kontuan izan behar da hedabideek eragin handia dutela kirol-eremuetan; kirol-jokoetara jo dezakete, indarkeria matxistarik ezarekiko sentsibilizatzeko eta haren aldeko mezuak emateko, eta joko garbia, kirol integratzailea eta bake-kultura sustatzen dituzten kirolarien diskurtsoaren berri eman dezakete.

BATU ZAITEZ Kirolari Sarea

RIAMek, Kubako NBSrekin eta NBE Emakumeak-ekin elkarlanean, sare-lanean jardun izan du Kubako eta beste herrialde batzuetako kirolariek, eta, 2013ko abuztuaren 30ean, lan horretan lortutako esperientziaren emaitza aurkeztu zuen: BATU ZAITEZ Kirolari Sarea.

Ekimen horrek bat egin zuen Panaman 2011n sortutako BATU ZAITEZ Artista Sarearekin, artistek eta kirolariek egunero jasaten dugun genero-indarkeriarekiko kontzientzia publikoa sortzeko izaten duten zeregina azaleratzeko.

Azken urteetan, sentsibilizazio-tailerrak eta bake-kultura baten aldeko kirol-trukeak egin izan dira. Aipatzekoa da zenbait kirolarik erakutsitako lidergoa. Esate baterako, Ismael Borrero borrokalaria azaroaren 25ari, hots, Emakumearen kontrako indarkeria desagerrarazteko nazioarteko egunari, eskaini zion 2014ko Erdialdeko Amerikako eta Karibeko Jokoetan, Veracruz, lortutako urrezko domina. Víctor Moya altuera-jauziko munduko txapelkunak ere konpromisoa erakutsi du behin eta berriz. Izan ere, bere irudia eman die kirol-argitalpenetan genero-indarkeriaren kontra zabaldutako mezuei, eta arte-eta eztabaida-ekimenetan hartu du parte eremu publikoetan.

FUTBOLA LARANJAZ JANZTEN DA

20 urtez azpiko futbol-talde nazionalaren sentsibilizazioari eta konpromisoari esker, kanpainaren mezuak Turkiako munduko futbol-txapelketaraino eramatea lortu zuen RIAMek. Baina, horrez gain, 2013tik 2014ra bitartean, bi tailer antolatu zituen Manuel Fajardo Kultura Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Unibertsitateko ikasle eta irakasleentzat, eta beste zenbait tailer kirolarientzat: “No al acosar sexual contra la mujer” (Ez emakumearen kontrako sexu-jazarpenari) eta “Cultura y deporte: ÚNETE por la No violencia” (Kultura eta kirola: BATU ZAITEZ indarkeriarik ezaren alde). Gainera, beste hausnarketa- eta eztabaida-gune batzuk sustatu zituen, bai Maskulinitateei buruzko Ikerketa Jardunaldietan, bai kirol-topaketa garrantzitsuetan, hala nola unibertsitate arteko kopa laranjetan eta emakumeen eta neskatilen kontrako indarkeriaren aurkako futbol-maratoian. Azken horretan, 80 emakumezko futbolari zenbait orduz aritu ziren futbolean.

Bestalde, futbolaz gain, beste kirol batzuek ere aukera eman zuten sentsibilizazio-tailerrak egiteko, nerabeentzat eta unibertsitate-ikasle gazteentzat. Tailer horietan, gai hauek jorratu ziren, besteak beste: sexu-jazarpena unibertsitateetan, indarkeria matxista eta emakumeen erkarpenak agerian jartzeko garrantzia.

Ekintza horiek COCO irratiarekin eta Telerebelde telebista nazionalako kirol-kanalarekin elkarlan estuan gauzatu ziren. Hain zuzen, 2014an, Kubako Futbol Txapelketa Nazionalako partida batean, Habanako futbol-taldeak BATU ZAITEZ kanpainako tolesgarri laranja eman zizkion Holguín probintziako bere aurkariari, eta telebista-kanal horrek erakutsi zituen irudiak.

Niurka Talancón kazetariaren eta RIAMen parte-hartze aktiboarekin, Tele-rebeldek estaldura zabala eman zion BATU ZAITEZ Kirolari Sarearen lanari. Gainera, David Blanco BATU ZAITEZ artistaren “Lánzate” bideoklipa sartu zuen 2014ko Munduko Futbol Txapelketaren telebista-emanaldien programazioan.

Arraza: Gizon-taldeak sentzibilizatzeko prozesuen konplexutasuna dela eta, RIAMek hainbat zehar-gai sartu zituen bere lan-lerroetan, hala nola gure eguneroko alderdi askotan dagoen arrazismo diskurtsiboa. Bere horretan jarraitzen duen arrazismoa da, gizarte kolonial eta esklabista baten herentziaren ezaugarrien ondorioz, eta, zoritxarrez, menderatze sozialeko modu hierarkizatuak ezartzea bideratzen du, generoari eta arrazari dagokienez.

Gizarte-sailkapeneko patroik horrek bere horretan jarraitzen du, subliminal eta esplizitu. Ondorioz, genero- eta arraza-diskriminazioen bolada gero eta handiagoa kontuan hartu da politika publikoak eta gizon-taldeekin lan egiteko jardunbide onak zehaztean, eta gizonak indarkeriazko zenbait jarrerarekin erlazionatuak izateko moduak aztertzean. Horrek zera esan nahi du: Kubako jardunbide arrazistek eragindako patroik sozialak aintzat hartzen dituen zenbait lan-dinamika sortzean, gure bilakaera historikoa eta gaur egungo egoera izan behar ditugula kontuan, bai eta legeen eta politiken bidez arautzeko beharrien eta errealitatearen artean dagoen aldea ere.

Maskulinitatea, legitimatzeko, zenbait gizarte- eta kultura-arau bete behar dituen kategoria bat da, eta horrek arrazetan oinarritutako botere-harremanekin lotutako ereduak modu nabarmen eta,aldi berean, subjektibo batean eratzeko eragiten du. Ondorioz, Kuban onartutako larruazalaren kolorearen ideiak erlazio konplexua ezartzen du indarkeria-mota jakin bat egiten duten eta,aldi berean, indarkeria horren biktimak diren pertsonak identifikatzean. Horri dagokionez, gure gizartea ez dago arrazak gure eguneroko bizitzan dituen ondorioekiko guztiz sentzibilizatuta. Arrazoi historikoak direla eta, gure gizartean zuria edo beltza izateak ez du esanahi berezirik maila politikoan eta ideologikoan.

Hala ere, oso gutxi ematen diote gai horri garrantzia, eta ez dira gauza Kuban zuria izatea nagusitasun-sinonimoa dela onartzeko. Nahikoa aztarna historiko ditugu eta, beraz, agerian jar dezakegu maskulinitatearen eta arrazaren arteko loturak berekin duen konplexutasuna. Hortaz, berdintasunerako heziketak ere gure errealitateko arraza-konnotazioak hartu behar ditu aintzat; behintzat, haien oinarriak eta egoera horretan sortzen diren harreman patriarkalak nabarmendu behar ditu.

Zaila da gaur egungo Kuban afrikar ondorengo gizona edo emakumea izatea? Gizon izateko eta emakume izateko modu asko daudela onartuta ere, ezkutu ezin dugun topiko bat da.

Beraz, kontuan hartzen badugu maskulinitateen kategoriaz ez-esentzialistak lotura estua duela beste kategoriaz batzuekin, hala nola arrazarekin, lan-jarribide egokiak sar ditzakegu, honako alderdi hauek aintzat hartuko dituztenak:

- Maskulinitate-ereduen eraketarekin lotutako arraza-estereotipoak hautematea.
- Kubako beltzen historia sozialaren funtsezko alderdiak zehaztea, gure identitatearen oinarriko zati gisa.
- Gizonei eta emakumei euren larruazalaren koloreagatik rola eta estereotipoak esleitzeari aurre egitea, erantzukizunez, rol eta estereotipo horietako bakoitzak konnotazio negatiboak dituela kontuan hartuta.
- Partaidetza-dinamikak sustatzea, maskulinitatearen eraketaren funtsezko elementuei eta horiek arraza- eta genero-estereotipoekin duten loturari buruzko ikuspuntu anitzak entzuteko aukera emateko.

Ausarta ez da biolentoa

NBSaren eta Maskulinitateen Sare Iberoamerikar eta Afrikarraren arteko aliantzari esker, Kuba izan zen, Latinoamerikako eta Karibeko herrialdeen artean, Ausarta ez da biolentoa kanpaina aurkezten lehena. NBE Emakumeak-en ekimenez sortu zen kanpaina hori, gizon gazteekin lantzeko.

2013ko apirilaren 25ean Casa del Alba Cultural kultur etxean antolatutako tailer batean ezagutzera eman zuenetik, Kubako zenbait probintziako tailerretara, kontzertuetara eta beste sentsibilizazio-ekintza batzuetara eraman zuen RIAMek, beste proiektu batzuekin elkarlanean; esate baterako, Tod@s Contracorriente proiektuarekin. Guztira, 6.053 pertsona sentsibilizatu zituen ekimenak; haietatik % 74 gazteak eta nerabeak ziren, eta % 53 gizonak. Sentsibilizazio-ekintza haietan, gai hauek jorratu ziren, erlazionatuta: generoa, maskulinitateak, indarkeria matxistaren hirukoa, inklusioa eta pertsona guztien eskubideak, gizarte- eta giza kondizioak alde batera utzita.

2014. urtearen hasieran, BATU ZAITEZ Kanpainaren Erabile Sozial Aliantzen Topaketan, Kuban, Ban Ki-moon NBEko orduko zuzendari nagusiarekin, RIAMen lana aintzatetsia izan zen.

RIAMek Egun Laranja sustatzen du

2012ko abuztuaren 25ean, RIAMeko sei kide bizikletaz joan ziren Soria, Gamarra, la Rufina, San Pedro eta Loma de la Candela landa-herrietara, Mayabeque probintzian, Egun Laranja Kuban lehen aldiz ospatzeko. Kamiseta laranja

jantzita, zenbait lursail bisitatu zituzten, landa-guneetan indarkeria saihestea garrantzitsua dela azaltzeko; izan ere, horrelako guneetan, emakumeak eta neskak ahulezia-egoeran daude kontzeptu matxistekiko.

Ekimen horren ondoren, 2013. urteari begira, jarduera-maila izugarri handitu zen RIAMen Facebookeko orrialdean, eta jarduera-egitarau zabala prestatu zen, Kuban hilabetez Egun Laranja ospatzeko. Horretarako, RIAMek tailerrak, kontzertuak, hitzaldiak, eta askotariko eragin- eta eztabaida-esparruak antolatu zituen; 3.560 pertsonak hartu zuten parte haietan (% 65 gazteak eta nerabeak izan ziren).

Halaber, hedabideetatik ere, bereziki telebista nazionaletik, eragin-lan handia egin zuen RIAMek. 2103an, Sareko aktibistak bederatzita telebista-saiotan azaldu ziren, bi milioi ikusleren baino gehiagoren aurrean.

Ekintzarako tresnak

Oinarrizko glosarioa²⁹

Androzentrismoa: Maskulinoa gauza guztien neurritzat eta gizatasunaren adierazpen orokortzat hartzen duen hitza; beste errealitate batzuk ezkututzen ditu, besteak beste emakumeena.

Baiezko ekintzak: Talde jakin bat guztiz gizarteratzea bermatzeko eta aukera-desberdintasunak zuzentzeko estrategiak, aldi baterakoak. Adibidea: parte-hartze politikoko kuotak.

Genero-esleipena: Familiak eta gizarteak jaio berriari esleitzen dioten sailkapena, haren anatomiarik eta ezaugarri biologikoei erreparatu ondoren. Esleipen hori ez onartzeak gizarte-bazterketa eragin dezake.

Genero-auditoria: Proiektu eta ekintza publikoak aztertzeko eta kontrolatzeko tresnak. Erakundeek genero-ikuspegia lan- eta antolaketa-eremuetan modu praktikoan eta eraginkortasunez txertatzen ikas dezaten sustatzeko mekanismoa.

Genero-azterketa: Tresna-multzoa, emakumeen eta gizonen beharrian, interes eta arazoak eta haien artean sortzen diren harremanak identifikatzeko, bai eta ekintzak sustatzeko, proiektuak proposatzeko, eta ekintza eta proiektu horien eragina neurtzeko oztopoak identifikatzeko ere.

29 Kubako Emakumeen 2017ko Agendan argitaratutako glosariotik ateratako terminoak. Agenda hori Kubako NBSaren komunikazio-produktu bat da, COSUDEren laguntza duena.

Genero-arrakalak: Emakumeek baliabide, zerbitzu, aukera eta garapen-onuretan parte hartzeko eta haiek eskuratzeko eta kontrolatzeko dituzten desabantailak, gizonekiko.

Baterako hezkuntza: Hezkuntzan esku hartzeko proiektua, pertsonen garapen integrala izatea eta gaitasunak bereganatzea lortu nahi duena, sexua eta generoa alde batera utzita.

Genero-kontzientzia: Emakumeen eta gizonen bizitza-esperientzia, itxaropen eta beharizanen arteko aldeak hautemateko eta aukera-desberdintasunaren aurka egiteko gaitasuna.

Komunikazio inklusibo/ez-sexista: Emakumeak diskriminatzen dituen eta haien askatasunaren eta duintasunaren aurka egiten duten kode edo esanahi sexistarik gabeko komunikazioa, hedabide masiboek edo hedabide berriek ahoz, idatziz edo bisualki erabiltzen dutena.

Generoaren gizarte-erakuntza: Gizarteak maskulinoztat eta femeninoztat hartzen dituen ezaugarriak, eta gizarteak ematen dien balioa.

Genero-kontratu soziala: Gizonen eta emakumeen arteko harremanak arautzen dituzten jarraibide inplizitu eta esplizituak, batzuei eta besteei lan, balio, erantzukizun eta betebeharrak desberdinak ematen dizkietenak.

Etxeko erantzunkidetasuna: Berdintasun-politiken bidez sustatutako ekimena, emakumeek bizitza publikoan parte-hartze osoa izan dezaten, etxeko jardueretan gizonen erantzunkidetasuna sustatuz.

Bake-kultura: Indarkeriari uko egiten dioten eta gatazkak prebenitzen dituzten balio, jarrera eta jokabideen multzoa. Gatazken sorburuetan jartzen da arreta, arazoak elkarriketaren eta negoziazioaren bidez konpontzeko. Gainera, bizikidetzaren soziokulturalaren modu bat da, giza-eskubideetan, garapen iraunkorrean, justizian, aniztasunaren errespetuan, genero-berdintasunean, demokrazian, pobrezia gainditzean eta elkartasunean oinarritua.

Demokrazia paritarioa: Emakumeek eta gizonek erabaki politikoko prozesuetan parte-hartze orekatua izateko proposamena.

Genero-demokrazia: Emakumeen eskubideak eta emakume-elkarteak sendotzeko prozesuak azpimarratzen dituen proposamen politikoa, gaur egungo feminismoarena, emakumeen interesak eta beharriak ordezkatuak direla bermatzeko.

Sexu- eta ugaltze-eskubideak: Pertsona guztiek sexu-bizitza segurua eta atsegina izateko, jaiotza-kopurua eta haien arteko denbora-tarteak askatasunez eta arduraz erabakitzeko, horretarako informazioa eta baliabideak izateko, eta sexu- eta ugaltze-osasunaren mailarik handiena lortzeko oinarritzko eskubidea. Besteak beste, giza eskubideei buruzko dokumentuetan jasotakoaren arabera, ugalketari buruzko erabakiak diskriminaziorik edo indarkeriarik gabe hartzeko eskubidea hartzen du barne.

Garapen iraunkorra: Egungo belaunaldiaren beharrianak bermatzean hurrengo belaunaldien beharrianak asetzeko ahalmenak arriskuan jartzen ez dituen garapena.

Diskriminazioa: Lan-harremanetako bereizketa, bazterketa edo lehentasuna generoan, arrazan, kolorean, sexuan, erlijioan, sindikazioan, iritzi politikoan edo arlo sozialeko edo ekonomikoko berdintasunaren aurka dagoen beste edozeinetan oinarritua. Diskriminazioa honelakoa izan daiteke:

- **Zuzenekoa:** Antzeko egoeretan pertsona batek beste batek baino tratu txarragoa jasotzea, genero-estereotipoak edo bestelako estereotipoak direla eta.
- **Zeharkakoa:** Itxuraz neutrala den xedapen, irizpide edo jardunbide batek desabantailak sortzen dizkionean pertsona bati edo gehiagori, generoagatik edo beste arrazoi batzuegatik.
- **Positiboa:** Partaidetzarako kuotak ezartzen dituen formula, gizonak eta emakumeek presentzia eta parte-hartze bera izan dezaten gizarte-bizitzako edozein esparrutan.
- **Askotarikoa:** Pertsona batek edo pertsona-talde batek aldi berean diskriminazio-mota bat baino gehiago jasaten dituzenean, arrazoa generoa, arraza, kolorea, jatorri etnikoa, hizkuntza, erlijioa, filiazio politikoa, desgaitasuna edo sexu-orientazioa dela, edo beste edozein baldintza edo egoera pertsonal edo sozialengatik.

Sexu-aniztasuna: Sexualitateari bere alderdi biologiko, psikologiko eta sozial guztietan lotutako eraketa, pertzepzio, jardunbide eta subjektibotasunen multzo zabala. Multzo hori desberdina izango da pertsona bakoitzarengan eta kultura bakoitzean, sexualtzat hartzen den orenen faktore biologikoen, kultura-arauen eta banakako konfigurazioen arabera. Askotariko desioak eta konponbide-motak, gizakien arteko harreman afektibo eta erotikoetan.

- **Sexu-orientazioa:** Bikotekide sexuala eta sentimentala aukeratzeari dago-kio. Oro har, hiru motatan sailkatzen da: heterosexuala (beste sexuko pertsonak aukeratzeko), homosexuala (sexu bereko pertsonak aukeratzeko) eta bisexuala (bi sexu-etako edozeinetako pertsonak aukeratzeko). Sexu-orientazioa genero-identitatearen desberdina denez, trans pertsonak homosexualak, heterosexualak edo bisexualak izan daitezke, bikotekide afektiboa eta sexuala aukeratzeko.
- **Genero-identitatea:** Pertsona bakoitzak bere generoaz duen ikuskera. Ez du zertan izan jaiotzean zuen generoaren berdina. Bakoitzak kontzienteki edo oharkabean barneratzen dituen mekanismoak; pentsatzeko, sentitze-ko eta jarduteko modu espezifikoak, pertsona horiek euren bizitzan zehar izango dituzten rolak zehazten dituztenak.
- **Lesbianak:** Beste emakume batzuegatik erakarpen emozionala, afektiboa eta sexuala sentitzen duten emakumeak. Beste edozein pertsonak bezala, bikotekideak maitatzeko, haiekin konpromiso afektiboa luzaroan izateko eta harremanak izateko gaitasuna dutenak. Batzuek keinu edo jarrera maskulinoak badituzte ere, genero-identitate femeninoa duten emakumeak dira.
- **Gayak:** Beste gizon batzuegatik erakarpen emozionala, afektiboa eta sexuala sentitzen duten gizonak. Beste edozein pertsonak bezala, bikotekideak maitatzeko, haiekin konpromiso afektiboa luzaroan izateko eta harremanak izateko gaitasuna dutenak. Batzuek keinu edo jarrera femeninoak badituzte ere, genero-identitate maskulinoa duten gizonak dira.
- **Bisexualak:** Bikotekide sexualak eta sentimentalak aukeratzeko sexu baten edo bestearen aldeko lehentasun nabaria ez duten gizonak eta emakumeak. Beste edozein pertsonak bezala, bikotekideak maitatzeko, haiekin konpromiso afektiboa luzaroan izateko eta harremanak izateko gaitasuna dute.
- **Intersexualak:** Aldi berean eta maila desberdinetan organo maskulinoak eta femeninoak dituzten pertsonak. Haien genero-identitatea maskulinoa edo femeninoa izan daiteke, eta ez du zertan bat etorri gorputz-anatomiarekin. Oro har, sexu bat esleitzen zaie jaiotza-erregistroan, eta sexu hori bat etor daiteke, edo ez, haien genero-identitatearekin.
- **Transexualak:** Sexu biologikoaren desberdina den genero-identitatea duten gizonak eta emakumeak. **Trans emakumeak** daude, anatomikoki gizon jaiotzen diren emakume sentitzen diren eta emakume gisa bizi diren pertsonak; eta **trans gizonak**, anatomikoki emakume jaiotzen diren gizon sentitzen diren eta gizon gisa bizi diren pertsonak. Transexualek euren genero-identitatearekin bat ez datozen genitalekiko higuin handia sentitzen dute, eta, hortaz, sexu-berregokitzapenerako kirurgiara jo nahi izaten dute. Gainera, bigarren

mailako sexu-ezaugarriak ere (bularrak, aurpegiko biloa eta ahots-tonua, besteak beste) euren genero-identitateara egokitu nahi izaten dituzte.

- **Transgeneroak:** Sexu biologikoarekin bat ez datorren genero-identitatea duten gizonak eta emakumeak. Transexualek ez bezala, ez dute hain higuin handia sentitzen euren genitalekiko, eta ez dute kirurgia berreraikitzailea behar izaten; euren genero-identitatearen arabera bizi eta jardun nahi izaten dute. Askotan, bigarren mailako sexu-ezaugarriak neurri handiagoan edo txikiagoan aldatu nahi izaten dituzte, besterik ez.
- **Trabestismoa:** Biologikoa ez den sexuko arropak janzteko jokabidea da. Edozein sexu-orientaziotako pertsona askok eta hainbat egoeratan jotzen dute trabestismora. Ia beti, baina ez ezinbestean, sexu biologikoaren desberdina den genero-identitatea dutenek jotze dute.
- **Transformismoa:** Beste sexukoak bezala janztea, arte- edota ikuskizun-helburuekin. Oro har, emakumez jantzitako gizonak dira, baina alderantziz ere gertatzen da. Transformistak homosexualak, bisexualak, heterosexualak edo trans izan daitezke. Transformismoa jokabide bat baino ez da, eta edozeinek izan dezake.

Lanaren sexu-banaketa: Ordaindutako lana eta ordaindu gabekoa hurrenez hurren gizonen eta emakumeen artean banatzea da, bizitza pribatuan zein publikoan, genero-rol tradizionalen arabera.

Hezkuntza ez-sexista: Genero-estereotipoak identifikatzen eta baztertzen dituzten, hizkuntza ez-sexista erabiltzen duten eta genero-ikuspegian oinarritutako hezkuntza-legeak sustatzen dituzten hezkuntza-programak.

Estereotipoak: Zenbait ekintza sozial justifikatzen dituzten eta balio-sistema bat babesten duten ideologiak sortzen edota mantentzen laguntzen duten eraketa edo entitate sozialak.

Genero-estereotipoak: Gizarte- eta kultura-inguruneak generoaren arabera ezarritako ideia, aurreiritzi, sinesmen eta iritzi sinplifikatuak eta aurrez sortuak dira. Gizonen eta emakumeen funtzioei eta jokabideei buruzkoak izaten dira, baita generoari dagokion sexu-jokabideari buruzkoak ere. Hainbeste esan eta entzuten direnez, naturalizat hartzen dira.

Eskubide-ikuspegia: Giza garapenerako esparru kontzeptuala, giza eskubideen nazioarteko estandarretan oinarritutako arauak dituen, eta pertsonen eskubiak sustatzeko eta babesteko helburua duena.

Falozentrismoa: Gizonak emakumeei nagusitzea sinbolikoki zein errealitatean bermatzen duten gizarteen ezaugarria. Haren oinarria sexu-organo maskulinoa (faloa) giza sorkuntzaren zentrotzat hartzea da.

Generoa: Denboraren, gizartearen eta lekuaren arabera aldatzen den eraketa soziokulturala, gizarte jakin batean maskulinoa eta femeninoa denaren ezaugarri bereizgarriak zehazten dituena. Halaber, kategoria analitiko bat da, tesuinguru jakin batean gizonen eta emakumeen artean sortzen diren harremanez ohartzeko aukera ematen duena. Kultura-ezaugarria.

Homofobia: Heterosexualak ez diren sexu-lehentasanak dituzten pertsonen kontrako gorroto-, arbuio-, higuin-, aurreiritzi- eta diskriminazio-sentimenduak.

Heteronormatibitatea: Orientazio heterosexuala sozialki eta kulturalki onartutako sexu-jokabide bakartzat hartzen duen gizarte-arau bat deskribatzeko edo identifikatzeko hitza.

Genero-adierazleak: Gizonen eta emakumeen egoera erlatiboa eta denboraren joanean egoera horretan gertatzen diren aldaketak zehazteko balio duten neurri, datu, gertaera edo pertzepzioak.

Genero-desberdintasunaren indizea: Gizonen eta emakumeen lorpenen arteko desberdintasunak eta giza garapenaren galera lotzen dituen neurri konposatua. Hiru alderdi hauetan lotzen ditu: ugaltze-osasuna, ahalduntzea eta lan-merkatua.

Hizkuntza sexista: Emakumeen diskriminazio-egoera indartzen duten, mendekotasun-harremanak legitimatzen eta iraunarazten dituzten, estereotipoak sustatzen dituzten eta femeninoa den oro ikusezin bihurtzen duten adierazpen-moduak. Gaztelaniaz, maskulinoa generiko gisa erabiltzeak agerian uzten du sexismoa hizkuntzan.

Matriarkatua: Bizitza publikoko zein pribatuko funtsezko alderdietan nagusitasuna emakumeei ematen dieten gizarteei dagokien hitza. Gizartea antolatze mekanismo bat da, eta, hartan, emakumeak ditu, autoritate amatiar gisa, ondasunak banatzeko ardura eta taldearekiko erantzukizunak.

Misandria: Gizonen kontrako gorrotoa edo aurreiritzia, edo maskulinitate-eredu jakin baten kontrakoa, gizonak izate hutsagatik.

Misoginia: Joera ideologikoa eta psikologikoa, ezaugarri nagusi gisa emakumeen eta femeninotzat hartzen den ororen kontrako gutxiespena eta gorrotoa dituena. Gorroto eta gutxiespen horiek emakumeen kontrako diskriminaziozko eta indarkeriazko ekintzen bidez erakusten dira.

Generoarekiko negatiboa: Politika publikoetan genero-desberdintasunak iraunarazten dituen ikuspegia, ezarritako garapen-helburuak lortzeko erabiltzen dena.

Patriarkatua: Emakumeen eta femeninoa denaren gainetik gizonei eta maskulinoa den orori pribilegioak ematen dizkien gizarte-antolaketa. Nagusitasun maskulinoaren instituzionalizazioa da, eta genero-desberdintasunaren oinarria.

Parte-hartzea: Herritarren eskubidea, euren ongizatean eragina duten prozesuei buruz erabakitzekoa. Funtsezkoa da berdintasunaren helburuak eragin-kortasunez eta iraunkortasunez lortzeko, orokorrean, baina baita, bereziki, generoaren arloan ere.

Indarkeriaren prebentzioa: Indarkeriazko ekintzak gertatzea eragozteko ekimeneen eta neurrien multzoa. Haien helburu nagusiak hauek dira: indarkeriazko ekintzen ondorioz narriadura fisikoa, intelektuala, psikikoa edo sentsoriala ez gertatzea, eta narriadura horiek biktimaren desgaitasuna edo mugaketa funtzionala ez eragitea.

Genero-ikuspegia: Generoak pertsonen aukeretan, roletan eta interakzio sozialetan zer-nolako eragina duen aztertzeko tresna kontzeptuala. Besteak beste, programak, politikak eta erakundeak genero-ikuspegian oinarrituta antolatzen diren aukera ematen du. Pertsonak txikitatik hezteko erabiltzen diren estereotipoak zalantzan jarri eta bestelako sozializazio- eta harreman-edukiak sortzeko aukera sustatzen du.

Familia-plangintza: Pertsonaren edo bikotearen erabaki kontzientea eta borondatezkoa, seme-alaben kopurua eta jaiotzen arteko denbora-tartea zehazteko.

Genero-harremanak: Gizarte-harremanen azpimultzoa, emakumeek eta gizonek gizarte-talde jakin batean zer posizio eta identitate dituzten zehazten duena, eta boterea nahiz baliabideen erabilera eta kontrola nola banatzen diren adierazten duena.

Genero-rolak: Emakumeei eta gizonei sozialki esleitutako jokabide, lan eta ardurak. Gizarteak hautemandako zenbait desberdintasunen arabera esleitzen zaizkie horiek. Pertsonak euren sexuaren arabera nola pentsatu, jokatu eta sentitu behar duten zehazten dute desberdintasun horiek. Genero-rolak aldatu egin daitezke, eta, izan ere, aldatu egiten dira, norberaren erabakien arabera eta gertakari eta prozesu espezifikoek erantzunez; esaterako, emakumeen ahalduntzearen eta maskulinitatearen aldaketaren ondorioz.

Sexu- eta ugaltze-osasuna: Sexualitatearekin lotutako ongizate fisiko, mental eta sozialeko egoera orokorra. Sexu-bizitza ona, atsegingarria eta segurua

izateko gaitasuna. Sexu-bizitza horrek ezaugarri hauek ditu: indarkeriarik eta diskriminaziorik gabea da, eta ugaltzeko arriskurik gabea, eta noiz ugaltzea erabakitzeko askatasuna ematen du. Ugaltze-osasun eta -ongizate ona izaten laguntzen duten metodo, teknika eta zerbitzuak, ugaltze-osasunarekin lotutako arazoak saihestu eta ebazten dituztenak.

Generoarekiko sentikorra: Generoa garapen-helburuak lortzeko bidetzat hartzen duten politika publikoak.

Laneko segregazioa: Emakumeak eta gizonak jarduera- eta enplegu-mota eta -maila desberdinetan egotea. Oro har, emakumeak gizonak baino okupazio gutxiagotan daude (segregazio horizontala), baita behe-mailako lanpostuetan ere (segregazio bertikala).

Genero-sistema: Rol tradizionalak, tradizioz emakumeei eta gizonari esleitu zaizkienak, iraunarazten dituzten egitura sozioekonomikoak eta politikoak.

Genero-transbersalizazioa: Genero-ikuspegia txertatzea politika publikoak formulatzeko, gauzatzeko eta ebaluatzeko prozesuko maila eta etapa guztietan, emakumeek eta gizonen onura bera lor dezaten baliabideen banaketaren eraginetik, eta genero-desberdintasunak iraun ez dezan.

Genero-teoria: Haren tresna nagusia sexuaren eta generoaren arteko aldeak analizatzea da. Giza zibilizazioa osatzen duten gizarteetan genero-harremanak askotarikoak direla nabarmentzea du helburu. Horretarako, emakumeen eta gizonen genero-identitatea erakusten du, gizarte bakoitzeko patroia eta ohitura kulturalen arabera.

Ganorazko lana: Enplegua izatea, askatasun-, berdintasun-, segurtasun- eta duintasun-baldintzetan. Honako hau dakar berekin: lan produktiboko aukerak, familiek bidezko diru-sarrerak eta gizarte-babesa izan ditzaten; garapen pertsonaleko eta gizarteratzeko itxaropen hobeak; eta pertsonen euren kezkek adierazteko, antolatze eta euren bizitzan eragina duten erabakietan parte hartzeko askatasuna. Aukera- eta tratu-berdintasuna emakume eta gizon guztientzat.

Gutzizko lana: Lanaren sexu-banaketa agerian jartzen duen adierazlea. Balioa ematen dio ordaindu gabeko etxeko lanari, eta haren ekarpen ekonomikoa neurtu eta lan ordainduari gehitzen dio. Gutzizko lanaren adierazleari esker, gizonen eta emakumeen ekarpen ekonomikoa alderatu daiteke.

Biktimizazioa: Diskriminazioa edo indarkeria jasateagatik salaketa jarri duen pertsonari ematen zaion tratu txarra edo tratu bereizia. Pertsonaren egoera zalantzan jartzen denean eta bere biktima-rola behin eta berri bizi behartzen denean gertatzen da biktimizazioa. Birbiktimizazio ere esaten zaio.

Gizarte-ahulezia: Ahulezia-mota bat zentzu zabalean deskribatzeko erabiltzen den terminoa. Gizarte-egoera larrian dauden pertsona, kolektibo edo gizartearen eskubideen galera dakar berekin.

Nabigatzen

Maskulinitateen Sare Iberoamerikarra eta Afrikarra

<https://redmasculinidades.blogspot.com>

RIAMen bloga, sareak hasieratik egin duen lan guztiari buruzko informazioa duena. RIAMen Facebookeko orrialdearekin (<https://m.facebook.com/RedIberoamericanaYAfricaDeMasculinidadesRiam>) lotuta, jardueren deialdiak argitaratzen ditu, baita maskulinitateei buruzko lan akademikoak eta kazetari-tza-artikuluak ere.

Somos Más

<https://www.facebook.com/somosmas.unete>

Genero-indarkeriarik ezaren aldeko komunitatea, Eragin Nazionalako Genero Berdintasuna Plataformak (PEGIN) sortua, NBSaren eta COSUDEren baterako ekimen baten baitan, BATU ZAITEZ kanpainaren esparruan.

Eres Más kanpaina nazionalen inspiratuta, komunitateak hainbat elkarteren eta proiekturen ahaleginak biltzen ditu komunikazio-esparru batean; hona hemen: Emakumearen Argialetxea, CENESEX, OAR, UNJC, RIAM, eta Palomas, Todas Contracorriente eta Todas proiektuak.

Kanpainak

Eres Más kanpaina

<https://www.facebook.com/centroromerocuba/>

Idazkari nagusiaren BATU ZAITEZ kanpaina, emakumeen kontrako indarkeria geldiarazteko.

<http://www.unwomen.org/>

Indarrak batzeko eskatzen die gobernuari, gizarte zibilari, emakume-elkarteei, gazteei, sektore pribatuari, hedabideei eta NBEaren sistema osoari, mundu-mailako pandemia honen, hots, genero-indarkeriaren, kontra egiteko.

Heforshe

<http://www.heforshe.org/en>

Genero-berdintasunaren aldeko mugimendu solidarioa, NBE Emakumeak-ek garatua. Hau lortu nahi du: gizonak emakumeen eta nesken kontrako diskriminazioarekiko eta edozein indarkeria-motarekiko kontzientziatzea, eta haiek desagerrarazteko erantzukizuna dutela onartzea.

Afrikar ondorengo pertsonen nazioarteko hamarkada

<http://www.un.org/es/events/africandescentdecade/>

NBEko Batzar Nagusiak 2015-2024 aldirako onartua, afrikar ondorengo pertsonak gizarteratzeko eta arrazismoaren, arraza-diskriminazioaren, xenofobiaren eta beste intolerantzia-modu batzuen aurka egiteko ekintzak sustatzea proposatzen du.

Free&Equal/Libres e iguales

<https://www.unfe.org/es>

Lesbiana, gay, bisexual eta transgeneroen (LGBT) berdintasunaren aldeko heziketa-kanpaina publikoa, mundu-mailakoa. Indarkeriarekiko eta diskriminazio homofobiko eta transfobikoekiko kontzientzia-maila handiagoa sortzea eta mundu osoko LGBT pertsonen eskubideekiko errespetua handitzea proposatzen du.

2030erako aktibismo laranja

Eskubideak, berdintasuna eta gizarteratzea Garapen Iraunkorrerako 2030eko Agendan dauden gaietako batzuk dira. Nazio Batuetako 193 estatu kideek onartu zuten agenda hori, 2015eko irailaren 25ean.

Garapen iraunkorreko 17 helbururekin (GIH) eta 169 xederekin, ibilbide berriak bidezkoa, zuzena, tolerantza, irekia eta sozialki inklusiboa den mundu baten alde egiten du, eta uste du garapen iraunkorra lortzeko ezinbestekoa dela genero-berdintasuna bermatzea eta emakume eta neska guztiek ahaldundutzea (5. GIH).

Horretarako, behar-beharrezkoa izango da emakumeek eta gizonek parte hartzea. Ez da nahikoa emakumeek euren autonomiaren alde egitea; gizonok ere kultura patriarkalaren funtsa zein den ulertu behar dugu, eta benetan berdinezaleak diren gizarteak lortzeko beharrezkoak diren aldaketak landu, nor bere aldetik.

2017an, RIAMek bat egin zuen BATU ZAITEZ 2030 kanpainarekin. Kanpaina horrek, agenda berriarekin bat etorritz, jarraipena ematen dio NBek 2008an emakumeen eta nesken kontrako indarkeria desagerrarazteko abian jarritako BATU ZAITEZ kanpainari.

Zer egin dezakegu?

- Garapen Iraunkorrerako 2030eko Agenda ezagutu eta gizonok nola lagundu dezakegun zehaztu, bai pertsonalki, bai gure komunitatean, proiektuan, sarean, erakundeetan edo instituzioan.
- Genero-berdintasunarekiko, indarkeria matxistaren kontrako eta pertsona guztien eskubideak errespetatzeko konpromiso pertsonala hartu (pertsonen giza edo gizarte-baldintzak alde batera utzita). Horretarako, nor bere bidea egin behar du arau patriarkaletatik urruneko maskulinitateetara.
- Gure komunitate, erakunde edo instituzioetan beste gizon batzuekin lan egin, norberak maskulinitate hegemonikoa bizitzeko duen moduan aldaketak eragin ditzaketeten tailerretan. Adibidea: liburu honetako III. kapituluaren aurkeztutako dinamikak edo antzekoak.
- Eztabaida- eta eragin-esparruak sustatu, kultura patriarkala desagerrarazteko eta harremanetarako modu berriak eta maskulinitate ez-tradizionalak bultzatzeko. Adibidea: argibide-taulak, liburu-aurkezpenak, bideo-eztabaidak.
- Besteak beste maskulinitateei, aniztasunari, berdintasunari eta eskubideei buruzko aholkua eta laguntza eman edo komunikazio-produktuak sortu, generoaren eta komunikazioaren ikuspegitik behar bezala lantzen direla bermatuz. Adibidea: iragarkiak, ikus-entzunezkoak, tolesgarriak, kartelak.
- Kazetariarekin eta komunikatzaileekin elkarlanean aritu, gure eztabaida-gaiak hedabideetan ager daitezten, informazioa eta mezuak publiko handiengana helarazteko aukerarekin. Adibidea: telebista-saioak, prentsa (paper-formatukoa edo digitala), irratia.
- Sare sozialetako eztabaidan parte hartu eta ekarpenak egin, erantzukizunez eta genero-kontzientziarekin. Adibidea: ez sakatu partekatze edo Atsegin

dut botoia sexistak edo biolentoak diren edo pertsona edo talde bat diskriminatzen duten txiste, testu edo irudietan. Maskulinitateen Sare Iberoamerrikar eta Afrikarrari eta Somos Más por la No violencia de género ekimenei jarraitu.

- Berdintasunaren aldeko eta indarkeriaren kontrako aktibistak izan. Adibidea: egiten diren ekimenei buruzko informazioa jasoz; Homobiaren eta Transfobiaren kontrako Congan, Emakumeen Nazioarteko Egunean (marxoaren 8a), Gizonaren Nazioarteko Eguna (azaroaren 19a), Aktibismoaren 16 Egunetan (azaroaren 25etik abenduaren 10era) eta antzeko ospakizunetan parte hartuz; Egun Laranja ekintzak antolatuz.



Zergatik laranja? Zergatik morea?

Kolore laranja itzaropena, poza, energia eta aldaketa-aurkera adierazten dituelako. BATU ZAITEZ kanpainaren kolorea izateko proposatu zen, 2008an abian jarri zenetik. Kuban, kolore laranja erabili dugu morearekin batera; alegia, mugimendu feministek hainbat hamarkadatan berdintasunaren alde eta emakumeen eta nesken kontrako indarkeriaren aurka egingandako lanean erabili izan dutenarekin batera.

Gizon-taldeak Euskadin: hurbilpen bat egungo egoerara eta ibilbidera

Jose txu Riviere Aranda.
Emakunderen Gizonduz ekimenaren idazkaritza tekniko.

Idatzi honek bi xede ditu: batetik, berdintasunaren aldeko Euskadiko gizon-taldeen historiaren eta egungo egoeraren laburpena egitea; bestetik, talde horien jardunbidea egungo esparru instituzionalaren testuinguruan kokatzea.

Berdintasunaren aldeko gizon-taldeen sorrera eta garapena

Espainiako estatuko gainerakoak bezala, EAEko gizon-taldeak 80ko hamarkadan zehar eta 90eko hamarkadaren hasieran sortu ziren. Ez da lan samurra berdintasunaren aldeko Euskadiko gizon-taldeen sorrerarekin eta jarduerarekin loturiko talde eta une garrantzitsu guztien ibilbidea xeheki jasotzea, baina nabarmenetako batzuk aipatuko ditugu:

- Familia-plangintzari buruzko III. Estatu Kongresua, Euskadi, 1985.
- “Machos, progres y galanes”. 1985eko maiatzean, IPES Elkarteak Iruñean antolatutako ikastaroa. Bertan, hamar bat gizonetako taldea eratu zen, urte eta erdi jardun zuena.
- Bilbon, 1990ean, zortzi gizonetako taldea sortu zen, Asociación Sexológica Garaia elkarteko Fernando Villadangosek bultzatua.
- 90eko hamarkadan, berdintasunaren aldeko zenbait gizon-talde sortu ziren, baina ez zuten luzaroan iraun. 2000. urtetik aurrera, berriz, lan-talde iraunkorragoak sortzen hasi ziren, hala nola: On:Giz Elkarte 2007an, Gru-

po de Hombres por la igualdad de Álava 2006an (2011n desegina), Bilboko Piper Txuriak 2008an, Ermuko Ziprintintzen 2008an...

- Aipatu beharrekoak dira, halaber, zenbait erakunde-ekimen, hala nola Emakunde -Emakumearen Euskal Erakundeak bultzatutako Nazioarteko bi Kongresuak, "*Gizonak gizarte-antolamendu berriaren aurrean*" (2001) eta "*Maskulinitasuna eta eguneroko bizitza*" (2007), edota 2016an Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politika Sailak antolatutako "*Aldaketa dakarten aitatasunak*" jardunaldiak.

Beste erakunde-ekimen bat, 2007an gauzatua, Emakunderen Gizonduz³⁰ programa izan zen: sentsibilizazioaren eta prestakuntzaren alorrean hartutako neurri-sorta bat, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako lanean gizonen inplikazioa eta partaidetza indartzea helburu zuena. Programa hasi zenetik 2018ko abendura bitartean, 7.168 gizonek hartu dute parte ikastaroetan, modu presentzian zein online.

Laburbilduz, azken hamabost urteetan gizon-taldeen presentzia, pixkanaka bada ere, zabalduz joan da EAEko geografia osoan zehar. Hainbat dira berdintasunaren aldeko gizon-taldeak sortzea bultzatu duten faktoreak:

- Egun, gero eta gehiago dira berdintasunaren alde lan egiteko premia ikusten duten gizonak, maskulinitateen, gizonen sozializazioaren eta horrek emakumeengan, gizonengan eta, oro har, gizartean dituen ondorioen inguruan jarduteko beharra aldarrikatzen dutenak.
- Mugimendu feministaren barruan ere gizonei eta gizon-taldeen eraketari zuzendutako lan-ildoak bultzatzen dituzten ahotsak ari dira sortzen. Dena dela, eztabaidagai dago oraindik zeintzuk izan behar duten gizon-taldeen helburuak eta zenbaterainokoa haien presentzia publikoa.
- Tokiko zein erkidegoko administrazio publikoetako Berdintasun Erakunde eta Sailak ere hasiak dira gizonei zuzendutako lan-esperientziak bideratzen. Horietako bat, berdintasunaren alde lan egingo duten gizon-taldeen eraketa bultzatzea.

- Egun, gero eta gehiago dira genero-berdintasunari buruzko prestakuntza akademikoa duten gizonak, batik bat berdintasun-masterrak egin dituztenak, eta horrek handitu egiten ditu gizon-taldeak kudeatzeko eta koordinatzeko aukerak.

Gizonei zuzendutako politika publikoen aldeko egungo esparru instituzionala EAEn

Nazioarte mailan, Emakumeari buruzko Beijjinge IV. Mundu Konferentziak (1995) zehaztu zuen, bere Adierazpenean eta Ekintza Plataforman, zein zen jarraitu beharreko bidea: *“gizonen ekimena sustatuko dugu, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasuna bermatzeko ekintza guztietan parte har dezaten”*.

Euskadiko Autonomia Erkidegoan, gizonei berariaz zuzendutako neurri instituzionalak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean jaso ziren lehen aldiz: *“EAEko herri-administrazioek gizonak etxeko lanetan (pertsonak zaintzea barne) ere erantzukizunak har ditzatela sustatuko dute”*. Legeak, gainera, berariaz jasotzen du gizonentzat antolatutako ekintza espezifikoek legezkoatasuna.

4/2005 Legetik aurrera onartu diren berdintasun-plan guztietan gizonei zuzendutako helburuak jaso dira. 2018an, Eusko Jaurlaritzak *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plan-a*³¹ onartu zuen. Oraindik indarrean dirauen plan horrek xedatzen duenez, *“emakumeen mendekotasuna mantentzen eta justifikatzen duten egungo balioek gizonak ere mugatzen dituzte”*. Gizonen inplikazioa sustatzeko neurriak proposatzen ditu, emakumeen eta gizonen berdintasunerako beharrezko osagarri izan daitezzen, helburu hori lortzeko eragozpen bihurtu gabe.

Adibidez, *Ekonomiak eta gizarte-antolakuntza eraldatzea, eskubideak bermatzeko esku-hartze ardatzaren baitan, Zainteten Ekonomia Feministari buruzko programan, honako hau planteatzen du: “Eredu maskulino tradizionala zailtzan jartzen duten, berdintasunarekin bat datozen eta zainketa-lanekiko konpromisoan oinarritzen diren jarrera eta portaerak dituzten gizon gazte eta helduen kopurua handitzea”*. Gainera, *“gizonek berdintasunerako presta-*

31 EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana (http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/emakunde7plana/es_def/adjuntos/vii_plan.pdf)

kuntza- eta sentsibilizazio-ekintzetan duten parte-hartzearen bilakaera" adierazlea ezartzen du, *Gizonduz* ekimenaren esparruan. Era berean, honako hau planteatzen du: *"Haur eta gazteek zainketa-lanetan ematen duten denbora handitzea, mutilengan arreta berezia jarritz"* eta *"bateratze erantzunkideko neurriei heltzen dieten gizonen kopurua handitzea eta amatasuneko eta aitatasuneko baimenak parekatzeko aukera sustatzea, berdinak eta bestere-nezinak izan daitezen"*.

Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak esku-hartze ardatzaren barruan, sentsibilizazio eta prebentzioari buruzko programan, honako hau planteatzen da indarkeria estrukturala eta kulturala murrizteko: *"Desberdintasunen eta emakumeen aurkako indarkeriaren arteko loturak agerian uzteko, prebenitzen laguntzeko edo indarkeriarik gabeko konponbideak bultzatzeko programa eta jardueretan parte hartzen duten pertsonen kopurua handitzea, batik bat mutil eta gizonena"*.

Foru-aldundiei dagokienez, Bizkaiko Foru Aldundiaren Berdintasunerako V. Foru Planak honako hau planteatzen du: mikromatxismoen aurka borrokatzea eta maskulinitate berriak eta hezkidetzak sustatzea, emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko dagoeneko egiten ari diren lana sendotzeko. Maskulinitate berriak kontzeptuari dagokionez, emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko bidean gizonek gure gizartean duten zeregin garrantzitsua azpimarratzen du, eta orain arte ezarri zaizkigun maskulinitate-ereduak hausteko aukera emango duten gizarte-eredu berriak proposatzen ditu. Gizonak betetzen eta aldi berean pairatzen dituzten rolak eta estereotipoak baztertzea da helburua, berdintasunerako bidean urrats sendoak eman ahal izateko.

Hala, V. Planak hainbat ekintza proposatzen ditu, hala nola Bizkaiko Foru Aldundiko langileen artean *maskulinitate berrien* garrantzia sustatzea eta Gizarte Ekintzarako Sailarekin nolabaiteko lotura duten pertsona-taldeen artean maskulinitate berrien garrantziari buruzko sentsibilizazioa bultzatzea.

Udalerri-mailan, azpimarratzekoa da Basauriko Udalaren indarkeria matxistaren kontrako plana (2017-2020), non gizonen zuzendutako lanaren helburua gizonak indarkeria matxistaren aurkako borrokan murgilaraztea baita, "Gizonak emakumeenganako indarkeriaren kontra" proiektua bultzatuz, sentsibilizazio-jarduerak eginez, eta maskulinitateari eta indarkeria matxistari buruzko go-

goeta-tailerrak eta "Gizonak emakumeenganako indarkeriaren kontra" izeneko jarduerak antolatuz.

Berdintasunaren aldeko gizon-taldeak gaur egun

Era askotako gizon-taldeak ditugu: batere bitartekaritzarik gabe autokudeatzen diren etatik hasi eta maskulinitate berdinezaleetan espezializatuta dauden pertsonak gidatuetaraino. Talde batzuk formalki eratuta daude, dagozkien erregistroetan izena emanda. Beste batzuek, berriz, ez dute entitate juridikorik.

Dena dela, badira zenbait ezaugarri EAEko gizon-talde gehienek partekatzen dituztenak. Batetik, gizon-taldeak, lehenengoetatik hasita gaur egungoetara arte, gizonen dinamizatuta egon dira, eta hala daude oraindik. Gizon horiek mugimendu feministatik edota LGTBQI+ kolektiboetatik gertu daude eta prestakuntza dute genero- eta berdintasun-alorretan. Bestalde, talde gehienek helburu bikoitza dute: batetik, barnera begira lan egitea, hau da, banakako gogoetarako eta sozializazio sexista eraisteko eremua sortzea, horrek norberaren identitateari nola eragiten dion aztertzea, norberaren burua zaintzea eta prestatzea..., hots, banakako eraldaketa ahalbidetzeko. Bestetik, gizartean inplikatzeko eta errebindikazioak gauzatzeko moduak lantzea: kale-ekintzak, idazkiak, salaketak, mugimendu feministaren edo bestelako kolektibo baztertuen (LGTBQI+, adibidez) aldeko jarrerak, sareetan parte hartzea, etab. Oro har, trebakuntzarako, norbere garapenerako (berdintasunezko maskulinitate-erduetara jotzeko) eta gizartea eraldatzeko funtsezko tresnatzat hartzen da taldea.

Berdintasunaren aldeko gizon-taldeek ezinbesteko gogoeta- eta praktika-prozesu bat hastea dute helburu, gizonen berdintasunezko jarrerak har ditzaten, emakumeen ahalduntzea bultzatzeko estrategia osagarri eta paralelo gisa, baita gizonen identitatearen analisi kritikoa egitea eta eraldatzea ere. Talde horiek guztiak bat datoz onartzean patriarkatuak -bidegabekeria eta desberdintasunen mende eroritako gizartearen eragile gisa- abantailazko egoeran jartzen dituela gizonak, gizon izate hutsagatik, eta, beraz, pribilegioak galtzea eta galtzeko prest egotea planteatzen eta aldarrikatzen dute, berdintasuna lortzen laguntzearen truke.

Hona hemen berdintasunaren aldeko gizon-mugimenduaren talde guztiek partekatzen dituzten zenbait ardatz:

- Gizonen konpromisoa aldaketa pertsonala gauzatzeko (afektu-adierazpena, frustrazioaren kudeaketa, sexualitatearen bizipena, homofobiaren aurkako konpromisoa...).
- Emakumeenganako indarkeriaren eta genero-diskriminazioaren aurkako borroka aktiboa.
- Pertsonak zaintzeko erantzukizuna berdintasunez onartzea.
- Maskulinitate-eredu positiboak (gizon zaintzaileak, bakezaleak, sentiberrak...) indartzea, bultzatzea eta ikusgai bihurtzea.
- Gizonen konpromisoa esparru publikoan egoera aldatzeko (berdintasunaren aldeko gizonen masa kritikoa sortzea, kontziliazio-estrategiak defendatzea, botere-guneak emakumeen mesedetan galtzeko prest egotea, legegian aldaketak proposatzea...).

EAEko gizon-talde gehienak Gizon Sareko, Berdintasunaren aldeko Euskal Herriko Gizonen Elkarguneko, kide dira 2009tik. Sare horrek hainbat ekimen antolatu ditu biztanle guztientzat eta bereziki gizonentzat, "kontzientziazio- eta sentsibilizazio-lanak gauzatzeko eta sexuan oinarritutako diskriminazio eta bidegabekeriaren kontrako ekintza publikoak sustatzeko". Gainera, berdintasunaren aldeko gizon-taldeen topaketarako eta esperientzia-trukerako gune bat sortzeko asmoa zuten, trebatzeko, ikasteko eta elkarlanerako ildoak sortzeko. Talde-sare horren presentzia, ordea, ez da izan jarraitua. Hasieran, hainbat kanpaina egin zituzten: besteak beste, genero-indarkeriaren aurkako, "Bortizkeria itzuli", 2009an. Gizon Sarearen ekimenak murriztu egin dira azken urteotan, baina, hala ere, urteko zenbait topaketa antolatu dituzte: azkena 2019ko martxoaren 30ean, Iruñean, elkartrukea eta elkarlana bultzatzeko.

Gaur egun, EAEn eta Nafarroan 18 gizon-talde daude, lurralde guztietan zehar sakabanatuta, bakoitzak bere erritmo eta jardunbideak dituen.

Hona hemen horietako batzuk: Ermuko Ziprizzintzen, Bilboko Piper Txuriak, Santurtziko Gizon Ekimena, Portugaleteko GEZI, Laudioko Biok, bi gizon-talde Iruñeko Eraikiz kolektiboan, Urretxu-Zumarragako gizon-taldea eta Zarauzko Toka. Gainera, Gasteizen, zortzi gizon-talde daude Ez:Berdin proiektuaren ba-

ruan, On:Giz Elkarreak dinamizatuak, eta beste bat Errekaleorren (Gasteizko auzoa, 2013tik okupatua).

Etorkizuneko erronkak

EAEko gizon-taldeen etorkizuneko erronka eta zereginak asko eta askotarikoak dira. Hona hemen horietako batzuk:

- Maskulinitate-eredu tradizionala zalantzan jarri eta bizimodu berdinzaleagoak bultzatuko dituen gizon-masa kritikoa sortzea.
- Berdintasunaren aldeko diskurtsoa lantzea, egungo gizonen aniztasunarekin bat. Gizontasun-eredu tradizionala aldatu egin da, eta genero-identitate eta -adierazpen maskulinoen dibertsitatea handiago da orain. Gizon-taldeek mezuek aztertu egin behar dituzte aldaketa horiek, gure errealitatera egokitutako diskurtsoak eta proposamenak jorratzeko.
- Gizon-taldeek eta mugimendu feministaren arteko konplizitateak eta elkarlanak sustatzea. Gizonek borroka- eta ekintza-gune feministetan parte hartzeko dituzten aukera desberdinei buruzko eztabaidez haratago, ezinbestekoa da mugimendu feministaren berdintasunaren aldeko borrokaren agendan parte hartzea eta laguntzea.
- Tentsio autokritikoari etengabe eustea, autokonplazentzian ez erortzeko. Gizonek berdintasunaren aldeko jarrerak hartzen dituztenean, emakumeek berek baino aitorpen publiko handiagoa lortzen dute askotan. Arretaz jokatu behar da, gizon-taldeek ekintzei gehiegizko balioa emateko arriskuaren aurrean.
- Maskulinitate-eredu "alternatibo" itxiak eskaintzeko aukeratik urruntzea. "Agindu berri zuzenak" ezarri beharrez, berdintasunaren alde diharduten genero-identitate eta -adierazpen maskulinoen aniztasuna onartzea eta legitimatzea. Ildo horretan, gizon-emakume binarismo tradizioetik urrundu behar da diskurtsoa, identitate-kategoria desberdinak, malguagoak eta anitzagoak, txertatzeko eta ikusgai bihurtzeko.

- Gizon izate hutsagatik gizarteak gizon gehienei ematen dizkien abantailak argi nabarmentzea, eta azpimarratzea pribilegio horiei uko egitea abiapuntu ezinbestekoa dela berdintasunaren aldeko bidean aurrera egiteko. Era berean, argi adieraztea genero-identitate eta -adierazpen maskulino guztiek ez dutela botere-maila bera erdiesten, beste ezaugarri batzuek ere (gizarte-maila, mugikortasuna, adina, egoera legala edo jatorria) eragina dutelako gizonen errealitatean, eta, ondorioz, denek beti ez dituzte izaten eskubideez baliatzeko aukera berberak.
- Presentzia garbia eta publikoa izatea indarkeria matxistaren aurka (matxismoak berezkoa duen botere-harreman desberdina hartzen da indarkeria matxistatzat). Indarkeria matxistaren biktima nagusiak emakumeak diren arren, indarkeria horrek berdin eragin diezaieke sistema hetero-patriarkalak gizon-emakumeei ezartzen dizkien eredu hegemonikoak hausten eta zailtzen jartzen dituzten beste pertsona batzuei ere³².

32 Artikulu hau idazteko Gizonduz programako, beste erakunde batzuetako dokumentuetako eta berdintasunaren aldeko gizon-taldeen web-orrialdeetako zenbait material erabili dira.

Maskulinitateak abian

Maskulinitateak abian Maskulinitateen Sare Iberoamerikar eta Afrikarraren (RIAM) proposamen bat da, eta helburu hau du: egungo gizarte patriarkalean nagusi den maskulinitatea nola eraikitzen den ulertzeko beharrezko ezagutzak ematea eta gizon izate hori beste modu batzuetara bizitzeko egin beharreko aldaketa-prozesuen aldeko informazioa eta tresnak eskaintzea, nola gizonezkoei hala emakumezkoei, baina batez ere gizonezkoei.

Emakume Kubatarren Federazioaren Editorial de la Mujer argitaletxeak -Nazio Batuen BATU ZAITEZ kanpaina ordaintzen duten ahalegin nazionalen barruan- argitaratu zuen sail baten zati bat da ekimen hori. Aurreko hiru emanaldiak komunikazio-, osasun- eta hezkuntza-alorrei eskainiak izan ziren.

Letra con género: propuesta para el tratamiento de la violencia de género en los medios de comunicación (“Generodun hitzak: hedabideetan genero-indarkeria lantzeko proposamena”); Violencia contra las mujeres: alerta para el personal de la salud (“Emakumeen aurkako indarkeria: osasun-langileentzako alerta”); eta Educar para la igualdad: propuesta para la prevención y atención educativa de la violencia de género en el contexto escolar (“Berdintasunerako Hezkuntza: eskola-testuinguruan genero-indarkeriari aurrea hartzeko eta dagokion hezkuntza-arreta eskaintzeko proposamena”).

